



TESTAMEN BERRIKO HISTORIA

Bernard Larregi

Iturria: *Testamen Çaharreco eta Berrico Historia (Bi-garren liburua)*.
Bernard Larreguy. Fauver-Duharte, 1777..

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarregiBerriko.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

TESTAMEN ZAHARREKO ETA BERRIKO HISTORIAO

M. de Royaumontek egin izan duenetik
berriro eskararat itzulia;

*Etsenplu eta erreflexione sailduekin;
bi Liburutan ezarria.*

BIGARREN LIBURUA:
Testamen Berria,
Zenbeit Sainduen Bizitzearekin

BAIONAN,
Fauvet-Duharten Inprimerian egina.

M. DCC. LXXVII.
Permisionearekin



I. KAPITULUA

San Mathieu Ebanyelizta

San Mathieu Galileako zen sortzez, eta yudua errelijonez. Haren ofizioa gaitzetsia zen yuduen nazioneaz, publikanoa zelakotzat; erran nahi da hark biltzen zituela erromarrei zor zitzaizten diruzko zuzenak edo inposak. Horra nolakoa zen gure sailduaren ofizioa Jainkoaren semeak manatu zion arteraino hari yarraikitzeaz.

Mathieu Kafarnaonen bizi zen. Hiri hura aurkhitzen zen Tiberiada-ko itsas hegian: han egiten zen inguru hetako traturik gehiena. Hiriz kanpoan zen dretxuen biltzeko bureua edo lekhuia, Galileako itsasorat zaraman bidearen gainean. Urthe bat eta gehiago bazuen Jesu-Kristok Galilean predikatzen zuela. Mathieuen bureuaren ingurutarik iragaten zela, landatu zituen begiak gizon haren gainerat; erran zioen utzteaz guziak, eta hari yarraikitzeaz. Ala miragarriki seinalatu baitzen ordu hartan graziari datxeikon indar guzizkoa! Jainko bat zen bakharra sinhets araz ziozokena mundu-ontasun gose bati, eta errelijionerik gabe zenari ukho egin behar zioela bere yaiduraren arabera irabazbideari. Salbatzailleak etzion hain laster behatu Mathieuri, eta erran: yarraik zakizkit, non publikano hark utzi baitzitu guziak abiatzekotzat bere nausiaren ondotik: erran ere zuen hal-toki haren dizipulu nahi zela. Hobeki erakutstekotzat Salbatzailleari ekhar-tzen zion amudioa, gonbidatu zuen othuruntza handi batetarat.

Aurkitzen zen othuruntza hartan mundu oste bat; han ziren gehie-nak publikanoak ziren: baziren ere baltsa hartan, fama txarra zutenak, eta bere bizitze gaixtoagatik, arbuiatuak zirenak. Salbatzailleak lakhet zuen halakoekin bathzeaz: atseginekin utzten zituen hurbiltzerat bere gana, nahiz erakharri penitentziarat heien bihotzak. Farisauek ezin onhets zeza-keteien Jesusen arraitasuna Mathieuen alderat: bekhatua bera bezain higun zuten bekhatorea bera. Yarri ziren erasian Salbatzaillearen kontra, zeren bekhatorekin yaten zuen; ordean Jesus mintzatu zitzairen ixil araz-teko moldean: erran zioten munduko sakrifizio guziek baino gehiago zuela balio lagunaren alderako amudioak; sendoek etzutela miriku beha-riak, bainan bai eriek; arimen sendatzailea zela, beraz artha oraino gehia-go izan behar zuela galduak izaterat zohazenez; egia zela bada yustuen eta bekhatorengatik zela mundurat ethorria; ordean haren atsegini handie-na zatzala urruntzean gaixtaginak bekhatutik, eta hek amultsuki erakhar-tzean berthuterat.

Mathieuek ederretsi zituen Salbatzaillearen hitz ukigarri hauk: egon zen aphur bat harekin, bekhoz-bekho, solasean; ordutik huntaraino mai-tatu zuen, non ez baitzen gehiago bihurtu bere bureuerat, eta egin baitzen nausi guziz on eta adoragarri haren dizipulu. Yarraiki zitzaion Jesusi pre-dikatzen zuen herri, hiri eta bazter guzietarat. Etzen batere herabe onta-sun guzien largatzera, ez eta ere ahalke besarkatzeaz pobrezia; aitzitik, nahi zuen Kafarnaon guziak yakin zezan etzela leheneko hura, eta morti-fikazioneak egiten zuela haren atsegina.

Mathieuek iskribatu zuen Jesu-Kristoren ebanyelioa yudu konberti-tu berri batzuen othoizetarat, ez grekazko erdaran, bainan hebreukoan. Argitua zen Izpiritu Sailduaz. Ematen daroku begien aitzinean Salbatzai-llak, gizonen artean, eraman duen bizitze miragarria: ez da altxatzen Yaun-doni Yauni bezain gora: ez da sartzen ebanyelista hura bezala Tri-nitateko, eta Jesu-Kristoren yainkotasunaren misterio haltotan: sarkhorki eta konprenitzeko moldean mintzo da. Hortik beretik erran daite san Mathieuen ebanyelioa dagokola hobekienik gure hedadura aphurrari.

Guziek erraten darokute gure apostoluak bizitze garratz eta dorphe bat zaramala; etzuela yaten haragikirik ez eta arrainik, erroz eta belhar-ziz bizi zela bakharrik. Predikatu zuen hogoi eta hirur urthez, Jesu-Kris-toren fedea Ethiopiako erresuman; itzul-arazi zituen Jainkoaganat ezin erran bezanbat pagano; artik-arazi zituen heien idolak, eta eragin elizak egiazko Jainkoaren ohoretan. Eraman zioten bizia, aldarean zela, haizko-ra kolpez, Nadaber zaritzon hirian. San Mathieu hiltzenetik milla eta laue-tan hogoi urtheen buruan, eraman zuten haren gorputza Napleko erre-sumarat. Saildu haren burua ekharria izan da geroztik Frantziarat: maite-ki begiratu da Beauvais deitzen den hiriko eliza-nausian. Saildu bera-ren erlekiak aurkhitzen dire oraino Chartresko hirian.

Salba-gaitezke estatu, adin, ofizio guzietan: ez da nihor ezarri behar ez duenik bere fidantzia osoa Jainkoaren miserikordian. Ontasunek, egi-tekoei darraiotten barraiadurak, paganokeriak berak; hitz batez, deusek ere ez gaitzake gibela, gu nor bagare, sartzetik zeruan. Egia hunen frogantza konpliena idireten dugu san Mathieuen exenpluan. Nork erranen zuen Jainkorik gabe bizi zen, eta ilhunbe lodienetan phulunpatua zen gizon hura eginen zela, bet-betan, Jesus-Kristoren dizipulu? Nausi adoragarria-ren behatze bakharra aski beharko zela argitzekotz haren izpiritua, eta sustatzeko haren bihotza amudio khartsuenaz? Non bait, erran behar da, ez dela deusere gaitzik graziarentzat, errexi eskuratzen dituela bekhatoretan diren handienak berak nahi direnean baliatu grazia haren gantzudu-ra salbagarriaz!



II. KAPITULUA

San Marken Ebanyelioa

San Mark yudua zen ethorkiz. Ezagun da haren mintzotik trebeago zela hebreuko erdaran ezen ez grekakoan. San Mark lehenetarik izan zen Yaun-doni Petrik fedearen ezagutzarat erakharri zituenen artean. Dizipulu berri hunek khar handi bat agertu zuen errelijionearen alderat. Maitatu zuen Yaun-doni Petri, bere aita izan balu bezala. Hortik heldu da apostuluaren printzeak hartu baitzuen san Mark laguntzat bere nekhe, eta harat hunat guzietan, eman ere baitzion bere fidantzia guzia.

San Mark jarraiki zitzaion Yaun-doni Petriri Erromaraino: partale izan zen apostolu hark hiri hartan yasan behar izan zituen atsekabe guzietan. Yaun-doni Petrik utzi zuenean Erroma hots ematekotzat bere apostolutasuneko eginbide hedatuei, ezarri zuen hiri hartan, bere orde, Mark bere dizipulu maitea. Dizipulu hunek leihalki ihardetsi zion bere nausiaren fidantziari.

Erromarrak sustatuak aurkhitzen ziren geroago eta gehiago egiaren alderako amudioaz. Gogoan zaduzkaten Yaun-doni Petriren erran salbagarriak: hetaz oraino hobeki orhoitzekotzat, eta beldurrez behinere ahantz entzun zituzten egia sailduak, othoitztu zuten san Mark emateaz iskribuz, ebanyelioaren historia. Gure saildua erori zen nahi laudagarri hartarat. Iskribatu zituen berak Yaun-doni Petriren ahotik entzunak, eta harekin, bekhos-bekho, izan zituen solasak.

San Markek ez ditu zorrotzasun guzian deklaritzen zein egunez, ez eta ere zein urthez, iragan ziren aiphatzen dituen gauzak: kontentatzen da errateaz garbiki eta leihalki zer entzun eta ikhasi zuen bere nausiaganik. Ez du deusere iskribatu Izpiritu sailduaren argien arabera baizik.

Yaun-doni Petrik egorri zuen san Mark Ejiptoan barna hedatzerat Jesu-Kristoren ezagutza: athera zituen populu osteak idolatriaren ilhumbetarik. Hauts-arazi zituen eta artik-arazi lurrerat idolak. Jainkoaren oho-retan agertu zuen kharra, eta hartu zituen nekheak izan ziren zeruaz benedikatuak eta saristatuak. Erresuma osobat orduraino paganokerian ehortzia zena billakatu zen, haren bidez, saildurik gehien zakharkeien lur dohatsu bat.

San Mark hedatu zen Ejiptotik Alexandriarat. Hiri hura zen inguru hek guzietako bigarrena. Jainkoak hango apostoluzat zadukan gure ebanyelista. Bereganatu zituen, arte laburrez, alexandriarren izpirituak eta

bihotzak. Egin zuen ezin erran bezanbat konbersione. Azkenean, ezin berak buru eginenez guziei, eragin behar izan zituen elizak populuen eskolatzeko. Eliza hetan predikatzen zen Jainkoaren hitza, eta ematen komunionen saildua.

Etzen, alde guzietarik, penitentziatzeko seinale ederrik baizen. Hainitzek arbuiaurik munduko plazerak eta ontasunak, bizitze mortifikatu eta pobre bat zaramaten: liburu saildutan, eta egia eternalak gogoan erabiltean aurkhitzen zuten bere deskantsua eta bozkarioa.

Ordean halako khar saildu batek, eta hanbat merezimenduk izan arazi behar zioten, noiz edo noiz, zenbeit asaldura gure sailduari. Etzen bertzela gerthatu: Alexandriako hiriak nahi izan zion yazarri haren onetan predikatzen zuen apostolu handiari. Abiatu ziren san Marken ondoan: ediren zuten sakrifizioa ofrendatzen hari zela; yabetu ziren hobenik gabeko gizon hartaz; estekatu zuten lephotik soka batez, eta erabilli zuten herrestan goizetik arratseraino. Odola zurrutan zarion saildu haren gorputzari, eta haren haragiak erortzen ziren zathitan. Tormenta hauk guzien erdian, bake gozo batean zuen bere bihotza; etzen baratzen benedikatzetik bere jainko adoragarria, ez eta kantatzetik haren laudorioak. Ilhundu zenean, gure saildua izan zen artikia presondegi izigarri baterat; ordean zer kontsolazione harentzat! Agertu zitzaion Jainkoa, eta agindu zioen laster sarthuren zela haren lorian.

Biharamunean, argitu orduko, gaixtaginek athera zuten san Mark presondegitik, eta herrestatu zuten, egundaino bezala, azken hatsa artik zezan arteraino. Saildu haren gorputza izan da eramana denborarekin Veniserat: ohoratua da hiri hartan manera guzizko batean.

Ala indar handia baidu Jainkoaren hitzak! Gauza guziek ekhartzen diote obedientzia: atherarazi ditu urak harroka gogorretarik: eragin du bide idor bat itsasoaren erdian; ilki arazi ditu hillak lurraren erraietarik: hitz batez, mintzatzen da Jainkoa, eta haren nahia konplitzen da berehala. Leheneko bothere bera du orai ere Jainkoaren hitzak; zor diogu beraz egundainoko errespektu eta sumetimendu bera; ordean nondik heldu da hanbat obra espantagarri eragin duen Jainkoaren hitza ez baida orai hedatzen gure bihotzetar? Predikuek hain konbersione guti eragiten baidute? Jainkoa bera mintzo da bere ministroen ahoz; ifernu beraz dixidatzen gaitu, zeru bera agintzen daroku. Halarik ere, o! itsumendu auhendagarria, bakharrak dire hitz saildu hark bere baitan sar-arazten dituenak. Huna zergatik Jaunaren hitzak ez dituen gizonak Jainkoaganat itzul-arazten: eragintza salbagarri hura lur agor batetarat erortzen ohi da, diot bihotz gogor eta guritu nahi ez duen batetarat. Gutiak dire bere barneak



behar den bezala aphaintzen dituztenak erakhartzekotzat salbamenduko fruitu gozoak. Nahi zarete probetxatu Jaunaren hitz sailduaz? Entzun ezazue xede humil eta salbamenduko hirritsa saildu batekin: eta ordutik ez da harrizko bihotzik hautsiko ez duenik, ez da bekhatore hain errebe-laturik yarriren ez denik errexki zeruko bide dohatsuan.

III. KAPITULUA

San Luk Ebanyelista

San Luk paganoa zen sortzez, eta Antiokekoa; erran nahi da, Siria-ko hiri buruzagikoa zela. Yaun-doni Pauleri zion zor Jainkoaz zuen eza-gutza salbagarria. Apostolu haren ahaidea zen, eta denbora berean haren adiskide maitea. San Luk miriku zen, eta san Hieromeren arabera, miriku hainitz yakiña. Etzen hamabi apostulutarik: ez da beraz mintzo berak ikhusi zituen gauzez, san Mathieu eta Yaun-doni Yauni mintzo diren bezala; bainan mintzo da Jesu-Kristo ikhusi duteneen, eta haren akzione sailduen lekhuko izan direneen erranen gainean.

San Luk Izpiritu sailduaz izan zen erakharria iskribatzerat ebanyelioa: eman izan zen hartan Salbatzaillea sorthu zenetik berrogoi eta hamabortz urtheen buruan. Ordukotzat san Mathieuek eta Yaun-doni Yaunik iskribatu izan zituzten bere ebanyelioak; ordean nola ez baitzuten aski xehatu Jesu-Kristoren bizitzea, hortik gerthatu zen apostolu faltso batzuk moldatu baitzituzten gezurrezko historioak. Jainkoak nahi izan zuen suntsi-arazi gezurra, eta ezagut-arazi egia; hortakotzat eman zion burutarat gure sailduari iskribatzea ebanyelioa. San Lukek xehetasun handirekin dakharzke Salbatzaillearen lehebiziko urthetako akzioneak, bai eta ere Andredena Mariaren bizitze saildua. Yaun-doni Petrik laudatu izan du san Luken ebanyelioa: guziek behatu izan diote Elizaren liburu sakratu bati bezala: zer estimu eta errespektu ez diotzogu beraz behar bihurtu! Apostolu handiak, mintzatzean bere dizipuluaz, erraten du ohoratzen zuela ebanyelioa bera zaraman bizitze sailduaz, bere berthuteen distiaduraz eta bere khar miragarriaz. Oraino urrunago hedatzen du san Luken laudorioa, deithzen duenaz geroz Elizeen apostolua, eta Jesu-Kristo beraren loria. *Gloria Christi*.

San Lukek egin zituen, alferretan bazen ere, bere egin ahal guziak gibelatze kotz Yaun-doni Paule yoatetik Jerusalemrat: bazagien zer zagon harentzat, zer yasan beharko zuen lekhu hartan etsaieen errabiaren alde-tik; halarik ere, dizupulu leihal hura etzen nihoizere hastandu bere nau-siaganik; aitzitik yarraiki zitzaion hiri hartarat ere. Yaun-doni Petri izan zen preso altxatua: san Lukek etzuen hura gabe nihon onik; sarthu zen presondegi berean bere nahitarat, eta nahi izan zuen bere partea haren atsekabe eta lazzeria guzietan.



Libratu zuten Yaun-doni Petri persondegitik, bi urtheen buruan. Orduan apostulu handi hau ibilli zen Italian barna: hedatu zen urrunago ere, hala nola, Asiarat eta Greziarar: san Luk bere dizipulu maitea yarrakitzen zitaion bazter guzietarat. Azkenean, bata nola bertzea, hedatu ziren Erromarat. Yaun-doni Petrik hiri hartan behar zuen, Yaun-doni Paulek bezala, galdu bere bizia. San Lukek etzituen behinere galdu begietarik elizaren bi argi handi hek. Iduri zuen bi apostulu hek utzi ziotela san Luki, primuzatzat bezala, berek zuten Jainkoak izpiritua eta Kharra. Ez ahal zen herririk, ez eta probintziarik gure sailduak Jainkoaganat erakartzuten etzuenik bere nekhe apostoluzkoen bidez. Bazter guziak betheak izan ziren, hari esker, fraidez, arima Jainkotiarrez eta martirez. Zein da lekhuia, diote elizako aitek, argitu ez duena ebanyelioaren arraio distiosenez?

Jainkoak deithu zuen beregana gure ebanyelista lauetan hogoi eta lau urthetan: begiratu zuen garbitasuna bere bizi guzian. Urkhatu izan zuten arbola batetarik. Saildu guti bide da hark bezanbat pairatu duenik. Erran daite haren bizitze guzia bethiereko martirio baten pare izan dela.

Sinhetsten othe dugu Jesu-Kristo gure Jainkoa dela, eta gure nausia? Sinhetsten othe dugu ez dela zerurat heltzekotzat bertze biderik berak irakhatsten darokuna baizik? Egia hauk sinhetsten baditugu, zergatik ez dugu mundu enganakhor hau alde baterat largatzen, eta hartzen gure nausi bakhartzat bere dizipuluak salbatu nahi dituen Jainko adoragarria? Izan dezagun graziaren alderat san Luken leihaltsun bera, pazientzia bera, khar bera Jesu-Kristorentzat: aithor dezagun ez dela banitaterik baizen mundi huntan, lekhat, Jainkoa maitatzea, eta hura bakharririk zerbitzatea: *Vanitas vanitarum et omnia vanitas, etc.*

IV. KAPITULUA

Yaun-doni Yauni Apostulua eta Ebanyelista

Deusek ere ez ditu hala ezagut-arazten Yaun-doni Yauniren saildutasuna eta merezimenduak, nola ebanyelioak ematen dioen titulu ohoragarriak deithzen duenean Jesu-Kristoren dizipulu maitea. Egundaino ez da izan laudorio ederragorik, ez eta zuzenkiago emanik. Yaun-doni Yauni galilearra zen, Yaun-doni Yakoberen anaia eta haren ondokoa. Arrantza zuen ofiziotzat. Hogoi eta lau urthetako hein hura zuen izan zenean altxatua apostolutasunerat, eta Salbatzailleak berezi zuenean bere dizipulutzat.

Nausi adoragarriak bertze dizipuluak baino gehiago maitatu zuen Yaun-doni Yauni haren garbitasunagatik. Etzuen deus gorderik harentzat. Bertze dizipuluak askotan haren arartekotasunaz baliatzen ziren zerbeit argitasun nahi zutenean. Jesu-Kristok gure apostuluari ekhartzen zion amudioa heltzen zen pausatzerainokoan bere burua, egin zuen azken aforian, haren bulharreen gainean. Gurutzean ere behatu zion bere buruari bezala; ezen erran zion bere amari, hartaz mintzo zela: huna zure umea; eta Yaun-doni Yauniri erran zion orobat erakustean Biryina saildua: huna zure ama; ohora eta zerbitza zazu zure ama maitea bezala.

Gure sailduak etzuen behinere utzi Salbatzaillea begietarik azken hatseraino: lekhuiko aurkhitu zen zilhatu ziotenean, lantzaz, sailhets sakratua. Nork erran zertaraino zen doloz zaurthua ikhustez bere Jesus maitea gurutze bati itzatua, eta tormenta guzien erdian! Hortakotzat yakin behar ginduke zenbatetaraino hedatzen zen haren amudioa Salbatzaillearen alderat. Guk erran dezakegun guzia san Krisostomekin batean hau da, Yaun-doni Yaunik behin baino gehiagotan yasan izan zuela martirioa, *Multoties martyr est Joannes.*

Izpiritu saildua yausti zenean apostoluen gainerat, Yaun-doni Petri eta Yaun-doni Yauni bi adiskide handiek, sendatu izan zuten paralitiko bat tenpluko athean. Mirakuillu hark egin zuen haro: izan ziren preso altxatuak eta interrogatuak. Ikhusi zen Jainkoak berak zarabiltzala heien bihotzak eta mihiak: arrantzale harro eta eskolatuak etziren batzu nola mintzatu ziren, bertzela, hek bezain fermuki eta ederki?

Yaun-doni Yauni ebanyelista azkenekotarik izan zen, apostoluen artean, utzi zuena Judeako erresuma, predikatzekotzat ebanyelioa lekhu arrotzetan. Hedatu zen Asiako bazter zabaletarat; hark eragin eta gobernatu zituen alde hetako elizak, eta beregainki Efesa hiriko eliza. Izarri-



arazi zuen gure erreljione saildua. Aski zuen agertzea; bereganatzen zituen berehala guziak. Haren malsotasunak haren aire modestak, haren arraitasunak, haren hitz sailduen gantzudurak, eta ez gutienik, haren baitan seinalatzen zen garbitasunak, suntsi-arazten zituzten ilhunbe lodienak eta hauts-arazten biotzik gogorrenak.

Domizien zaritzon enperadore krudel batek, yazarri zioten giriztino guziei. Gure saildua hartua izan zen eta Erromarat eramana. Artiki zuten olio irakiturak; ordean athera zen handik egundaino bezain sendo eta hazkar. Desterratu zuten Patmosko irlarat, eta kondemnatu nekhe dorphe batzutarat. Gure sailduak bazituen ordu hartan lauetan hogoi eta hamar urthe. Izan zituen Jainkoa ganik bere desterruan kontsolazionerik gozoenak. Denbora hartan iskribatu zuen, Jesu-Kristoren manuz, Apokalipsa deithzen den liburua, zeinaren hitz guziak, san Hieromeren arabera, haren bertze misterio baidire.

Yaun-doni Yauni ilki zen hemezortzi ilhabeteen buruan Patmosko irlatik, eta bihurtu zen Efesarat. Hiri hartan eman zuen iskribuz bere ebanyelioa. Huna zergatik. Jesu-Kristoren jainkotasunari nahi zioten heretiko batzuk, damustatzen zuten bere blasfemioez gure eliza saildua. Yaun-doni Yauni zen apostulutarik bakharra oraino bizi zena. Guziek errekeritu zuten agertzeaz bere burua Jesu-Kristoren alde, eta erakutsteaz bertzei nola behar ziren hartu erreljionean etsaien garaitzekotzat. Ezin debekatu zen erortzetik halako galde zuzen bidezko batetarat; ordean lothu gabe lanari, nahi izan zuen egin zadin lehenik barur bat, eta guziak eman zitezen othoizetan. Horra nola Yaun-doni Yaunik hasi zuen eta osatu bere ebanyelioa, argitua zelarik Izpiritu sailduaz. Suntsi-arazi zituen heretikoen gaixakeria beltzak, eta eman zuen argi handirat Jesu-Kristoren jainkotasuna. Nekheak eta adin handiak ezindu zuten azkenean, gure saildua: etzen gehiago bera gai heltzekotzat elizarat eta giriztinoen bilk-huetarat: bere dizipuluek zarabillaten. Guti mintzo zen bere azken predikutan: hauk ziren maizenik ahoan zituen hitzak: ene ahur maiteak, elkhar maita zazue, elkhar maita zazue. Haren aditzaileak miretsiak ziren entzuteaz bethi gauza bera. Ihardetsi izan zuen horren gainean Jesu-Kristoren dizipulu maite bati zagokon zuhurtziarekin: huna nola: egia da, bethi gauza bera entzuten duzue ene ganik; ordean gauza hura bera da Jainkoak bereziki manatzen darotzuena. Hura behar den bezala egiten duenak egiten du aski salbatua izatekotzat. *Si folum, sufficit.*

Jainkoak khoroatu zuen bere loria sailduaz gure apostolua. Hil zen ehun urthetan Efesako hirian, eta haren gorphutza han berean izan zen ehortzia.

O! Bildots narraio gabea, Biryina bat hautatu duzuna zure amatzat, sor-araz ezazu, othoi, ene biotzean amudio khartsu bat garbitasunarentzat, eta higuntzarik handiena berthute preziatu hura zaurthzen duen bizio laidotsuarentzat. Egizu urrun nadin behatztopotzeko bide lerragarritarik, eta yarraik nakion leihalki zerura daraman bide dohatsuari. O! garbitasunaren Jainkoa, egidazu grazia egotekotzat ene sentsuen gainean atzarria, eta etsai gaixtoak ez dezan har ene baitan eskurik. Biryina saildua, ama amultsua, kondatzen dut zure umei ekhartzen diozuten urrikal-menduaren gainean; eta zuk, o! Jesusen dizipulu guziz maitea, lagun nazazu, zure othoitz onez, maitatzen bihotzaren garbitasuna, zuk hanbat maitatu duzun berthute guziz ederra.



V. KAPITULUA

Biryinaren Anunziazionea

S. Luc. 1.

Ethorri zenean Jainkoak egin ahal zezakeien obrarik miragarrienaren egun zorionezkoa: egun, lau milla urthe hetan lehiarekin igurikia: egun handi hura, zeinetan Biryina bat behar baitzen amatu, eta Jainko bat gizon egin, Jainkoak egorri zuen Gabriel aingerua lehenik Zakariasen gana, zeina ordu hartan, intsentsuen ofrendatzen hari baitzen tenpluan, erraterat seme bat izanen zuela Joanes deithuren zena, eta haren sortzeak hedaturen zituela Israel guzirat bozkarioa eta benedikzioea. Handik sei ilhabeteren buruko, Jainkoak egorri zuen aingeru bera Andre-dena-Maria gana Nazaretherat, zeinetan egiten ohi baitzuen bere egoitza.

Maria ezkondua zen Josefekin. Jainkoak eman zion senhar prestu hura haren garbitasunaren begiraille bezala. *Salutatzen zaitut*, erran zion aingeruak Mariari, *o! zu graziaz bethea zarena; Yauna da zurekin; benedikatua zare emazte guzien artean*. Salutantzia hark berekin zakharkeien laudoriorik handiena eta ohoragarriena; ezen hitz hek erran nahi zuten Maria bethea zela Izpiritu sainduaren dohainez; benedikzioe guziak gaindiz zirela haren baitan, eta etzela Jainkoaren begietan batere hura bezain agradagarririk.

Maria nola baitzen Biryina guzietarik garbiena, modestiak ahalkarazi zuen ikhusi zueneko aingerua gizonaren iduriaren azpian. Asaldatu zen guzia. Hori ikhusirik hurbildi zitzaion aingerua; altxatu zuen haren bihotz eroria, erraten zioela: Maria, etzaitzela batere izi; ardietsi duzu grazia Jainkoaren aitzinean; badohatzu ematerat seme bat zure garbitasuna izan gabe batere zaurthua. Konzebituren duzu seme hura zure erraetan; emanen duzu mundurat, eta deithuren duzu JESUS. Handia izanen da, molde guziez. Yarriko da Dabit bere arbasoaren tronua ganean, eta haren erresuma hedaturen da alde guzietarat.

Nolakoak etziren kreaturarik humilenaren sentimenduak entzutean aingeru bat hala mintzatzen! Mariak ezin eman ziozoken bere buruari Jainkoak hura berezi zuela misterio handi haren konplitezkotzat. Bertze alde, hain zuen maite bere garbitasuna non, ikharan yartzen baitzen orhoitzeaz beraz ama izan behar zuela. Galdegin zion aingeruari nola bada obra ahal zitezkeienez hark erran zituen gauza espantagarriak, etzuenaz geroz ezagutzen gizonik? Aingeruak deskantsatu zuen Mariaren

gogoa, erranik gizonak etzirela misterio hartan kutsaturen, Izpiritu sainduak berak sor araziren zuela haren erraetan mundurat eman behar zuen umea. Yakin ezazu, erran zion oraino aingeruak Mariari, Jainkoak Elizabeth zure ahaide hurbillaren fagoretan egin izan duena. Aurkhitzen zen adinean etzen igurikitzeke izanen zuela haurrik, bizkitartean sei ilhabete-tako izorra gerthatzen da. Ez, ez da deusere Jainkoaren graziak egin ahal ez dezakenik.

Aingerua mintzo zen ordu berean, Maria izan zen argitua graziaren arraiorik bizienez. Konprenitu zuen behar zen guzia. Ez deustatu zen Jainkoaren aitzinean, eta eman zen oso-oso haren nahiaren azpian. Mintzatu zen hitz hautaz: huna Yaunaren zerbitzaria, egin beitez ene baitan zuk erran dituzun guziak. Aingerua suntsitu zen ordu hartan berean, eta utzi zuen Biryina saindua humiltasunik handienean. Hura izan zen orena Jainkoaren semea gizon egin izan zena Maria garbiaren errai sakratutan.

Elizak arrazoin handirekin ohoratu du, menderen-mende, Salbatzaillea gizon egin zen egun dohatsua, misterio hura denaz geroz grazia guzian ithurburu salbagarri bat mundu guziarentzat. Elizak Mariari egiten diotzon othoitzetan gehienik agradatzen zaiona Biryina sainduari, eta guretzat probetxosena da aingeruaren salutantzia deithzen den othoitz, erran nahi da *Abe Maria*. Erran daite Izpiritu saindua bera dela othoitz labor hunen autora eta ithurria. Hitz hautaz baliatu zen Gabriel aingerua yakintsun egin zuenean Maria inkarnazioeko misterioaz, bai eta ere hedatu zenean santa Elizabethen gana. Ez da saindurik yarraiki etzaionik othoitz ttipi huni. *Abe Maria*, dio Jesu-Kristoren imitazioeko liburua egin duenak, egundainotik arima Jainkotiarren othoitz maitea izan da.

Ez da ordean aski ezpainez erratea *Abe Maria*: bihotza behar dugu mintzarazi. Zenbat baidugu ere othoitz labor hau maiz mihian, ez ditu gutiago galdetzen gure atenzioea eta gure errespektua. *Abe Maria* erraten dugun aldi guzian behar gara orhoitu salutetzen dugula Andre-dena-Maria zeruko eta lurreko erregina bezala, eta bekhatoreen ihes-lekhu segura bezala.



VI. KAPITULUA

Andre-dena Mariaren Bisitazionea

S. Luc. 1

Andre-dena Maria eman zen bozkario guzietan entzun zuenean Gabriel aingeruaganik Elizabeth, bere ahaidea izorra gerthutzen zela bere adin handian, eta bere erraietan zakharkeiela, sei ilhabete hetan, Salbatzaillea aitzindu behar zuena. Lehiatu zen hari bere atsegina seinalatzerat: bazakizkien bisita hari zarraizkon obra miragarriak. Egin behar izan zituen berrogoi lekhoa bide. Nekheak eta gaitzasunek etzuten batere lotsatu; ez zitzaizkon deusere iduritzen: guziez gorago altxatzen zen Jainkoaren nahiaren alderat zuen leihaltasuna.

Maria etzen hain laster sarthu Zakariasen etxean non Elizabeth yoan baitzitzaion aitzinerat. Mariak besarkatu zuen ahaide maite hura, ideki zuenektotz ahoa haren salutatze kotzat. Elizabethek bere erraietan zuen haurrak eman zuen berehala erakusterat bere alegantzia handia. Abiatu zen, yauzika, amaren sabelean. Elizabeth mintzatu zitaion Mariari hitz hautaz: nola daite Jainko Jaunaren ama ethor dadin ene ikhusterat? Urrun da merezi baidut hulako ohorerik: ahalke dut ikhustez ene burua hortarainokoa fagoratu. Ala doatsu baitzara, zion oraino Elizabethek, o! zu ene ahaide maitea, sinhetsteaz lanhoki, eta batere trikatu gabe, aingeruaren erranak! Zaren seguratu Jainkoak osaturen dituela zure baitan berak hasi dituen obra miragarriak: eman darotzun hitzaren yabe izanen da. Mariak ihardetsi zuen humiltasun eta modestia guziarekin: ez naiz deusere, ene baitarik. Jainkoaz naiz altxatu ohore handi huntarat; hari diot zor naizen guzia. Nahi izan ditu artiki bere begiak zerbitzari apha baten gainerat, eta hartu izan nau, naizen bezalako ez deusa, bere amatzat. Jauna dela beraz baxharrik lorifikatua: bihurtzen diotzat eskerrik handienak. Adoratzen dut mundurat emanen dudana haurra ene Jainko bezala, ohotzen ene Salbatzaille bezala, eta maitatzen ene seme bezala.

Andre-dena Maria egon zen santa Elisabethekin hirur ilhabeteen ingurua. Zer grazia eta benedikziona etzuen yauts-arazi, arte hartan, Zakariasen etxerat! Jainkoak hanbat benedikatu bazituen Obededon eta haren ahaideak idukitze sari, hirur ilhabetez, bere etxean Jaunaren arka, zer graziazko gaididura etzuen ardietsi behar izan Elizabethen familiak Maria harekin egon zen denbora luzean! Biryina saildua egon zen bere

ahaide maitearekin bihurtu gabe Nazareth bere herrirat, ikhus arteraino hareganik sortu behar zen mirakuilluzko haurra.

Deusek ere ez du hala ezagut arazten, dio san Bernatek, seme Jainkoak Maria bere amari eman izan dion bothere guzizkoa, nola hartzen den moldeak ematekotzat munduaren ezagutzarat bere lehenbiziko graziak. Saindutu nahi badu bere aitzindaria sortu ere baino lehen, Mariaz baliatzen da: nahi badu egin bere lehenbiziko mirakuillua, ura arnotarat itzultzean, Kanako ezteietan gerthatu izan zen bezala, badago Mariak mirakuillu hura galde diozan arteraino. Hortik ageri da Jainkoak lakhet duela guri ungi egitea Mariaren arartekotasunaz. Aithortu behar dugu beraz Mariaren laguntza hagitz dela prezagarria, eta zuhurtziak nahi duela ezar dezagun gure fidantzia osoa ama amultsu eta urrikalmenduz bethea datzanaren alderako debozione funtsezkoan.

Zer konsolazione gozo yakitea galde dezakegula esperantza handienarekin Biryina sailduaren laguntza miragarria! yakitea botheretsu bezain arrai agertzen dela gure behar guzietan! miserikordiosa eta miserikordia beraren ama dela!

Ez bide da damnamenduaren seinale ageriagorik, nola fidantziarik eta debozionerik gabe izatea Maria sailduaren alderat. Salbamendua da (guziek badakigu) gure egitekorik premiazkoena, nolazpait-ere, gure egiteko baxharra. Nola beraz egon zinki yarraiki gabe salbamendurat heltzekotzat erreljioneak ematen darokun biderik segurenari! Nola ez maita zeruko atea bera den Biryina saildua! Nola egon ezaxolatuki sar-arazi gabe gure arimeen intresetan gure laguntzerat guzia ekharria den Jesusen ama maitea!



VII. KAPITULUA

Jeru-Kristo sortzen da, eta adoratzen dute artzainek

S. Luc. 2.

Bazuen bortz milla, lauetan hogoi eta hemeretzi urthe zerua eta lurra kreatuak zirela Jesu-Kristo mundurat ethorri zenean. Sorthu izan zen Biryina Mariaganik Bethleem daritzon Judako hirian. Auguste enperadoreak nahi izan zuen yakin bere erresumako indarren berri, eta zenbatetaraino heltzen ziren haren aspiko guziak. Hortarakotzat bat bederak behar zuen ezarri bere izena nondik ere baitzuen bere ethorkia eta lekhu hartan berean.

Enperadorearen manua ezagutzarat emana izan zen ordu beretik, Yosefek behatu zion aingeru batenari bezala; Mariak ere zenbat baitzen zeruko eta lurreko erregina, ekharri zion obedientzia gizon hilkhor baten nahari. Bi espos saildu hek utzi zuten berehala Nazareth Galileako hiria, zeinetan baitzuten bere egoitza heltzekotzat Bethleemerat, eta ezarri zituzten bere izenak hiri hartan, handik eta Dabiten leinutik atheratzen zirelakotzat. Etzen gauza gutia Yosefen eta Mariarentzat lothzea lau egunen bideari. Etzen denbora gutiago behar hek ziren lekhutik Bethleemerat heltzekotzat. Yakintsun ziren biak obratzeko zen misterioaz. Bazakiten Jesu-Kristo, profeteen arabera, Bethleemen behar zela sorthu. Nekheak etzituen batere lotsatzen: eman zitzaizkon, gogo onez, bideari.

Urrun da izan baitzuten hiri hartan begitarterik batere. Etzen arbuiorik baizen heientzat; hiri hartako ostalerek etzuten ikhusten Yosef eta Maria baitan kanpotik ageri zen pobrezia baizik: etzioten behatzen heien kondizionari, ez eta Mariaren orduko estatuari. Yendeak osteka heldu ziren hiri hartaraz bazter guzietarik. Hango etxe eta zokho guziak betheak ziren munduz. Maria eta Yosef lurraren gaineko bi presuna sailduen eta errespektagarrienak ezin ostatatu ziren Bethleemen, bere dirutan ere; yoan behar izan zuten hiriz kanpoan zen heia urratu batetarat.

Min bide zen Jainkoaren amarentzat eta Yosefentzat ikhustez bere buruak halako lekhu humiligarri batean. Ordean humiltasuna irakhatsterat heldu zenak etzuen damurik batere, aitzitik atsegin zuen han izateaz. Biryina sailduak bazakien noiz, eta zer mugaz sorthuren zen Salbatzaillea. Iragan zuen gau guzia kontenplaten Yosefekin, gozotasun eta allegrantzia handitan, konplitzerat zohan misterioa.

Mariak eman zuen mundurat, gauerdi gainerat, bere seme Jainkoa zaurthu gabe bere garbitasuna. Yarri zen ahuspez haren oinetan, eta adoratatu zuen sorthu berria Jainkoak berak ezagut ahal zezakeien amudio, errespektu eta admirazonekin. Nolakoak etziren Yosefen humiltasuneko eta adorazonezko sentimenduak ikhustez Jainko haur egina, eta bera haren aita-ordetzat hautatua! Ordutik heia erromes hura bilhakatu zen munduko lekhurik ohoragarriena eta parabisuarekin iduririk gehien zuena.

Zenbat gogoeta salbagarri ez detzake eragin Jesusen sortze mirakuluzkoak! O! ene Salbatzaillea, ala laster abiatzen baitzare munduko urgu-luari yazartzen! ala laster urmariarazten baiduzu gizonaren suphertasuna! Mundu guziaren kreatora mundurat heldu da, eta lurra zukeien lek-hurik arbuigarrienean sortzen da! Jainko bat zeinarentzat zeruak berak ez baidu deusere aski ederrik, eta bere tronua izar guziez gorago duena manyatera batean datza etzana! gauza guzien yabea, deus-ere gabe, guzien eskasean aurkhitzen da! Zer ikhugarri espantigarri! Lurreko bas-abereek eta aireko hegaztinek badituzte bere egoitzak, eta ontasun guzien emal-leak ezdu non pausa bere burua!

Non da bada (zioen, bertze orduz, san Bernatek) non da sorthurik heldu den erregeren palazioa? Non da haren tronua? Non da haren kor-tea? Ihardets zakion: heia bat da sorthu den erregearen palazioa; lastoa da haren ohea; manyatera da haren tronua; Maria eta Yosef ditu bakharrik bere ingurutan. O! amudio ezin erranezkoa (san Augustin mintzo da): O! karitate, gizonaren izpirituaz gorago dena! Nori gogoraturen zitzaion egundainotik bere aitarekin batean loriaz gozatzen dena sorthuko zela emazte baten ganik!

Jesu-Kristo etzana izan zen manyatera Erroman da maiteki begir-tua eta errespektatua Andre-dena Mariako eliza nausi ederrean: Salbatzaillearen gorphutz sakratuaren troxatzeko erabilli ziren oihalak erlekio pre-ziatuegiak ziren hetaz ez yabetzekotzat. Enperadore batek beretu zituen, eta egin zion hetazko emaitza baliosa Louis Frantziako errege sailduari. Printze Jainkotiar hunek ezar-arazi zituen Parisko hirian, saildua daritzon kaperan.

Jesus sorthu zenekotzat, aingeru batek hedatu zuen berri handi hura ingurutan ziren artzainetarat. Aingeru hura iguzkia baino distiosagoa zen. Lilluratuak izan ziren artzainen begiak, eta lastuak hekin bihotzak; ordean izialdura eman zuen aingeruak berak deskantsatu zituen artzainak erraten ziotela: ez dezazuela izan beldurrik, ekhartzen darotzuet igurik ahal deza-kezen berririk zorionezkoena, bozkariarik handienak hedatu behar



duena zuen bihotzetarat eta populu guzirat. *Evangelizo vobis, etc* Bai, yakin zazue guziek, sorthu da Bethleemen zuen Salbatzaillea, zuen Yauna eta zuen Jainkoa; edirenen duzue heia erromes batean, troxetan emana. Artzainek etzituzten hain laster entzun hitz allegeragarri hek, non aingeru oste bat hasi baitzen kantatzen Jainko Yaunaren laudorioak ziotelarik: Yauna dela lorifikatua zeruan, eta bihotza garbi duena bizi bedi lurraren gainean bakean, *Gloria in excelsis Deo, etc*

Artzainak etziren herabe agertu graziaren alderat: elkhar sustaturik, eman ziren berehala bidean nahiz ikhusi, lehen-bai-lehen, entzun zituzten gauza miragarriak. Heldu ziren Bethleemerat gau-erdotsuan; sarthu ziren heian, betheak zirelarik Yaunaren graziaren gantzudura gozoaz; eman ziren ahuspez haur sorthu berriaren oinetan; adoratu zuten bere Salbatzaillea eta bere Jainkoa bezala. Salutatu zituzten Biryina saildua eta san Yosef. Gero bihurtu ziren, bozkariarik handiengan, bere arthaldetarat.

O! zuek Salbatzaillea lehenbizirik adoratu izan duzuenak, ala handia baida zuen zoriona! Ordean zerk behar gaitu gibelatu zorion beretik? Deusek ere; ezen erran daite Jesu-Kristo, egun oroz, sortzen dela gure aldaretan; zergatik ez dugu beraz guk ere adoraturen artzainek agertu zuten lehia berarekin? Egia da, ez dugu ikhusten Jesus maitea artzainek bezala gorphutzeko begiz; ordean guk baino fede gutiago behar othe zuten sinhetstekotzat, estatu urrikalgarri hartan aurkhitu zuten haurra, zeru, lurren kreatzaillea zela, hekin Jainkoa, hekin guzia?

VIII. KAPITULUA

Jesu-Kristoren Zirkunzisionea

Luc. 2.

Jesu-Kristo zirkunzizatua izan zen sorthu zenetik zortzi-garren egunean. Biryina eta Yosef eman nahi izan ziren eginbide hartan. Hortik ematen zuten erakutserat legearen alderako leihaltasunik handiena. Bazakiten bada seme Jainkoak etzuela zirkunzisionearen beharrik; ordean bere humiltasunak iduri-arazten zioten Jesusek ere zeremonia borthitz hartarik iragan behar zuela, bertze haur guziek bezala. Nork erranen zuen Salbatzailleak, bekhatuaren kutsurik gabe zenak, eman nahiko zuela bere burua lege dorphe baten azpian? Nahiko zituela yasan, mundurat ethorri bezain sarri, zirkunzisioneari zatxeizkon oinhaze minak, eta onhetsi bere gorphutz sakratuan bekhatuaren zigillu humiliagarria! Ezen erran dezakegu inozentzia bera den Jesus maitea bekhatore bezala agertu zela zirkunzisionean. Ala nausi dibinoak irakhatsten baidaroku orduan eman zuen humiltasuneko exenpluaz arbuiatzen munduko nahikarak, eta bihotz onez pairatzen sofrikari eta idoi guziak!

Yuduek ematen ohi zioten izen bat bere hurrei zirkunzizatzen zituzten egunean. Jainkoaren semeari eman zitzaion izentzat JESUS: izen adoragarria! Izen bertze izen guziez goragokoa! Izen zeinaren aiphamenak berak galdetzen baidu errespekturik handiena! Ordean ala ungi gostarrik erosi izan baitzuen Salbatzailleak Jesusen izen saildua! Sortze pobre bat, bizi nekhatu bat, nigar preziatuenak etziren titulurik aski Salbatzaillearen izena merezitezekotzat; gure salbamenduak oraino gehiago du balio Yaunaren begietan: isuri nahi izan ditu zirkunzisionean bere odolaren lehenbiziko xortak; ordutik erakutsi izan du zein maiteki dakharkeien bere bihotzean gure salbamendua.

Izan behar dugu deboziorik handi bat Jesusen izen sakratuarentzat; bothere miragarri bat datxeiko izen saildu hari; haren aiphamenak berak eragin ditu mirakuillu handiak. Ez ahal da Jainkoaren aitzinean Jesusen izena baino ararteko hoberik. Huna nola mintzo den san Bernat: «Liburuak nekharri dire enetzat ez badut hetan edireten Jesusen izena; ez da ene gogarako solasik, Jesusen izena ez balin bada maiz aiphatua. Izen maitagarri hura eztiaren pare da ahoan; zer atsegin egingarriagorik beharritan!». Berriz, zer gozoagorik bihotzarentzat!



Triste eta ilhun zare? Aipha zazu bihotzez, Jesusen izena, eta ordutik emanen zare deskantsuan, suntsituko dire zure ilhunbeak. Kontzientzia oihuz dagotzu? Ez darotzu utzten sosegurik? «Laztua zare ikhustez eraman duzun bizitze gaixtoa? Izan ezazu Jesusen izen saindua ezpaintedan, guziz bihotzean, eta ezarriren duzu zure fidantzia guzia Yaunaren miserikordian. Ez da pasione borthitzik amor eman behar ez diotenik Jesusen izen adoragarriari».

Arrazoin guziek behar gaituzte erakharri maitatzerat eta errespektatzerat Jesus, gure Salbatzaillea. Haren bihotz ontasunak eta bothereak ez dute mugarririk; bethi gu laguntzerat eta dohatsu egiterat dago. Ez da nihon halako nausi maltsorik, nihon halako aita amultsurik. Iduri du aski dela dohakabe izatea gure ganatzekotzat haren urrikalmendua eta laguntza. Yasan ahal baino karga gehiago balin baduzue, zatozte (erraten darotzue), zatozte ene ganat, eta nik arinduko dut zuen karga.

Ala haur prodigoaren parabolak baidu zertaz egin gure admirazio-nea! Ume zoro hura etzen hain laster sarthu utzi zuen bide onean; ez da hain laster hurbiltzen etxerat non baidohako aita aitzinerat: urrun da punitzen baidu ume ondikoizko hura; aitzitik ahantzten bezala zaizko haren gaixkiak, eta haren ganik izan zituen bihotz-min guziak. Orhoitzen da aita dela, eta hartzen du seme dohakabe hura arraitasun handienarekin: yar-arazten du bere bizitze gaixtoaz galdu zituen zuzen guzietan, eta othuruntza handi bat ematen du seinalatzekotzat bere umearen ikhustez zuen bozkarioa. Bihur gaiten zeruko aita amultsua ganat, eta gaiten seguratuak, zer nahi gaixki egin dukegun, ardietsiko dugula miserikordia haren majestate adoragarriaren aitzinean.

IX. KAPITULUA

Erregeek adoratzuten dute Salbatzaillea

Matth. 2.

Hirur erregeek ikhusi zuten abendoaren hogoi eta bortzean, izar bat bertze guziek baino gehiago distiatzen zuena. Uste izan zuten izar hura zela Jakoben izarra, Balaam profetaz aiphatua, eta ezagutzerat eman behar zuena egun zorionezko hura, zeinetan sorthu behar baitzen zeruaren eta lurraren yabe soberanoa. Hirur erregeak, edo magoak, eman zitzaizkon bideari; izar arraiotsu hura zutelarik bere gidari. Egon ziren hamabi egun bidean. Hurbildu zirenean Jerusalemerrat, estali zitzairen izarra. Sartzearekin batean hiri hartan, galdegin zuten zein lekhatan zen adoratzerat heldu ziren erregea. Jerusalemeko populua miretsia izan zen ikhustez halako presuna ohoragarriak ethorriak adoratzerat yuduen erregea, yuduek berek ezagutzen etzutena, zeina ezbaitzakiten sorthu ere zela. Herodes zen ordu hartan yuduen errege. Nola bertzeen bortxa, erregetu baitzuen bere burua, beldurtu zen gal zezan bere khoroa. Bil-arazi zituen aphezak eta legeko nausiak: galdegin zioten Kristo non behar zen sorthu. Ihardetsi zioten, boz beraz, Kristo sorthuren zela, Jainkoak bere profetaren ahoz erran bezala, Bethleem, Judako hiri xumean. Printze supher eta kruel haren izpiritua eta bihotzak aski izan zuten argitasun hura asaldatuak izatekotzat.

Herodesek erakharri zituen magoak bere ganat: othoitzu zituen errateaz zein egunez agertu zitzairen izarra: egin zuen hekin deboziona laudatzen zuelako itxura: erran ere bazioten: zohazte Bethleemerat, han behar duenaz geroz sorthu igurikia den, eta bere populua libratu behar duen erregeak. Yakin ezatzue, xeheki, haur sorthu berri haren berriak, eta egin nazazue, lehen-bai-lehen, yakintsun; ezen ni ere zuek bezala, harat nahia naiz errege berriaren adoratzerat. Herodes traidoreak etzuen hainitz salatzen haur dibino hura hil-arazteko zaraman xede barbaroa. Hirur erregeak lothu zitzaizkon bere bideari. Agertu zitzairen berriz ere, Jerusalem sartzean, begitarik galdu zuten izar hura bera, eta gidatu zituen xuxen Bethleemerat.

Nolakoa etzen behar magoen bozkarioa agertu zitzaientenean bigarren aldian argizagi eder hura, eta ikhusi zutenean baratzen errege berria sorthu zen heiazen gainean! Sartu ziren lehiarekin alde guzietarik idekia zen heia hartan, eta aurkhitu zuten bilhatzen zutena. Haur dibinoa bere



amaren besotan zatan: etzuen deusere kanpotik bertze haurretarik berex zezakenik; ordean bere barnetan zuten zeruko argiak ezagutuz arazi ziotzaten magoei haur haren baitan Jainko gizon eginaren goratasun eta maies-tate guzia. Yarri ziren, ahuspez, haren oinetan fede eta errespektu handienekin: adoratu zuten bere yabe soberanoa eta munduaren Salbatzailea bezala; eskaini zioten herri hetan ziren gauzarik preziatuenetarik, hala nola urrea intsentsua eta mirra.

Jainkoak etzuen nahi errege saindu hek bihur zitezen bere lurretara Jerusalem gandi. Aingeru batek erran zioten amets batean bertze bide bat behar zutela hartu, eta beiratu behar zirela Herodes ikhustetik. Hunea urmariarazten ditu probidentzia sainduak, berari hala zaionean, gizonen zuhurtzia faltsoa eta gaixakeria guziak.

Gauza miretstekoa! arrotzak heldu dire lekhu urrunetarik munduaren Salbatzailea adoraterat, eta yuduek ez dute ezagutzen ere bere artean duten Salbatzaile hura bera! Deusere errexagorik Herodesentzat nola bereganatzea magoen zorion handia. Jainkoak hel arazten ditu haren ganat hirur erregeak; erraten diote Judean sorthu dela Jainkoaren seme adoragarria; bere erresumako aphezek eta legetako gizonek gauza bera erraten diote; ordean zertako dire laguntza eta grazia guziak bihotza gaixtatua denean, eta largatua inbidiari, tronperari eta krudelitateari?

Nahi badugu Jainkoa aurkhitu, bilha dezagun fede onean. Ez dugu izar beharrik heltzekotzat haren ganat. Eskutan ditugu behar diren laguntza guziak: bihotz humil bat eta xede garbi bat izatean datza guzia. Era-kuts dezagun graziaren aldera magoek izarrari yarraikitzeotz izan zuten leihaltasun bera. Ez gaitezela ager, eskuak hutsik, Yaunaren aitzinean: lakhet du ikhustea gure baitan prestutasuna, mortifikazionea eta haren ganako amudio khartsua. Hulakoak dira gure ganik galdetzen dituen emaitzak: ez du behin ere arbuatzen bihotz humil bat, eta bekhatuen urrikiak zaurthua dena. Hirur errege hekin erlekiak aurkhitzen dire Colognako hirian.

X. KAPITULUA

Andre-dena Mariaren Purifikazionea

Luc. 2.

Jesu-Kristo sorthu zenetik berrogei egunen buruan, Andre-dena Maria sumetitu zen purifikazionearen legerat. Etzuen, ikhusia den bezala, zeremonia hartarik iragateko beharrik; kontzebitu izan zuenaz geroz Izpiritu saindua beraren berthutez, eta amatu zenaz geroz batere goibeldu gabe bere biryinitatea; ordean purifikazioneari zatxeitzon humiltasuna aski izan zen Mariarentzat iragan nahi izateko zeremonia hartarik. Ez dio behatzen Jainkoaren ama izateko zuen titulu loriosoari, ez eta biryinitatearen pribilio miragarriari: badaki saindutasuna bera den Salbatzailea eman dela zirkunzisionea manatzen zuen lege humiliagarriaren azpian, damu luke beraz, bere garbitasun guziaren erdian, libratzea bere burua purifikazionearen legetik.

Maria agertu zen templuan bere haur maitea besotan. Ofrendatu ziotzon Jainkoari bi uso-kume. Legeak hala manatzen zioten pobreak zirenei. Legeak nahi zuen oraino burasok ofrenda zetzaten ume lehenbizirik sorthuak. Maria etzen herabe izan aita eternalari ofrenkatzerat haren bozkario guzia, eta haren kontsolazione bakharra egiten zuen ume maitea. Zer sakrifizio handi Mariaren bihotzarentzat! Hanbatenaz minkiago sentitzen zuen sakrifizio hura, zenbatenaz baitzakien ordu beretik zer tormenta ikharagarri, eta zer heriotze laidotsu yasan beharko zituen haren seme dibinoak.

Izpiritu sainduak erakharri zuen tenplurat Simeon, gizon zahar eta prestua, Yosef eta Maria Jainkoari Jesus maitea ofrendatzen hari ziren ordu berean. Jainkoak agindu zioen Simeon zaharrari ikhusiren zuela, hil baino lehen, mundurat egorri gogo zuen Salbatzailea. Hala gerthatu zen. Fedeak argitu zuen Simeon prestua: ezagutu zuen. Tenpluan sarthu orduko, haur hura zela munduaren Salbatzailea: hartu zuen bere besotan: yarri zen bozkario handiaren, eta kantatu zuen kantika eder bat eskerren bihurtzekotzat, erraten zuelarik: deith nazazu, Yauna, plazer duzunean zure ganat; ez dut gehiago deuseren gutziarik behere huntan. Deskantsu hillen naiz ikhusirik ilhunbe guziak bere argiaren arraoez suntsi-arazten dituen Salbatzaile maitea, eta bere zuhurtzia populu guzietarat hedaturen duen nausi soberanoa. Hitz hautarik lekhora, Simeonek bihurtu zion Mariari besotan zadukan Jesus adoragarria, erraten zioela: zure seme



maite hori ethorria da guzien salbatzerat, halarik ere, gehienak galduko dire ez nahiz probetxatu horren heriotze sailduaz; ordean Jesus bere Salbatzailetzat hartu nahiko ez dutenek ezaguteren dute bere yuiztat. Zuri errateko dudana da partale beharko zarela zure seme maitearen sofrikari guzietan; atsekabeak zilhaturen duela zure bihotza lantza zorrotz batek bezala, ikhusiko duzunean Jesus hiltzen tormenta guzien erdian. Simeon zaharra horrela mintzo zela, sarthu zen tenpluan alhargun bat Ana zaritzona: ospe handitan zen herri hetan; ezen bazuen profetisatzeko dohaina, eta bizitze saildu bat zaraman. Ikhusi zueneko Jesus haurra, bethea izan zen Simeonek zuen Izpiritu beraz, eta bozkario beraz. Laudatu zuen Jainkoa, eta erran zituen haur dibino hartaz zakizkien gauza guziak.

Ala miragarriak baidire Mariaren berthute ederrak! Ez du nahi agertu denarentzat; seinalatzen du bere humiltasuna. Jainkoaren ama da, eta bertze ameen baltsan ematen du bere burua. Biryina guzietarik garbiena da, eta badoha tenplurat, bertze emazteak bezala, purifikatua izaterat. Ezin erran bezanbat maite du bere seme adoragarria, guziarekin Jainkoari egiten dio sakrifizio bat haren biziaz, ofrendatzen dio biktima bat bezala. Mariak Simeonen eta Anarenganik entzun zituen hitz lazgarriek bazuten zertaz erdira haren bihotz amultsua; halarik ere, zer nahi pairatzerat dago yaunaren ohoretan. Erran behar da, nonbait, amaren eta semearen Izpirituak miragarriki konpuntzen zirela.

Nor dire Salbatzailea tenpluan ikhusteko zoriona dutenak? Hek dire gizon zahar saildu bat aspaldion Jesus maitea lehiarekin igurikitzen zuena, emazteki prestu bat mundutik ihes zabillana, egunak eta gauak barurean eta othoitzean zaramatzana. Horra bi presuna hiri handi batetako bakharrak Salbatzailea ikhusteko dohatsutasuna izan zutenak. Ala gutiak baidire Jainkoa edireten dutenak!

O Biryina saildua, ene salbamendukotzat hanbat egin izan duzuna! Egizu ez dezadan neronek gal ene burua. Zu zaitut, Jainkoaz landan, ene kontsolazione guzia: zure baitan dut ene fidantzia osoa: izan-araz diezadazu, zure othoitzez, Yaunaren legearen alderako leihaltasunik handiena, eta denbora berean, bihotzeko garbitasuna. Egizu, o! bekhatoren iheslekhuia, bethi zerbitza eta maita dezadan zeru lurren nausia, eta aita guzietarik hoberena: onhets zazu, othoi, beha diezazudan bizian eta heriotzean miserikordiazko amari bezala, eta lagun nazazu, zuk ere, zure ume maite eta zerbitzari leihal bezala.

XI. KAPITULUA

Yosefek eta Mariak ihes egiten dute Ejiptorat

Matth. 2.

Herodesek berantetsi zituen Jesusen adoratzerat urrundik ethorri ziren erregeak. Ez zitzaion gogoratzen Jainkoak gibelatu zituela hel-araztetik haren ganat; aitzitik, arbuioztat hartu zuen hek ez agertzea etxerakoan, haren begietara. Errege gaixto hura eman zen sumindura handian, guziz, entzun zituenean haur dibinoaren berri espantigarriak. Beldur zen ezagut zezaten herri hetako erregetzat, eta berari khen ziozoten bortxaz beretu zuen khoroa: ezin gorde zuen gehiago bihotzean zarabillan xede kruela: eman zen ageriki Jesus gal-arazteko eginbidetan; ordean Jainkoaren egorri zion, gauaz, aingeru bat Yosefi, erraterat Herodesek haur dibinoaren bizia nahi zioela, beraz har zetzala berehala berekin Jesus eta Maria ihes egitekotzat Ejiptorat, eta zagoela han denbora batetaraino. Yosefek etzuen argia iguriki obeditzekotzat zeruko bozari: eman zitzaion, gau hartan berean, bideari, harturik berekin Maria eta haur dibinoa. Hunela ihes egin zion Salbatzaileak munduko errege herbal bati, zeinaren khoroa eta bizia bere eskutan baitzituen.

Herodesek ikhusi zuenean huts egin zuela bere kolpea, eta ezin yabetu zela errege sorthu berriaz, uste izan zuen hura gal-arazi hil arazirik haren adintsuko haur guziak. Entzun zuen errege magoetarik bazuela bi urtheen ingurua, agertu zela Jesusen sortzearen berri handia zakharkeien izarra. Eman zion bere gogoari behar zituela gal-arazi bi urthe iraganak ez zituzten Bethleemeko eta alde hetako haur guziak. Zer sarraski lastimagarri! Zer bihotz min ama hek guzientzat! Etzen aditzen guzietan hekin hasbeherapen ukigarriak, eta marraska arrailagarriak baizen.

Familia saildua egon zen Ejiptoan, urthe baten ingurua. Herodes kruela hil izan zen inozenten odola isur arazi zuenetik zenbeit ilhabeteen buruko. Orduan Yaunaren aingeruak erran zion gauaz Yosefi: har ezatu ama eta haurra; bihur zaitetze Israelgo lurrerat: hil dire Jesusen biziaren ondoan zabiltzanak. Yosefek egin zuen berehala obediencia. Luzea zen iragan behar zen bidea, guziz emazte gazte gorphutz mendre batentzat: etziren hargatik herabe izan abiatzerat. Yosefek yakin zuenean Archelaus zela Herodesen orde, Judeako errege, beldurtu zen ahal zituzkela bere aitaren inbidia, gogortasun eta krudelitate berak: gogoeta hunek aphur bat lotsatzen zuen: etzen atrebitzen heltzerat Israelgo lurretarat, eta etza-



kien zein bide har; Jainkoak eman zuen Yosefen gogo deskantsuan. Adiarazi zion hel zitekeiela deuseren beldurrik gabe Galilearat. Orduan Yosef yarraiki zitzaion bere bideari, eta egin zuen bere egoitza Nazareth, bere eta bere esposaren sor-lekhu. Urrun da izan baitzuten beltzuririk Galileako populuaganik; aitzitik hainitz arraiki izan ziren hartuak eta guziez ohoratuak bezala, maitatuak ere.

Tresorik preziatuena egon zen, asko urthez, gordea Nazarethko hiri dohatsuan. Jainkoaren amak lekhu hartan hazi zuen eta altxatu bere seme adoragarria, halako ume bati zor ziotzon artha, amudio eta errespektu guziekin.

Ederretsi behar dugu hemen Yaunaren probidentzia miragarria. Herodes zen bere mendeko izpiritu handienetarik bat, eta bere eskuko zituen armada osoak; ordean hauk guziek, ez eta inbidiak asmarazi zioen gaixtakeria izigarriak ezin erakharri zuten bere nahia konpliterat; bere nausitasun eta sumindura guzien erdian, ezagutu behar izan zuen haur bat aski zela asaldatzekotzat haren barnea. Yarri zen ikhararik handiengan, eta bortxatua izan zen amor ematerat Jesusen bothere guzizkoari. Haur baten biziari nahi dio: hura gal-arazi nahiz eragiten du sarraski lastimagarriena. Bizkitartean hil-arazi nahi duen haur bera gerthatzen da, bakharra, errege barbaro haren errabiari itzurtzen zaiogena.

Herodesen krudelitateak irakhasten daroku zertarainokoa helden diren gizonaren itsumendua eta inbidiaren su ondikozkoa. Errege gaixto haren exenpluak irakhatsten daroku oraino, Jainkoa maiz gaixtaginez berez baliatzen dela bereganatzekotzat arima yustuak. Urrun da urrikaltzeko baitziren sarraskitan emanak izan ziren haur inozentak, aitzitik heien alderako barbaria hark berak egin zuen hekin zoriona, izan arazi ziotenaz geroz martiren khoroa, zeruko erresuma.

XII. KAPITULUA

Jesus aurkhitzen da Doktoren erdian

S. Luc. 2.

Yuduek agertu behar zuten (legearen arabera) Jerusalemerat urthean hiruretan. Yosefek eta Mariak eraman zuten berekin Jesus maitea hiri hartarat. Hamabi urthe zituen ordu hartan. Gutitan galtzen zuten haur hura bere begietarik, bere buruak baino maiteago zutelakotzat. Ethorri zenean herrirat bihurtzeko denbora, Jesus etzitzaien yarraiki Yosefi eta Mariari. Baratu zen Jerusalemek deusere yakin gabe: etzuten ere eskas zutela ezagutu arrats aphalerat baizik. Hemen iduri du berehala hortan Yosef eta Maria faltiar ahal zitezkeia; ordean sobera zadukaten bere haur maitea bihotzean hutsik egitekotzat haren alderat; bekhatu ere laiteke gaixki bat iratxekitzea bi presuna saildu hei orduan gerthatu zenaz. Bazakiten guzizkoa zela Jesusen zuhurtzia; uste izan zuten arrazoin onez aldaratu zela hekin ganik: fidantzia oso batean ziren haur dibinoa bidean zela, eta hek bezala Nazarethrat bihurtzen ziren bertze zenbeitena baltsan aurkhitzen zela.

Yosefek eta Mariak ezagutu zutenean Jesus etzela heien ondotik heldu zirenean artean, minki hartu zuten haren eskasa. Abiatu ziren haren ondoan, eta ediren zuten, biharamun goizean, tenpluan, doktoren erdian. Entzuten eta interrogatzen zituen gizon yakin hek mundu guziaren admirazionea bereganatzen zioten zuhurtzia eta yakintasunekin. Yosef baino Maria trebeago zen Jesusekin; ama hunek erran zion bere ume maiteari: zergatik etzaizkigu yarraiki etxerakoan? Bihotz-min handi bat izan dugu hortaz: Jesusek ihardetsi zion errenkura amultsu hari: zerentzat damustatu zarete ni zuei ez yarraikitzeaz? Zergatik nekhatu zarete nere ondoan? Etzinakiten bada ene aitaren nahia egin behar dudala?

Jesus ilki zen tenplutik, eta hedatu zen Yosef eta Mariarekin batean Nazarethrat. Egon zen lekhu hartan hamabi urthetarik hogoi eta hamar urthetaraino. Gauza miresteko! Ebanjelistak ez dire batere mintzo Jesusek, arte luze hartan, zaraman biziak. Hek erraten darokuten guzia da, sumetitua zela Yosefen eta Mariaren nahitarat:

Erat subditus illis. Aithor dezagun guziarekin hirur hitz horiek hainitz erran nahi dutela. Ematen dute ezagutzarat Jesusen humiltasun miragarria, eta egiten dute Mariaren laudoriorik osoena. Ez ahal da deusere gehiago espantitu behar gaituenik nola ikhusteak zeruaren, lurraren, gizon guzien



kreatzaillea bera kreatura apha baten nahitarat eroria. Ez ahal da berriz dignitate altxatuagorik nola izatea Jesusen gainean ama guziek bere umeen gainean duten zuzen bera. Mariak izan dezan bada Jainko bati manatzeko eskua! Zer ohore ezin erranezkoa!

Aita amek ikhasten dute Yosef eta Mariaren eskola sainduan hartzen bere umez artharik handiena: Mariaren bihotz-minak bere semea eskas aurkhitzean, eta haren bilhatzeko agertu zuen lehiak ematen dute erakusterat burasoek egin behar dituztela bere egin ahal guziak atzarriak egoteko bere umeen gainean, ikhusten dituztenean, ez elizetan, Jesus tenpluan zen bezala, baina mundupean sarthuak, pasionetarat largatuak, sakramentuarik urrundak: hulako ordutan, buraso Jainkotiarak eta bere umeen salbamendua maite dutenak lehiatzen dire hek lehen-bai-lehen gaixkitik ilki arazterat, eta erakhartzerat bere abisu zuhurrez, guziz, bere exenplu sainduz, zeruko bide dohatsurat.

XIII. KAPITULUA

Yaun-doni yauni hasten da predikatzen eta bathaiatzen du Salbatzaillea

S. Matth. 3.

Jesus egon zen ezagutua izan gabe Nazarethen Yaun-doni Yauni-Baptista mortutik athera arteraino. Gizon saindu hunek mundutik urrun eraman zuen bere gaztetasuna. Hogo eta bederatzi urthetarat zenean, agerthu zen Israelgo popularen aitzinerat.

Lurreko erregeak sartzen direnean hiri batean lehenbiziko aldian, bideak zalhaitzen eta arrimatzen ohi dire. Ez ahal zen preparazione gutiagorik behar errezibitzekotzat Jainkoaren semea, errege guzien erregea, nahi izan zuenean ethorri mundurat. Preparazione hura zatzen egiazko penitentzian. Horra zer-gatik Yaun-doni Yauni-Baptistaren lehenbiziko lana izan zen predikatzea penitentzia hura bera bere hitz sainduz, guziz bere exenplu miragarriez. Yaun-doni Yauni-Baptista gogorki zen emana bere yauntsturan. Kameluen ille latz eta lodiez egin zen zilizio bat zarabillan gorphutzean; amarratzen zuen zilizio hura larruzko gerriko batez. Xartalak, edo larrepetitak, eta oihanetan aurkhitzen zuen bas-eztia ziren haren yanaria; Jeriko eta Jerusalem artean zen mortu izigarri batean egiten zuen bere egoitza.

Yaun-doni athera zen mortu hartarik Jourdaingo hegian predikatzerat, eta bathaiatzerat; egia da hark ematen zuen bathaioa etzela Jesu-Kristok ematen zuenaren itzala baizen. Gizon miragarri haren saindutasuna, eta bititze garratza aski ziren bertze mirakuillurik gabe sinhetste oso bat ematekotzat haren hitzetan. Mundu guziak behatzen zion bertzeak ez bezalako gizon bati bezala. Saindutat zadukaten; uste ere zuten hura zela Mesia, edo igurikia zen Salbatzaillea. Hortan bertze profeta guziei baino ohore gehiago egiten zioten. Jerusalemeko populua osteka zohan entzuterat gizon saindu hura, eta bathaioa errezibitzerat. Jesus ere hedatu zen, bertzeak bezala, Jourdaingo hegirat; ordean etzuen ezagut-arazten bere burua. Hortan, bertze gauza guzietan bezala, Jesusen humiltasunak badu zertaz urmariaraz gure suphertasuna, eta bertzez gorago agertu nahizko gure ambizione zoroa.

Jainkoak altxatu izan zuen humiliatu nahi zen seme adoragarria. Yaun-doni Yaunik ezagutu zuen bertze guzien artetik. Huntaraino ekhartzen zion errespektua, non ezin hurren irabaz baitzezakeien bere baitan



Jesusen bathaiatzea. Legeko doktorak ikharan zaduzkana lastua eta ahal-katua kausitzen zen bera, ikhustez bere Yaun soberanoa hartaraino humiliatua. Zer? erran zion: ene gana geldu zare? Bathaia zaitzadan nahi duzu bada! zu, ni bathaiatu behar nindukezuna! Jesusek ihardetsi zioen etzioela behar behatu ordu hartan Jainko bati bezala; bainan bakharrik gizon hilkor bati bezala; haren aitaren nahia zela izan zadin bathaiatua bekhatoreen baltsan, eman behar zioela mundu guziari obedientzia itsu baten exenplua.

Aita eternalak ederretsi zuen bere seme adoragarriaren bihotzeko humiltasuna. Salbatzaillea etzen hain laster izan bathaiatua non Izpiritu saildua yautsi baitzen haren buruaren gainerat, uso baten iduriaren azpian. Entzun zen ordu hartan berean zeruko boza bat, hitz gorez zioena: zu zare ene seme maitea, zuk egiten duzu ene atseginik handiena. Jesus etzen gehiago Nazarethrat bihurtu. Berekin zakharken Izpiritu sailduak sar-arazi zuen mortuan barna.

Elizako aitek admiratu dute arrazoinekin Jesusen humiltasun ezin erranezkoa. Jainko bat ezdeusta dadin bada gizon egiterainokoa! Guziz gora dena aphal dadin bada guziak baino gehiago! Bathaioa erremedio bat da arima bere gaitzetarik sendatzen duena, bekhatuen borratzeko dena, eta bekhatuaren narraiorik ez duenak errezibi dezan bada bathaioa! O! zenbat humiltasun hauk guzietan!

XIV. KAPITULUA

**Jesu-Kristoren barura mortuan;
etsai gaixtoak tentatzen du**

S. Matth. 4.

Jesus-Kristok, bathaiatua izan zeneko, irakhatsi zioten giriztino guziei nola bizi behar ziren sakramendu hura errezibitu ondoan, eta nola behar ziren hartu tentamenduei eta sofrikariei buru egitekotzat. Salbatzailleak urrundu zen mundupetik, eta sarthu zen mortuan: han iragan zituen berrogoi egun eta berrogoi gau deus ere yan eta edan gabe. Ilhunbetako izpirituak uste izateko zuen halako barur luze eta bortitz bat egiteko gai zena etzela bertze gizonak bezalakoa; ikhusi behar zuen Jainkoaren seme adoragarria zela bakharra hanbat denbora iraun ahal zezakena yan eta edan gabetarik: halarik ere, zer etzuen egin satan gaixtoak Salbatzaillea eskuratzekotzat? Deus ere ezin irabazi zuenean barneko tentamenduen bidez, abiatu zen bertze molde batez. Huna nola hartu zen. Hurbildu zen Jesus-ganat antze handirekin. Gordea zadukan bere xede gaixtoa; eta fede largo eta zabal bat erakutsten zuen kanporat: horrela zitzaion egin behar zuela eror-araztekotzat bere nahirat zuhurtzia bera zena. Erran zioen beraz Jesusi: iduritzen zait Jainkoaren semea zarela, hura balin bazara, zergatik ez ditutzu harri hauk ogitarat ganbiazasten? Ardiets zinetzake barur handi hark gal-arazi darozkitzun indarrak. Jesusek etzion ezagutzarat eman bere Jainkotasuna; ihardetsi zion iskribu sailduko hitz hautaz: ez du ogiak hazten, bakharrik, gizona, bainan Jainkoaren ahotik heldu den hitzak, erran nahi da, Jainkoaren manuen alde-rako obedientzia osoak.

Etsai gaixtoak ikhusirik ezin probetxatu zela gosearen estakuruaz, baliatu zen bertze tentazione batez, zeina baida guzietarik lerragarriena, eta presuna hobekienik eskuratzen duena: hura da urguillua. Eraman zuen Salbatzaillea tenpluaren gainerat, eta izan zuen atrebentzia hari errateko: baldinetariak Jainkoaren semea bazare, bathaiatu zinenean, zerutikako boza batek, Jourdaingo hegian, adi-arazi zuen bezala, emazu egia haren seinale bat guzien aitzinean: artik azu zure burua gain huntarik lurrerat; eta dosteta bat egiten zuelarik iskriturako hitz errespektagarriez, erran zion oraino: ez duzu zeren izan deuseren beldurrik; ezen iskribatua da Jainkoak manatu diotela bere aingeruei zutaz artha idukitzeaz, eta zu bere besotan hartzeaz behaztopa etzaitzentzat. Orduan Jesusek ihardetsi zion



Satani: iskritura saindu hark berak erraten zuela hitz garbiz: Ez duzu tentatuko Jainko zure Jauna. Hunela ihardetstekozuhurtziak konfunditu zuen etsai gaixtoa, etzen hargatik gibelatu tentamendu berri bat sor-araztetik.

Satanek, egundaino bezala, eraman zuen Salbatzaillea mendi gora baterat; erakutsi ziotzon handik begiak ikhus ahal bezanbat bazter, eta erran zion: erresuma eta lur horiek guziak neureak dire: adoratua naiz lekhu horiek guzietako populuez, lekhat, yuduez: ene eskuko ditut bazter zabal horiek: emanen darozkituztuz diren guziak yartzen bazare, ahuspez ene oinetan. Solas zoro eta intsolentziaz bethe hau gaitzitu zitzaion Salbatzailleari. Mintzatu zen nausi bezala, erran zion arbuiorik handienarekin etsai gaixtoari: urrun hadi, Satan, ene begietarik. Yakin ezak iskribatua dela: *Adoraturen duzu Jainko zure Jauna, eta ez duzu zerbitzaturen hura bera baikik*. Nausi adoragarriaren hitzak ihurtzuri baten pare izan ziren etsai gaixtoarentzat. Etzuen gehiago izan tentatzeko gurarik: eman zitzaion ihesari, eta etzen handik harat batere agertu. Aingeru aralde bat hurbildu zen Jesusen ingurutarat, eta zerbitzatu zuten Salbatzaille maitea.

Sainduak behatu diote Jesu-Kristok izan zituen tentamenduei eskola zuhur eta kontsolamendu gozo bati bezala. Maita zagon, diote, erretiramendua, barura eta othoitz, eta etsaiak ez du harturen eskudantziarik gure gainean; izan gaiten leihal Jainkoaren alderat, eta ordutik tentamenduak gure onetan gerthaturen dire, ezin iraganen dire gure bihotzetarat, aitzitik, yauts-araziren dituzte gure arimetarat zeruko laguntza handienak eta grazia preziatuenak.

XV. KAPITULUA

Jesu-Kristoren lehenbiziko mirakuillua munduaren begietan Yaun-doni Yaun. 2.

Jesu-Kristo athera zen mortutik gizonen artean agertzekotzat. Hedatu zen lehenik Jourdaingo hegirat. Alde hetan bizi zen Yaun-doni Yauni-Baptista. Saindu hunek ikhusi zuenean zer iragan zen Salbatzaillean bathaioan, erran zioten bere dizupuluei: huna Jainkoaren bildotsa, munduko bekhatuen borratzaillea. Yaun-doni Yauniren dizipuluek entzun zutenekotz bere nausiak Jesu-Kristoz egiten zuen laudorio miragarria, galdegin zioten Salbatzailleare non zuen bere egoitza, eta yarraiki zitzaizkon hura bizi zen lekhuraino. Laster ezagutu zuten Jesusen solasetarik hura zela egiazko Salbatzaillea. Dizipulutarik bat, erran nahi da, Andres aldaratu zen aphur bat Jesus ganik, eta eraman zion Simon bere anaiari berria nola ediren zuen Jesus. Bi haurrideak yoan ziren berehala Salbatzaillea gana, Salbatzailleak landatu zituen begiak Simonen gainerat, eta erran zion: orai arteraino zure izena Simon izan da, ordean hemendik harat Piarres deithuren zara. Ordu hartan izan zuen Piarresek Jesu-Kristoren lehenbiziko dizipulu izateko ohorea.

Biharamunean, Jesusek bathu zuen Nazarethrat zohala Filipe, eta erran zion yarraikitzeaz hari. Obeditua izan zen memento berean. Handik laster, Filipek sar arazi zuen Nathanael edo Bartholome Jesu-Kristoren dizipulu baltsan. Emeki-emeki Jesusen ospea hedatzen zen geroago eta gehiago. Etzuen oraino egin, munduaren begietan, gauza baitezpadakorik: bazituen, hala da, zenbeit dizipulu; ordean bakharrik bere hitz sarkhorrez bereganatu zituenak. Etzen denbora luzerik egon seinalatu gabe bere bothere guzizkoa. Izan zen gonbidatua bere ama, eta bere dizipuluekin batean Kana zaritzon hiri xume batetako ezteietarat. Othuruntzaren erdirat zireneko, arnoak eskas egin izan zuen. Jesusek etzuen damurik espos berriek, eta mahanean zirenek yakin zezaten etzela gelditzen arnorik, hobeki senti zezatentzat egin gogo zuen mirakuillua. Atsegin zuen, denbora berean, guziek ikhus zezaten zein ekharria zen bere amaren nahiaren egiterat. Egon zen kanporat agertu gabe barnean zadukan xedea Mariaz othoitztua izan arteraino. Ama maite hark etzuen hain laster eman erakusterat atsegin zukeiela Salbatzailleak itzul zezan ura annotarat, non obratu baitzen, ordu berean, galdetzen zuen mirakuillua.



Jesusek bethe-arazi zituen urez sei yarro handi, eta ur hura guzia berehala bilhakatu zen arno.

Erran daite Jesu-Kristoren bizia misterio huts dela, ura arnotarat aldatze hark orhoit-arazi behar gaitu egun oroz gure aldaretan egiten den mirakuillu handiaz ogia eta arnoa ganbiatzen direnean Jesu-Kristoren gorphutz eta odol sakratutarat. Ordean aski prezatzen othe dugu Jainkoak, gure fagoretan, erakutsten duen amudio ezin erranezkoa, ematen denean bere Jainkotasun guzian gure yanaritzat! Othe dugu bada behar den ezagutza hulako mirakuillu salbagarri baten alderat!

XVI. KAPITULUA

Jesu-Kristoren mirakuilluak. Nikodemaren eta Samariako emaztekiaren konbersioena

Yaun-doni Yaun. 3, 4.

Jesu-Kristok mirakuillu hainitz egin zuen Jerusalemegon zen denboragutian. Etzen eri etsiturik sendatzen etzuenik; libratzen zituen etsaiak posedituak zirenak: etsai-gaixtoak berak eroriak ziren haren nahitarat. Uhinak egiten ziren lurra bezain gogor haren oinen azpian. Itsasok, haizeak, tenpesta-xirimolek, zeruak, munduak, hitz batez, gauza guzietan ezagutzen zuten Salbatzailea bere nausi soberanotzat, eta sumetitzen ziren haren manutarat.

Jesusen dizipuluak emendatuz zohazen Jerusalemeko hirian. Salbatzailea baitan sinhetstea ezartzen zutenean artean, gerthatu zen bat Nikodema zaritzona. Gizon izpiritu handitakoa zen, eta yuduez ohoratua bere ethorkia, eta prestutasunagatik. Nikodema hunek, ikhusririk Jesusen egun orozko obra espantigarriak, eman zion bere gogoari haren dizipulu yarri behar zela. Nola baitzakien yuduek, eta guziz legeko nausiek Jesusi ekhartzen zioten ondikoizko herraren berri, etzen atrebitu publikoki agertzerat haren dizipulutzat. Hedatu zen gauaz ixilik bezala, Salbatzailea-ganat, eta erran zion gerizerik gabe: nausia, ikhusten dugu, ezin dudarik egin dezakegun bezala, Jainkoaz egorria zarela gure argitzerat; ezen ez da nihor egin dezakenik zuk bezalako mirakuillurik non ez luken Izpiritu sainduaren berekin.

Salbatzaileak arraiki eta amultsuki hartu zuen dizipulu berri eta iziper hura. Hedatu zituen argiak haren baitarat, eta erran zio: egorria naiz zeruko bidea gizonei irakhatstekotzat; ordean Jainkoaren erresuman sartzeko, berriz behar da sorthu, eta bizitze berri batez bizi. Nikodemak zorrozki, eta hitz haukien arabera, hartu zuen Salbatzailearen errana; galdegin zion Jesusi nola bada gizon adinetako bat sar ahal zitekeien amaren sabelean berriz sortzekotzat? Salbatzaileak ihardetsi zuen sortze berri hura izpirituala zela, bathaioan obratzen zela Izpiritu sainduaren berthutez. Nikodema, bere izpiritu eta yakintasun handi guzien erdian, nekhez sartzen zen Jesusen hitz sainduen sentsuan; nausi dibinoak erran ere zion ahalkagarri zela legeko doktor batentzat ez izatea ezagutza gehiago iskritura sainduan aurkhitzen diren hitz errespektagarriez. Jesusek irakhatzi ziotzon salbamenduari darraizkon egia handiak.



Yaun-doni Yauni etzen baratzen haltoki bihurtzetik lekhukotasuna Jesusen Jainkotasanari, ez eta khartsuki kondenatetik Herode Antipasek ematen zuen eskandal itsusia. Printze zoro huni gaitzitu zitzaion predikari saindu haren khar laudagarria. Yaun-doni Yauni izan zen preso altxatua. Jesusek bazakien Farisauez gaitzetsia zela, eta etzela, bera ere, batere segurean alde hartan; bihurtu zen, Samariako erresuman gaindi, Galilearat. Yarri zen Jakoboen ithurria deitzen denaren bazterrean; bazakien harako zela urketarat emazte bekhatore handi bat, Samaria herrikoa. Nola yuduek eta samaritarrek ez baitzuten elkhar onetsten, emazte hark miretsi zuen Jesusek hari galdetzea edaterat; ordean Salbatzailleak erran zion emetasun guziarekin: bazinaki nor den edaterat galdetzen darotzuna. Aintzinduren zinaizkon, eta zerorrek galdeginen zinoen edaterat: emanen zarotzun ur bizi eta salbagarri batetarik. Emazteki hark, hitz horien gainean, ihardetsi zuen: nondik dukezu ur bizu hura? Yakob gure aitak ere ithurri huntako uretik eman daroku: ez bide duzu hark baino bothere gehiago. Ithurri huntako uretik edanen duena, erran zion Jesusek, egundaino bezala egarri izanen da; ordean nik emanen dudan uretik edanen duena ez da behinere egarrituren: ur hura izanen da harentzat ur dohatsu bat bizi eta eternalerat hel araziko duena. Orduan emazte samaritarrek ihardetsi zuen: indazu arren, Jauna, ur hartarik egartsurik gehiago ez izatekotzat.

Jesusek eman zion emazte hari ezagutzarat bazakiela haren bizi guziaren berri, hala-nola bortz senhar izan zituela; erran zion oraino hura bera zela hark eta mundu guziak igurikitzen zuten Salbatzaillea. Emazte hark hedatu zituen hiri guzirat Jesusen erranak: bat bedera lehiatu zen haren ikhusterat. Salbatzaillea egon zen, bi egun, Samariako hirian, hango populuaeren othoitzetarat.

Zenbatak ez dire Nikodemaren idurikoak! Ahalke direnak girstino agertzerat; era hori, munduaren errankizuna-gatik! Zenbatak, zabaldu behar bidean begiak graziaren argiari, bekhatuen ilhunbetan bizi direnak! Ez bada barnea deskantsu dutelakotzat; aitzitik zenbat erreportxu min ez diote egiten kontzientziak! Badukete ere Jainkozko bizi bati lothzeko nahi saindu bat; ordean beldur dire munduak hetaz hirri egin dezan, har detzan izpiritu ttipi eta flakotzat. Arrazoinamendu zoro hunek behar othe du bada nihor gibelatu berthuteari yarraikitetik? Salbamenduak ez othe du bada balio pena munduko errankizun guzien ostikatzeko, eta bihotza Jainkoari alde baterat ematekotzat! Bertze alde, Jesu-Kristoren dizupulu izateko titulu lorios eta salbagarriak balinba xitzen ahal ditu munduko estimu, ohore, eta ontasun guziak!

XVII. KAPITULUA

Jesusen mirakuillu berriak

Matth. 9.

Jesus ibilli zen Galilean gaindi. Predikatzen zuen iragaten zen lekhu guzietan. Sendatzen zituen eriak, bitz-arazten hillak. Erran daite haren urhats guziak hanbat mirakuillu handi zirela. Bertze mirakuilluen artean, huna bat ebanyelioak xehetasunekin dakharkeiena. Etsaiak kruelki zadukan gizon bat tormentatua. Aspaldion etzen etxetan bizi, hobitan, sepulturetan egiten zuen bere egoitza. Bulhuzia zabillan, ezin yasan zezakeien soinekorik. Estekatu nahi zutenean, porroskatzen zituen lokharri eta gathe guziak. Ezin hezia zen. Gau guziak oihuz eta patarrakaz zaramatzen, edo mendi goretan, edo lur-pean. Nihor etzen atrebitzen hura zen lekhitik iragaterat.

Etsaiak poseditua zen gizon hark ikhusi zuenekoizat Salbatzaillea, hurbildu zen haren ganat; utzi zituen bere moldegaitzkeria izigarriak; eman zen, ahuspez, lurrean, eta bere boza altxaturik, erran zuen: Jesus Yaun-goikoaren semea, zergatik tormentatzen nauzu hunela? Zer gaixki egin darotzu? Zer errateko duzu nitaz? Badakit nor zaren; zu zare Jainkoak munduari agindu dioen Salbatzaillea. Izan zazu urrikalmendu nitaz; athera nazazu herstura huntarik, eta ezar nazazu deskantsuan.

Etsaiak posedituak othoitztu zuen beraz Salbatzaillea khen ziotzon gorphutzean zituen etsai-gaixto guziak, eta sar-araz zetzan handik hurbil ziren azienda beltzetan. Galdetu bezala gertatu zen; eta bi milletarainoan heltzen ziren urde hek artiki zituzten, errabian bezala, bere buruak itsasorat.

Jesus hedatu zen Genezarethko ur hegirat; yarraikitzen zitzaion mundu oste bat ondotik. Hunenbat populu bazuen bere ingurutan, non hurren ezin higi ere baitziteken. Sarthu behar izan zen Simon-Piarresen barkuan predikatzekotzat: mintzatu zitzaionean populuari, erran zion Piarresi eraman zezala bere barkua zabalerat, ur gehiago zen lekharat, eta artik zetzala sareak itsasorat arrantzatzekotzat. Piarresen ihardetsi zion Jesusi: arrantzan iragan dugu gau guzia zerbeit atzeman nahiz, eta alferretan nekhatu gare; ez dugu deusere hartu; ordean manatzen darotazunaz geroz, fidantzia handi bat dudalakotzat zure baitan, banoha zure hitzaren gainean, sarearen artikitzerat.



Piarresak artiki zituen berehala bere sareak itsasorat. Eskolarik gabe-ko arrantzale harro bat balin bazen ere, erran behar da fede bizi eta miragarri bat erakutsi zuela, ebanyelioa doi-doia ezagutzen zen ordu beretik. Fede handi hark izan zuen bere gollardoa. Sarek hartu zuten yasan ahal bezanbat arrain; ezin bildu ere ziren ingurutan zen bertze barku batetako arrantzaleen laguntza gabe. Bethe zituzten bi barkuak sare kolpe hartako arrainez.

Yaun-doni Petri espantitu zen ikhustez orduko mirakuillua. Eman zen Jesusen oinetan, eta erran zuen: *Jauna urrun zaite ene ganik, ezen bekhatore handi bat naiz.* Jesusek ihardetsi zuen, laudatzen dut zure humiltasuna: ez zaitezela batere izi. Hemendik harat bertze arrantza bat egin beharko duzu; irakhatsiren darotzut gizonen arrantzatzen. Hetarik harturen duzunean, ez ditutzu hil arazi beharko arrainak bezala; aitzitik, bizi araziren ditutzu aingeruen biziaz.

Handik zenbait egunen buruko, agertu zitzaion Salbatzaileari eri bat, lepraz guzia maldatua. Yarri zen, ahuspez, haren aitzinean; eta, belhaunak besarkatzen ziotzola, erran zion: badakit, Jauna, ez dela deusere zure ahalez gorago denik; seguraturia naiz senda nezakezula ene lepratik, baldin nahi bazindu. Hitz hauk erran zituen bezain laster, Jesusek hedatu zuen eskua haren gainerat, eta arras sendatu zuen lepratsua.

Jesusek orobat egin zuen bertze eri baten alderat. Eri hura paralitiko-a zen hogoi eta hemezortzi urthe hetan. Munduz bethea aurkhitzen zen Jesus sarthu zen etxea; etzakiten nola egin eri hura haren ganat ekhar-tzeko. Ezin bertzela eginez, urratu zuten azkenean etxe haren gaina, eta yautsi zuten handik gure paralitiko-a bere ohean etzana. Salbatzaileak ikhusi orduko eri haren estatu ondikozkoa, urrikalmendu izan zuen hartaz, eta erran zion: altxa zaite, har ezazu zure ohea, eta ibil zaite. Gizon gaitzak kartzelatu hura altxatu zen berehala, hartu zuen bere ohea, eta bihurtu zen, sendaturik, bere etxerat.

Aithortu behar da indar handia datxeikola fede bizi bati. Zerk sendatu zituen aiphatu ditugun eriak baizik Jainkoa baitan zuten fidantzia osoak? Gorputzeko gaitzak sendatzen dituen miriku guzizkoak ez du gutiago seinalatzen bere bothere miragarria arimeen eritasunetan. Ez da halako etsaiaz poseditua izaterik, ez eta halako leprarik eta paralisiarik nola bekhatuak egiten duen zauri lastimagarria. Bekhatua da gehienik ikharatu behar gaituen gaitza; ordean gaitz bat, zeinetarik sendatzea errebaida. Bekhatuaren urrikian, eta behar den bezalako kofesio batean edireten da arimako zauriak sendatzen dituen erremedio zorionezko hura.

XVIII. KAPITULUA

Jesu-Kristok berezten ditu bere hamabi Apostoluak

Matth. 5.

Jesusek, garbiki, eta guziek konprenitzeko bezala, erran zuen bera zela Jainkoaren seme munduak igurikitzen zuena. Bere baitan zituela Jainko aitaren indar eta bothere berak. Egia handi hau ageri ahal zen Jesusen mirakuillu beretarik: halarik ere Farisauek eta legeko nausiek nekhez nahi zuten sinhetsi ezin ukha zezaketen, eta begietan zuten gauza. Ezagutu behar bidean Jesus maitea bere Salbatzalletzat, yarri ziren haren alderako suminduran; largatu ziotzoten bere buruak pasione zoro bati hartzerainokoan Jesus galarazteko xede izigarria. Argia bera den nausi dibinoak ikhusten zuen zer iragaten zen sinhets gogor hekin bihotzetan. Urrundu zen hetarik heltzekotzat Tiberiadeko itsas hegirat. Eri oste bat yarraiki zitzaion harat, eta sendatu zituen guziak.

Handik laster, igan zen, bakhar-bakharra, bere dizipuluekin mendi baterat. Iragan zuen gau osoa othoitzetan. Othoitzetik lekhora, hautatu zituen bere dizipuluen artean hamabi, eta eman zioten apostoluen izena. Izen hunek mezutua erran nahi du, beraz ederki zagokoten dizipulu hei, izan behar zirenaz geroz alde guzietarat egorriak eta mezutuak predikatze-kotzat Jesu-Kristoren ebanyelio saindua.

Jaunaren lehenbiziko ministro hek ziren Simon-Piarres, bertze guzien printzea: *princeps apostolorum*, Andres haren anaia; Jakobe eta Joanes Zebedearen semeak; Filipe, Bartholome, Mathieu, Thomas, Jakobe Alseen semea; Juda haren anaia, Thadee zaritzona, eta Simon kananeendarra: hamabigarren apostulua zen Judas Iskariot Jesus yuduei saldu ziotena.

Jainkoak hautatu zituen hamabi gizon hek behar zuten erakharri mundu guzia haren lege sainduaren azpirat; hek behar ziren elizaren harroinak, edo sustenguak; hek behar zituzten bazter guziak argitu. Ederrets dezagun Jaunaren probidentzia adoragarria. Zer ziren bada apostuluak hanbat gauza espantigarri obratzekotzat? Zer ziren! Berenaz nekha-zale pobre eta iziper batzu; gehienak arrantzale bere sareen erabiltzen baizik etzakitenak; gizon eskolarik etzuten deus yakin gabeak. Horra zer ziren apostoluak. Nork sekulan erranen zuen halako gizon harro eta populu xehetik heldu zirenek erakharrien zutela mundu guzia ezagutzerat



Jesus maitea guzien gaineko bere yabetzat? Nork erranen zuen halako presuna, hedadura gutitakoek eskurako zituztela populu guziak harmarik gabe, laguntzarik gabe, bere bizitze pobre eta nekhatuaren erdian? Predikaturen zutela animo saindu batekin errelijione bat arrazoinaren argiez gorago dena, nahikaren alderako sortzeak berak ematen dituen yaidura gaixo guziak debekatzen dituen? Errelijione bat munduak hanbat bilhartzten eta maite ohi dituen atseginak, ohoreak eta sentsuen-kara diren gauza guziak zorrozki kondenatzen dituen? Deusek ere ez ahal du hala ematen ezagutzerat Jesu-Kristoren Jainkotasuna nola apostoluak sustatzen zituen kharrak, eta nazione guziak bereganatzeko agertzen zuten bothere miragarriak.

Salbatzaillea yautsi zenean menditik bere apostoluekin eta bere dizipuluekin, hautarik batek erran zion: Jauna, nahi nazaitzu yarraiki; ordean onets ezazu desegin nadin, lehenik, etxean ditudan guziez, Jesusek ihardetsi zion: *Goldearekin lanean hari denik ez da gai Jainkoaren erresuman sartzeko baldin beha badago gibelat*. Hitz hautarik hartzeko ahal da Jesusi yarraiki nahi zaioenak utzi behar dituela munduko lan eta borroka salbamendutik gibel-araz detzaketenak, eta arbuiatu behar dituela behere huntako ontasun iragankhorrak, heltzekotzat bethiere iraunen duen zeruko dohatsutasunerat.

XIX. KAPITULUA

Nola Jesus mintzo den mendiaren gainean

Matth. 5.

Salbatzaillea igantzen mendi baterat apostolutzat berezi zituenekin eta bere dizipuluekin: yarraiki zitzaion mundu bat ondotik. Orduan egin zuen prediku handi hura, mendiko predukuaren aiphamena dakharkeiena. Aurkitzen zen prediku hartan bizitze saindu bat eramateko ebanyelioak manatzen duen guzia. Ez ditugu hemen hedatuko prediku miragarri hartako hitz zuhur guziak. Jesusek egin zituen apostoluak yakintsun salbatzekotzat behar ziren eginbideez, eta bere errelijionearen saindutasunaz. Gero, eman zituen ezagutzarat zortzi dohatsutasunak, mintzatzen zela hitz hautaz: 1. Dohatsu bihotzez pobre direnak; zeren guziei ukho egite hartaz beraz irabazten baidute zerua. 2. Dohatsu guzien alderat olhe eta maltso direnak, atsekabe guziak pazienki pairatzen dituztenak; ezen hala koentzat da bizien lurra, zeinaren iduripena baizik ez baida lurr agindua. 3. Dohatsu damu eta lazerietan direnak, bere ogia nigarretan yaten dutenak; zeren heien nigarrak itzuliko baidire denboraekin ezin agortuzko bozkario gozoaren ithurburu batetarat. 4. Doatsu yustiziaren gosea eta egarria dutenak; zeren aseko baidire. 5. Doatsu meserikordiazko obretan lakhet dutenak; ezen miserikordia handia dute igurikitzeko. 6. Dohatsu bihotza garbi dutenak; ezen halakoek ikhusiren dute mundu huntan berean fedearen begiz bere Jainkoa, eta bertzean, bekhoz-bekho, bere loria guziaren distiaduran. 7. Doatsu baketiarrak; ezen hekintzat dago bihotzeko bakea, eta Jainkoak behaturen diote bere umei bezala. 8. Doatsu, azkenean, persekuzioea Yaunaren ohoretan yasaten dutenak; ezen berea dute zeruko erresuna.

Bai, ene haur maiteak, ziotzon oraino Salbatzailleak, yakin ezazue nihoiz ez zaretela hala izanen dohatsu nola gizonek enegatik yazarriren darotzuetenean. Mundua nausiaren etsai agertzen da, nola onhetsiren ditu beraz haren dizipuluak? Berriz ere erraten darotzuet: prestuki eta ebanyelioaren arabera bizi nahiko dutenak izanen dire gehienik persekutatuak. Skribek eta farisauek itxuraz begiratzen dute ene legea; zuen berthuteak ez badu xitzen heiena, etzarete behinere sarthuren ene aitaren erresuman. Uste izan duzue orai arteraino aski zela nihor ez hiltzea, eta nik erraten darotzuet idozta dezaken hitzik arinena ere gaizki bat dela. Sakrifiziorik



handiena arbuiatua izanen da baldin haren ofrendatzailleak balin badu bihotzean nihoren alderako hotztasunik gutiena. Khendu behar dire, ahalik lasterrena, lohikeriari darontsatzen gogoeta guziak. Bekhatu mortal bat da hetan bere nahitarat, batere trikatzea. Nik galdetzen dudan bihotzeko garbitasuna berthute bat da hain minbera non aski baidu ahoko hatsa bera hiztua eta goibeldua izatekotzat. Zure eskuineko begiak eskandalisatzen bazaitu, erran nahi da, munduan gehienik preztatzen eta maitatzen duzun gauza bekhatuzko bide bat balin bada zuretzat, urrun ezazu zure ganik. Zer nahi gostarik ere, egizu hartaz sakrifizio bat: hirriskuan lakhet duena, han berean galduren da.

Orai arteraino erran izan zaitzue: maitaturen duzue zuekin ungi heldu dena, eta higunduren duzue zuen etsaia. Eta nik erraten darotzuet: maíta zatzue zuen etsaia ere, onets zatzue higun zaituztenak ere. Egizue othoitz zuen persekutatzailleentzat, eta zuetaz gaizki mintzo direnentzat. Ez da ere aski halakoen ez gaitzetstea, oraino egin behar zaie ungia. Zer merezimendu dukezue maíte zaituztenak maitatzeaz? Publikanoek berek ez dute gutiago egiten.

Erratea, bakharririk mihiz, barkhatzen diogula bidegabe, edo idoi egiten darokunari, hori da kortesia bat mundua engana dezakeiena, ez ordean behinere bihotzaren ondoan dabilhan Jainko handia. Guzien alderat izan behar duzuen karitateak khendu behar ditu yuiamendu arinegi eta suspitxa gaixto guziak: Jainkoari dagoko bakharririk ezagutzea zer iragaten den gure bihotzetan; Jaunaren zuzenetan sartzea ahal da nahi izatea barneak yuiatu.

Ez zorrozki beha zuen anaia arrebeen baietarat: ikhus zatzue lehenik zuen baitan aurkhitzen direnak. Gauza espantigarria! Bere begietan laza bat ikhusten ez duenak ikhusiren du lasto bat bertzeen begietan. Ez egin deusere zuen buruak altxatzeko, eta munduaren estimua zuen gantzeko xedez. Orgilleriaz egiten den gauzak merezi du punimendua. Amoina egiten duzuenan; zuen esku ezkerak ez beza yakin eskuinak egiten duena. Ezin daite Jainkoaren aitzinean gollardorik haren ganako amodioaren eredura baizik.

Zerbitza zazue Jainkoa khartsuki eta leialki: ez konturik egin munduaren gogara bizitzeaz, ez eta hark erran ahal detzaken gauzez. Ez duzue zeren deus onik iguriki haren ganik. Nihor ez da, bertze alde, bi nausi, betan, zerbitzatzeko gai denik: bada, yakin behar duzue Jainkoa dela bakharririk guzien gaineko zuen nausia: hura behar duzue fidantziarekin zerbitzatu. Zaitetzen seguratuak aireko xoriak hazten, eta liliak larretan sorazten dituen zuetaz orrhoituko dela zuen behar-ordutan.

Ene dizupulu erraten diren gehienak, ez dire bizi (urrun da) ene lege sailduaren arabera. Ifernurat daraman bidea zabala da: hari lothzen zaizko gehienak: ez beraz yarraik multzo handiari. Bakharrak dire zeruko bide hertsuari darraizkonak: izan zaitzte baltsa hartako. Ez beraz gaitzets ene uztarria; ez erran ezin yasanezkoa dela: yakin zazue haren berri, eta aithorturen duzue ezta eta arina dela. Badakit ene manamenduak dorphegiak zaizkotela batzuei: bizkitartean yakin bezate hek arthoski konplitzeari datxeikola zeruko erresuma.

Ez da zeren fidatu kanpotik ageri den prestutasunaren gainean. Itxuraz prestu dena gertha daite bekhatore handia. Hipokritak, nahi duen bezanbat, gerizaturen du bere burua, ez da hargatik gutiago izanen eza gutua: halakoak ageri dire bere obertarik. Arbola gaixtoak ezin dakharke fruitu onik. Orrhoit zaitzte Jauna, Jauna, erraten daroten guziak ez direla sarthuko zeruko erresuman. Ez ditut ezagutuko ene zerbitzaritzat ene aitaren nahia eginen dutenak baizik.

Hulakoa zen Jesusek mendi gainean egin izan zuen prediku guziz ederra eta miragarria. Orduan nausi adoragarri hark irakhatsi izan zuen bere errelijione saildua, orduraino ezagutua etzena. Patriarka zaharrak eta Profeta handienak etziren gai izanen, bere argi guzien erdian, halako lege zuhur eta salbagarri baten moldatzekotzat. Hain saildua, hain garbia, hain altxatua den errelijione bat ezin har zitekeien Jainkoaren seme adoragarriaren eskola handian baizen. Gizonaren ahalez gorago da hemen, bat-banazka, aiphatzea Jesu-Kristoren manu salbagarri guziak. Nor da explika dezakena, hitzez-hitz, ebanyelio saildua? Yaun-doni Yaunik erraten daroku mundu osoa ez litekela aski atxikitzekotzat gure nausi dibinok egin dituen guziez mintza litezkeien liburuak.



XX. KAPITULUA

Lepratsua, Zenteniera

S. Matth. 8.

Eta Naimeko Alhargun

S. Luc. 8.

Jesus yautsi izan zen menditik predikatu zuen ondoan bere erreljio-nearen saildutasuna, eta salbatzekotzat bethe behar ziren eginbideak, etzen hain laster yautsi menditik non egin baitzituen bi mirakuillu bata bertzearen ondoan. Lepratsu batek artiki zuen bere burua haren oinetarat, erraten zioela fede bizi batekin: Jauna, senda nazakezu zuk hala nahi bazindu. Jesusek urrikari izan zuen eri hura, hedatu zuen bere eskua haren gainerat, eta ihardetsi zion: nahi zaitut sendatu: zaiten sendatua.

Jesusek irakhatsi ziotenean bere dizipuluei eta bere ingurutan zitue-nei zerurat gateko bethe behar ziren eginbideak, hartu zuen Kafarnaum-go bidea. Bazuen mundutze handi bat ondotik. Hiri hartan sarthu zenezkotzat, hango lehenbizikotarik zirenek othoitztu izan zuten sendatzeaz gaixki zen eri bat. Hura zen hiri hartan ohoratua zen zenterion baten, erran nahi da, ehun gizonen aitzindari baten sehi maite bat. Zentenierari gutiegi zitzaion bertzeak ararteko yartzea haren sehiaren onetan. Bera athera zen Salbatzailearen biderat, eta mintzatu zitzaion hitz hautaz: Jauna, zergatik ethorri nahi duzu ene etxerat? Urrun da merezi baidut halako ohorerik, ez naiz gai ere zurekin solas egiteko. Ez duzu beraz zeren egin bertze urhatsik; aski da aipha dezazun hitz bakhar bat, ordu beretik sendaturen da nere sehia.

Jesusek laudatu zuen zentenieraren fede bizia; itzuli zen populuaren alderat, eta erran zuen: *Ez dut egiazki hunen bertze fede aurkhitu Israel guzian. Zenbat arrotz ez dire zerurako, Jainkoaren umeak, eta zeruko primuak sarthuren ez diren denboran erresuma dohatsuan!* Salbatzaileak erran zion gero zentenierari: zohazi, eta egin bekizu zure sinhetstearen arabera. Ordu berean, ehun gizonen aitzindari hark izan zuen berria haren sehia osoki sendatu zela.

Biharamunean, Naimarat zohala Jesusek bathu zuen mundu oste bat ehortzterat zaramaten gorphutz baten ondotik. Hil hura zen alhargun baten seme gazte eta bakarra, bere burasoaren kontsolazionea eta esparrantza guzia. Ama desolatu hura yarraikitzen zitzaion ahukuari nigar eta marrasketan. Salbatzaileak urrikari izan zuen buraso doloratu hura: hur-

bildu zen gathabuterat, ukitu zuen eskuaz, eta erran zion hillari: gizon gaztea, altxa zaite, nik hunela manatzen darotzut. Hitz hauk aski izan ziren: hil hura altxatu zen berehala, eta abiatu zen mintzatzan. Jesusek hartu zuen eskutik, eta bihurtu zion bere amari. Zer gauza espantigarri lekhuko ziren guzientzat! Nork egundaino ikhusi du, zioten elkharrri, deusere hulakorik? Nihoiz ez ahal da sorthu profeta hunen handirik. Mirakuillu haren ospea hedatu zen bazter guzietarat: bat-bedera lehiatu zen ikhusterat, eta entzuterat hanbat mirakuilluen egillea.

Yaun-doni Yauni preso zatan aiphatu ditugun mirakuilluen denboran. Bere dizipuluek hedatu ziotzoten espanturekin beharitarat Jesusek egiten zituen gauza miragarriak. Nausi zuhurak laster ezagutu zuen, haren dizipuluek etzutela oraino bere sinhetste osoa Salbatzailea baitan ezarria. Duda guziak hobeki suntsi-araztekoztat, egorri zituen Jesus ganat ikhus zezatentzat hura zela behintzat munduaren egiazko Salbatzailea. Yaun-doni Yauni-Baptistaren dizipuluek erran zioten Jesusi: Gure nausiak manatu gaitu zure ganik yakiteaz heaz zu zaren bada ethortzekoa zena, ala behar dugun bertze bat iguriki.

Salbatzailea inguratua zen populu ostez Baptistaren dizipuluek egin ziotenean galde hura. Etzuen ordu berean ihardetsi; ordean sendatu zituen hekin begietan harengana ziren eri guziak; egin zuen bertze zenbait mirakuillu ere; gero erran zioten dizipulu hei: bihur zaitezte zuen nausiaganat: erran diozozue itsuak argitu direla, mainguak xuxendu, lepratsuak garbitu, gorrak ernatu eta hillak bitztu. Ala dohatsu izanen baidire, erran zuen oraino Salbatzaileak, ene Jainkotasuna sinhesten dutenak, ikhusten duten arren bertze gizoneen idurikoa naizela! Ala dohatsu izanen baidire fedean fermu egonen direnak ikhusiko nautenean ene etsaiez arbuaiatua, thuz estalia, eta guzia laidostatua! Ala, azkenean, dohatsu izanen baidire ene humiliacionek eta sofrikariek niri yarraikitzetik gibelaturen ez dituztenak! Hitz hautarik lekhora, Jesusek egin zuen Yaun-doni Yauni-Baptistaz laudoriorik konpliena, eta baiatu, edo erreportxatu zituen farisauak ez hobeki probetxatzeaz gizon saildu haren hitz zuhurrez eta exenplu edereez.

Bekhatua da arimeen ondikozko lepra. Gaitz hartarik sendatu nahi denak izan behar du kapitulu huntan aiphatu dugun lepratsuaeren fidantzia bera Jaunaren botherean eta miserikordian; ordean ez da hor guzia; izan behar du oraino haren humiltasuna eta sumetimendua probidentzia- ren alderat.

Buruzagiek ikhas dezakete zentenieraren exenpluan, izan behar dutela bere sehiez artharik handiena eri direnean, eta beregainki arimako



eritasuna dutenean. Zer lehia saindurekin ez dute halako ordutan behar bilhatu hekin ona! Jainkoak ez du berezkorik edo diferentziarik egiten aberatsen eta pobreen artean: orobat onhetsten ditu batzuk nola bertzeak: bihotzaren garbitasunari darraikon hura da ontasunik preziatuena haren maiestate adoragarriaren aitzinean. Buruzagiek nahi badute Jainkoak beha diozoten arraiki eta zerbitzari maite batzuei bezala, berek urrikari izan behar dituzte bere zerbitzuan dituztenak.

Naimeko alhargunaren umeari bizia bihurtzea da mirakuillu bat ederretsi behar duguna, eta Jaunaren botherea bezala haren urrikalmendua ere seinalarazten duena. Erran dezakegu Salbatzaillearen miseriakordia ez dela gutiago seinalatzen atheratzen duenean bekhatuaren thonbatik haren begietan hilla den bekhatorea, eta bihurtzen dioenean bekhatuak gal-arazi zion arimako bizia.

XXI. KAPITULUA

Magdalena konbertitzen da

Luc. 7.

Magdalena da sainda bat ebanyelioan hagitz aiphatua Jesu-Kristo ganako amudioaren eta bere penitentzia miragarriaren-gatik. Bethaniako zen sortzez, erran nahi da Jerusalemetik hurbillekoa. Aberatsak zituen burasoak: hil zirenean, haren bi haurride prestuek etzuten deusere guphidetsi haren altxatzekotzat Jainkoaren beldurrean, eta modestia sainduan. Oxala haurride hekin xede laudagarriak izan balu efetu dohatsuagoa! Alferretan izan ziren heien abisu zuhurak eta exenplu edifikagarriak. Munduaren alderako yadura ondikozko batek eraman zuen munduperat Magdalena gaztea. Izpiritu hainitz ematen zioten, eta presuna eder bat zen; damu gaixtorik etzuela solidotasun gehiago! Bertzelako bizitzea eramanen zuen. Arina zen, eta yenden arterat athera nahia. Ikhusiz mundua, eta hartaz ikhusia izanez, egin zen osoki mundutiar. Bilhatzen zituen aphaindura ergel, eta yauntsturen edergaillu asma ahal guziak. Hulakotan zatzen Magdalenaren gogo guzia. Berthuteak laster galdu zituen haren bihotzean bere zuzen preziatuak. Magdalenak bereganatu zuen munduaren arbuioa, eta eskandalisatzen zuen bere libertinkeriez Galilea guzia.

Lazara eta Martha etziren baratzen othoitz egitetik Magdalena bere haurridearen fagoretan. Jesusek onhetsi zuen heien arartekotasun laudagarria: nola bekhatoreen-gatik baitzen mundurat ethorria, iharrosi zuen Magdalenaren bihotza, eta egin zuen osoki bertze bat hartaz. Huna nola obratu zen mudantza miragarri hura.

Salbatzailleak Kafarnaumen eta Betsaidan predikatzen zuen. Magdalenak hunenbat gauza espantigarri hartaz entzun zuen non ethorri baizitzaion haren entzuteko gutizia. Ordu beretik haren bihotza itzuli zen Jainkoa-gana. Bere bekhatuen orrhoitzapenak berak eror-arazi zuen ahalkeriarik handienean. Zaurthua zen urrikirik minenaz ikhustean bere gaixki guziak. Galdegin zuen non ediren ahal zezakeien Salbatzaillea, erran zitzaioeneko Simon farisauaren etxean othoruntzaten zela: ematen zaio berehala bideari, sartzen da animo saindu batekin yateko lekhuari. Artikitzen du bere burua Jesusen oinetarat, bustitzen ditu bere nigarrez, xukatzen bere illeez; gantzutzen ditu ur balios batez, eta ematen diote musu urrikia eta fidantzia erakutsten zituen errespektu batekin.



Simon farisauak gaitzetsi zuen Salbatzailleak zuen ontasuna utzteko bere oinetan halako emazteki bekhatore bat; eta zion bere buruarekin: gizon hau, profeta balitz, dioten bezala, balakike nor den bere oinetan izan duen presuna. Jesusek ikhusten zuen zer iragaten zen Simonen gogotan, eta erakharri zuen farisau hura emazteki haren laudatzerat. Simon (erran zion) ihardets diozozu galde huni: gizon batek zuen hartzeko bi presunen baitan: batek zituen zor bortz egun diru-peza, eta bertzeak berrogoi eta hamar. Nola batak ez bertzeak ez baitzuen pagatzekorik, hartzeko zuenak barkhatu zioten biei zorra; hetarik zein da, zure arabera, gehienik maitatu behar duena grazia egille hura? Gauza ageria da, Jauna, (ihardetsi zuen Simonek) nork ere baitzuen zorrik handiena, eta hark behar duela gehienik maitatu. Jesusek erran zion hitz horien gainean: xuxen mintzo zare. Ez duzu beraz miretsi behar erraten badarotzut hainitz bekhatu barkhatu zaizkola emazteki huni, zeren hainitz maitatu duen. Orai arteraino ez darotet galdegin gorphutzeko eritasunen sendatzea baik. Emazteki hau da bakharra eman dena, ahuspez, ene oinetan arimako zaurien sendatzea galdetzekotzat. Itzuli zen gero Magdalena penitentearen alderat, eta erran zion: zohazi, ene alaba, fidantziaz bethea den zure fede bizia baliatu zaitzu salbatzekotzat: barkhatzen zaizkitzu egin dituzun bekhatu guziak.

Hura izan zen ordu dohatsua zeinetan munduko amodio zoroak lekhu egin baitzion zeruko amudio zuhurrari. Amudio sainduak sustatu zuen Magdalenaren bihotza: higungu zituen orduraino maitatu zituen atsegin galkhorrak; bakharrak bere Salbatzaillea baitan aurkhitzen zuen bere sosegua eta bozkario guzia. Iragan zituen hogoi eta hamar urthe penitentzia dorpheenetan, arroka zilho batean, gau gehienak othoitzetan zaramatzala.

Jainkoak yakintsun egin zuen santa Magdalena hil behar zen egun eta orenaz. Hil izan zen Marseilla hiritik hurbil. Greziarrek nahi lukete sinhets arazi santa Magdalenaren erlekiak bere alde hetan dituztela. Marseilla hiriak eta Probentza guziak bertzela diote; ematen ere dute titulu zahar eta onez erakutsterat bere eliza-nausian dadukatela santa Magdalenaren burua.

Zer penitentziatzko exenplu eder ez dugu edireten Magdalena baitan! Saindua haren penitentzia lasterra, animotsua eta efetuzkoa gerthatu zen. 1. Lasterra, etzuen nagitasunik agertu graziari ihardetsteke; haren alderako leihaltasunak garaitu zituen Jainkoa ganat heltzetik gibela zezaketen debeku eta estakuru guziak. 2. Haren penitentzia animotsua zen; etzuen konturik batere egin munduaren errankizunaz, ez eta bere lagun arinen

trufez: sobera baik etzakien zer zen mundua, eta zein guti zuen merezi izatea gehiago hartaz maitatua. 3. Magdalenaren penitentzia efetuzkoa izan zen. Graziak haren bihotza irabazi zuen oren beretik, etzuen arbuiorik eta higuntzarik baizen munduko ergelkeria, atsegin deserregelatu eta bere Salbatzaille adoragarria-ganik urrun ahal zezaketen gauza guzientzat.

Magdalenak ez du ahalkerik penitent agertzeaz; bainan bai zeren izan den bekhatore. Egiten dio Jainkoari sakrifizio bat bere arimaren galazteko baliarazi zituen guziez. Begiek bitztu zuten haren baitan munduko amudioa, eta begi hek beretarik isurtzen diren urrikizko nigar gozok hil-arazten dute haren bihotza erretzen zuen su damnagarria. Berriz ere diot beraz: zer penitentziatzko exenplu eder ez dugu edireten santa Magdalenaren konbersione miragarrian!



XXII. KAPITULUA

Ebakitzen diote burua Yaun-doni Yauni-Baptistari

S. Marc 6.

Erran izan dugu Yaun-doni Yauni izan zela preso emana. Gizon saildu eta Jainkoaren amudioaz sustatua zen hura, altxatu zen khar handirekin Heroderen kontra. Printze hunek bizitze gaixto bat zaraman Herodias, bere anaiaren emaztearekin. Gure sailduak batere behatu gabe erregetasuneko graduari, mintzatu zitzaion Heroderi minki eta ausartzia oso batekin ematen zuen eskandala ahalkagarriaz. Printze hunek prezatu behar bidean Yaun-doni Yauniren fermutasun laudagarria, gaitzetsi zuen eta sar-arazi presondegian: egia da bada Herodias bere koinatak etzuela guti erakharri hartarat. Gure sailduak kanpoan bezala predikatzen zuen presondegian ere. Mundua orobat zohan haren entzuterat. Herodiasek zer nahi erran eta egin zezan, Herode ezin debeka zitekeien ohoratsetik berak preso altxarazia. Yaun-doni Yauni mintzo zitzaion presondegian, bertzetan bezala, zaraman bizitze gaixtoaz; etzen baratzen erratetik ez zitzaiola zilhegi izatea bere emaztetzat bere anaiaren esposa. Hunela mintzatzeko animo sailduak yar-arazi zuen Herodias sumindura guzietan, ematerainokoa bere gogoari hil-arazi behar zuela egiaren erraillea. Hala gerthatu zen.

Herodek othuruntza handi bat ematen zuen aldi batez, Herodiasek harat erakharri zuen alaba bat utzi zuen senharra ganik izana. Alaba hau zen gaztea, ungi egina eta dantzari handia. Eman zen bere ederrenean: dantzatu zen Heroderen eta mahainean ziren guzien aitzinean. Huntarainokoa xoratu zuen printze flako haren izpiritua non erran baitzion aski zuela galdetzea nahi zuen guzia; hitz eman zion yuramenturen azpian zer nahi ontasun emanen zioela, bai eta bere erresumaren erdia ere, hala nahi bazuen. Alaba hau lehiatu zen yoaterat bere ama gana, yakitekotzat haren ganik zer zen bada galde zezakeien grazia. Burasoaren erranaren gainean, galdegin zuen plat batean Yoanes-Baptistaren burua. Galde hunek laztu zuen Heroderen bihotza: urriki izan zuen bere yuramentuaz; ordean munduaren errankizunak eta konplazentzia damnagarri batek erakharri zuten errege itsu eta krudel hura Yaun-doni Yauniren burua ebaki-arazterat. Gure sailduaren biziak hobeki zirurien aingeru batena ezen ez gizon

batena. Heriotzeak etzuen batere lotsatu haren bihotza, aitzitik bozkario handi bat zuen martirioa yasateaz bere Salbatzaille maitearen ohoretan.

Ekharri zioten Heroderi Yaun-doni Yauniren burua, berak manatu bezala. Printze zoratu hark egorri zion emazteki dantzariari, eta hunek eramane zioen bere ama dohakabeari. Hunela hil zen, hogoi eta hamabi urthetan, gizon guzietarik handiena. Yaun-doni Yauniren dizipuluak yabettu ziren bere nausi sailduaren gorphutz ohoragarriaz; ehortzi zuten Sebasta daritzon hirian. Orain Erroman datza haren buruaren zathirik handiena; eta saildu haren gainerako erleki printzipalak aurkhitzen dire Italian eta Frantzian, hala nola Lyongo hirian.

Gaixtakirik eta bekhatu guziek pasionetan hartzen ohi dute bere ethorkia. Etsai gaixtoa behin sar bedi bihotz batean, ez da desmasiarik eta izigarritasunik eragin ez dezakenik. Herrak, inbidiak, alferrieriak, zintzurak, hitz batez errateko, pasione bakoetak zertarat ez dezake bat-bedera erakhar! Halarik ere, aithortu behar da lohikeriari daronson pasionea dela, bertze guzien artean, gehienik izpiritua zorutzen eta bihotza gal-arazten duena. Heroderen etsempluak egiten ahal du egia hunen frogantzarik konpliena.



XXIII. KAPITULUA

Jesusek hazten tu bortz milla presuna iraganak bortz ogi, eta bi arrainekin

S. Matth. 14.

Jesusek jakin zuen Yaun-doni Yauniren heriotzearen berria, eta hartaz ere zer zioten Heroderen kortean. Uzte izan zuen egin behar zuela aurkhitzen zen lekhitik urrunterat; sarthu zen bere dizipuluekin barku batean, eta iragan zen Betsaideko hurbillerat. Alferretan bilhatzen zituen lekhirik gordena, mundua yarraikitzen zitzaion guzietarat. Bortz milla presuna iraganek egin izan zuten egun baten bidea, oinez, haren ganat heltzeko. Bide bera zuten egiteko bere etxerarat bihurtzeko, eta deusere yan gabeak ziren. Salbatzailleak egin ziotenean bere predikua, eta sendatu zituenean baltsa handi hartan ziren eriak, dizipuluek, ikhusirik berandua zela, erran zioten bere nausiar: Juana, egor ezatzu yende hauk hemendik eros dezatentzat zerbeit yanari hauzoko herri hautan. Jesusek ihardetsi zioten: ez da premiarik batere urrun ditezen hemendik. Emozue zeuek, yaterat. Ez dugu ordean hemen (zioten dizipuluek) bortz ogi eta bi arrain baizik: zer dire guza guti hauk mundu oste hunentzat? Bakotxak ez luke, zion Filipek, hamen bat baino gehiago. Jesusek erakharri zituen bortz ogiak eta bi arrainak, benedikatu zituen eta parti-arazi han ziren guzietarat. Bakotxak yan zuen nahi zuen bezanbat, eta aldaratu ziren oraino hamabi saski sobratu zirenez betheak.

Mirakuillu handi hunek harritu zuen populu hura. Guziak eman ziren erraten: huna non den mundurat ethorri beharra zen Salbatzaillea: hartu ere nahi zuten bere erregetzat. Jesusek ezagutu zuen zer zarabillaten gogoan: egin zuen berriz ere, ihes, bakhar-bakharra, mendirat. Arrats aphalerat, haren dizipuluek iragan zuten barku batean itsasoa Kafarnau-merat heltzeko haizea bortiztu zen eta itsasoa handitu. Apostuluek ezin ardiets zezaketen arrabeen laguntza guziarekin leihorra. Salbatzailleak ikhusten zuen menditik heien izialdura eta hurriskua. Laster athera zituen batetik nola bertzetik.

Goizeko lau orenetako heinean, Salbatzaillea hurbildu zen apostolu-letarat, uraren gainean zabillala. Ikhusi zutenean gizon bat uraren gainean ibiltzen, yarri ziren ikharan eta oihu minetan; ordean Jesusek ezarri zituen deskantsuan, erraten ziotelarik: Ez duzuen beldurrik, ni naiz. Jauna, ihardetsi zuen Piarresek, zu balin bazara, mana ezazu ni ere ibil

nadin, zu bezala, uraren gainean zure ganatzekotzat. Jesusek erran zion: zato. Piarres aiutsi zen berehala barkutik, eta abiatu zen animorekin uraren gainean bere nausia ganat. Haizea aphur bat altxatzearekin, hasi zen izitzen eta ondoratzen: O! Jauna (erran zuen orduan Piarresek) salba nazazu, ondorat noha! Jesusek hartu zuen eskutik, eta erran zion: fede gutitako gizona, zergatik dudan eman zara? Jesus etzen hain laster barkuan sarthu Piarresekin non yabaldtu baitzen haizea eta edertu itsasoa. Hulako mirakuilluek idek-arazi zituzten dizipuluen begiak: ikhusi eta ezagutu zuten hekin obratzaillea Jainkoaren semea zela: eman ziren, ahuspez, haren oinetan, eta adoratu izan zuten.

Jesus leihorrerat zenekotz, haren mirakuillu berrien ospea hedatu zen ingurutarat. Eriak bildu ziren, osteka, alde guzietarik osasuna galdezterat. Ordean zer nahi den eginik ere bere botherea seinalatzekotzat, gehienek mundu huntako bere ona bilhatzen zuten hari yarraikitzean: hainitzek etzuten ezagutzen Jainkoaren semetzat. Izan ere zuten atrebentzia Jesusi galdetzeko non ziren bada haren obrak sinhetsi behar izateko hura zela Jainkoaren semea? Zer mirakuillu, erran zioten, egiten duzu bada itsutuki eman behar izateko gure sinhestea zure hitzetan? Hazi izan ditutzu, egia da, egun berean bortz milla presuna iraganak bortz ogiekin; ordean Moisek hazi izan ditu, berrogoi urthez, sei ehun milla eta gehiago zerutik yautsten zen manaz. Egin othe dezakezu Moisek baino gehiago? Hitz haukin gainean, Jesusek ihardetsi zuen: *Egiaz mintzo natzaitzue: ez duzue Moisen ganik zeruko ogia: ene aita da, ematen darotzuena (ni ematean) zeruko egjazko ogia; ezen zerutik yautsten den ogia da Jainkoaren ogi munduari bizia ematen dioena.*

Horletan, eman diezaguzu beraz, erran zioten, ogi hartarik. Jesusek hobeki konpreni-araztekotzat Eukaristiaren misterioa, erran zioten bere aditzaillei: ni naiz biziaren ogia: ene ganat heldu denak, eta ene hitzetan eta nere baitan sinhetstia ezartzen duenak, ez du nihoiz izanen goserik ez eta egartsurik. Zuetaz bezanbatean, lehen ere erran darotzuet: ikhusi nauzue, eta ez duzue sinhetsterik. Ikhusi nauzue mirakuilluak egiten, eta ederrretsi ditutzue: atsegin hartu duzue aurkhitzeaz ene baitan osasuna eritasunetan, eta laguntza behar-ordutan; ordean etzarete urrunago hedatu. Horietan baratu zarete, ez duzue bertze deusere bilhatu. Aiphatu darotzuedan zeruko ogi bethierekoa eta bizitzea ematen duena bakharrik onentzat izanen da, erran nahi da, fede bizi batekin eta graziazko estatuan yanen dutenentzat. Gaixtaginek eta federik ez dutenek, edo fedea izanik ere, bekhatu mortalean zeruko ogi hartarik yanen duten dohakabeek, iretsiren dute bere kondemnamendua.



Jainkoak erakutsten daroku guretzat duen amudioa bere obra guzietan. Halarik ere, aithortu behar dugu Sakramendu Saindua dela haren ontasun infinituaren mirakuillurik handiena, eta bertze misterio guzietan bere baitan daduzkana. Etzen bada aski gauza guzien kreatzaillea yauts zadin guregatik zerutik lurrerat! Har zezan guk bezalako gorphutz hilkor bat! Paira zetzan tormentarik izigarrienak! Ez giriztinoak, gure Salbatzaillea ez da horiek guzietan baratzen: urrunago darama bere miserikordia; etzaio iduritzen aski egiten duela gure alderat sakrifikatzean bere bizi preziatua guri zeruko erresuma izan araztekoztat; azkenaz-goiti, ematen daroku aldareko sakramenduan yanaritzat bere gorphutz sakratua. Zer amudiozko gaindidura!

Zenbat ere ezin konprenituzkoa baida Jainkoak gure alderat seinalatu duen amudio miragarria, aithortu behar dugu, gure ahalkeria handitan, oraino gutiago konprenitzekoa dela gure esker gabetasun itsua halako aita amultsu baten alderat.

XXIV. KAPITULUA

Jesu-Kristoren transfigurazionea

Matth. 17.

Jesu-Kristok Zesareako hiritan gaindi zabiltzala bere dizipuluekin, galdegin zioten zer zion munduak hartaz. Ihardetsi zioten batzuk ziotela Joanes-Baptista zela, bertzeek Elia, eta bertze batzuk Yeremia, edo profeta zaharretarik bat. Eta zuek, erran zioten Jesu-Kristok bere dizipuluei, nor uste duzue naizela? Yaun-doni Petrik ihardetsi zuen berehala: zu zare Kristo, Jainko biziaren semea; orduan Jesu-Kristok erran zion dohatsu zela haren aitak yakintsun egin izateaz erranik heldu zen egiaz; agindu zion haren gainean asentaturen zuela bere eliza saindua ifernuko atheak baino bortitzagoa izanen zela. Bai, ni naiz (erran zioten oraino Jesusek bere dizipuluei) ni naiz Salbatzaille igurikia, Jainko biziaren semea, eta Jainkoa bera; ez da ordean denbora hulako deusik aiphatzekoa. Debekatzan ere darotzuet batere mintzatzeaz gauza hauien gainean: yasan behar ditut lehenik asma ahal ditezken idoi guzietan baita gurutzeko heriotzea bera, munduaren Salbatzekotzat, eta ene aita zerukoaren yustizia satisfaztekoztat.

Zenbeit egunen buruan, Jesusek hartu zituen berekin Piarres Yakobe, eta Yoanes, bere hirur apostulu maitenak, eta eraman zituen mendi gora batetarat. Harat zenean, eman zen aphur bat bazterrerat, eta yarri zen othoitzean. Othoitzen kharrean zatzala, transfiguratu izan zen betetan bere dizipuluen begietan. Jesusek ez zirurien, ordu hartan, bertze gizonak bezalako, aitzitik ezagun zen Jainko gizona zela. Jainkotasunaren distiadura guzia seinalatu zen haren gorphutzean. Izarniatzen zuen, alde guzietarik, iguzkiak bezala. Eta gehiago dena, haren yaunstura egin zen elhurra baino xuriago. Ordu berean Moise eta Elia agertu ziren mendi berean, eta egon ziren Jesusekin solasean Jerusalem pairatzeko zituen atsekabez. Atzarri ziren, arte hartan, lokhartu ziren hirur dizipuluak. Nolako etzen behar hekin espantimendua ikhustez Salbatzaillea loria guziaren erdian, eta bi profeta harekin solasean!

Yaun-doni Petrik etzakien non zen, bozkarioz; ezin bara zezakeien bere kontentamenduaren gaindidura: abiatu zen berehala erraten: Jauna, on da guretzat hemen izatea: hemen behar ginduke egon. Non gintezke hobeki? Eginen tugu hemen hirur tenta, edo egoitza: bat zuretzat, bertze bat Moisentzat, eta hirur garrena Eliarentzat. Ordu hartan Yaun-doni



Petri bozkarioz horditua bezala aurkitzen zen. Hala ematen daroku Iskri-tura Sainduak ezagutzerat dioenean apostulu hartaz, etzakiela zer erraten zuen: *nesciens quid dicent*.

Yaun-doni Petri hala mintzo zela, Moise eta Elia suntsitu izan ziren handik. Hedoi arraiotsu batek estali izan zituen guziak, eta entzun izan zen hedoi haren barnetik Jainkozko boz bat erraten zuena: huna ene seme maitea; huntaz dakusa ene bihotz guziak. Bakharrik hau dut maite, eta beregatik dut maite. Entzun ezazue zuen nausi bezala, obedi diozozue zuen erregeri bezala. Apostoluek ezin yasan zuten hedoi haren distiadura lilluragarria; artiki behar izan zituzten bere buruak lurrerat. Ikharaz laz-tuak ziren; ordean hurbildu zitzairen Salbatzaillea, ukitu zituen eskuz, eta erran zioten: altxa zaitezte, ez izan beldurrik. Apostoluak altxatu ziren lurretik, behatu zuten alde guzietarat, eta etzuten bertze deusere ikhusi baizik Jesus leheneko estatu bererat ethorria.

Salbatzaillearen xedea agertzean bere apostoluen begietan loriaz estalia zen hei ezagut-araztea zeruan bere zerbitzarientzat zadukan loria-ren arraio bat bezala. Erakhartzen zituen, denbora berean, gurutzearen yasaterat, eta ematen zuen erakutsterat yauts-arazten duela, batzutan, sainduen gainerat, mundu huntan berean, arte laburretako bada ere, zeruko gozotasun eta nahikareen kutsu bat.

Salbatzaillea baitan ikhusi zen zeruko loriaren arraio batek hanbat admirazione eta allegrantzia hedatu bazituen apostuluen izpiritu eta biho-tzeterat, zer izanen da bada ikhusiko denean gure Jainko handia, bekhoz-bekho, zeruan, bere maiestate adoragarri guziaren erdian! Ez dakit, dio Jainkoaren zerbitzari handi batek, zer erran parabisuaz; nik dakidana da munduko atsegin eta edergaillu guziak ez direla zeruan edireten diren atsegin eta edertasunaren itxurapena baizik. Ez dakit yustuki zer aurkhi-tzen den erresuma dohatsu hartan; bainan nik dakidana da, han ez dela, ez gaitzik ez atsekaberik, ez yelosiarik, ez beldurrik, ez eta esparantzarik, hitz batez, han ez dela deusere gure bihotza, den gutiena damusta deza-kenik: aitzitik nahikara eta bozkario suerte guzien itsaso batean bezala phulunpatua datzala harat heltzeko zoriona duena.

XXV. KAPITULUA

**Jesu-Kristo mintzo zaie
Apostoluei bere heriotzeaz,
eta humiltasunaz
Matth. 18.**

Jesu-Kristo yautsi zen bere hirur apostoluekin Thaboreko menditik, eta hurbildu zen bertze dizipulutarat zeinak aurkhitzen baitziren mundu-tze handi batez inguratuak. Bere semea etsaiaz hartua zuen gizon batek othoitztu zituen Jesusen dizipuluak ume haren sendatzeaz heien nausia harat gabe. Jesusek eman zaroen bere dizipuluei etsai gaixtoen khentzeko eskua; halarik ere, ezin sendatu zuten eri hura. Jesusek sendatu zuen berak, eta bihurtu zion bere aitari; orduan dizipuluek galdegin zioten non-dik heldu zen bada hek ezin sendatu baitzuten. Nausi adoragarriak ihar-detsi zioten hori heldu zela hekin fede eskasetik, eta balute fede gehiago, gai litezkela mendiak errotarik atherarik, iragan eraztekotzat itsasoan barna. Erran zioten oraino halako eriak etzirela sendatzen othoitzaz eta baruraz baizik.

Paradak ematen zuen aldi guziez, Jesus Jerusalemen yasan behar zituen sofrikariez mintzo zen, eta hitz ukigarrienez mintzo zen. Erraten zioten bere dizipuluei: Salbatzaillea largatua izanen da gizonen eskutarat; hil araziren dute; eta bitztuko da hillen denetik hirur garren egunean. Ebanyelioak erraten daroku dizipuluak etzirela sartzen bere nausiaren erranetan: ez zitzairen sekulan gogoraturen bere pasioneaz, heriotzeaz, eta bitz-teaz mintzo zela. Etziren hargatik atrebitten Jesusi galdetzerat haren hitz sainduen argitasunik: beldur ahal ziren erranen ziotela zerbait gauza damuzta zetzakenik.

Jesus sarthu zenean Kafarnaumen, galdegin zioten bere dizipuluei zertaz mintzatu ziren bidean. Bazakien iharduki zutela lehenbizi izatearen gainean. Suntsi-arazi nahi izan zituen heien bihotzetarik urguilleriazko eta bertzez gorago izan nahizko sentimendu guziak, erran zioten bere arrai-tasun eta amultsutasunekin: ene erresuman lehenbizikoa izan nahi duena bedi guzien azkena eta guzien zerbitzaria. Ene begietan daiten titulurik ohoragarriena da egiazko humiltasuna. Nor ere baida humilena eta hura izanen da altxatuena. Hartu zuen gero haurtto bat, besarkatu zuen era-kutsterat ematekotzat zenbat dituen maite arima humilak; ezarri zuen haur xume hura bere dizipuluen erdian, eta erran zioten: baldinetariak ez



badituzue utzten handitasunezko gogoetak, eta ez bazarete haurren idurikoak, etzarete sarthuren zeruko erresuman.

Salbatzailearen hitz zuhur eta esenplu ederrek erakharri behar gaituzte maitatzerat berak, guzien gainetik, maitatu duen humiltasuna. Bat-bederak artik betza begiak alde guzietarat, eta aurkhituko du guzietan zertaz bere burua humilia. Zer duzu, dio apostuluak, eman etzaitunik? Duzun gauza emana izan bazaitzu, zergatik hartaz lorifikatzen zare, eman izan ez balizaitzu bezala? Arrazoinik aski ahal dugu yarraikitze kotzat humiltasunari. Ilhunbeak izpiritutan, pasioneak bihotzetan, nekhea eta gaitzak gorphutzetan: hitz batez, gauza guziek predikatzen darokute humiltasunaren premia baitezpadakoa. Yakintasunak, fetxotasunak, eta munduak gure baitan ederrets detzakeien merezimendu distiosenek berek badituzte bere itzalak eta goibeldurak. Ez da bat bere baia gabe, beraz maitatu behar ez duenik humiltasuna. Gehiago diot: nor ere munduak baidaduka bertzeez goragokotzat, askotan hura bera daite, Jainkoaren begietan, guzietarik aphaena eta arbuigarriena.

XXVI. KAPITULUA

Hamar lepradun sendatuak

S. Luc. 17.

Jesus egon zen zenbeit egun, Galilean. Handik hedatu zen Yudearat, harorik gabe, eta gordeka bezala. Iragaten zela Samariako herritan gaindi, bathu zituen hamar lepradun haren ganik errespektuz urrun zaudenak. Altxatu zuten boza, eta othoitztu zuten izateaz hetaz urrikalmenu. Jesusek, ikhusi zituene kotzat, erran zioten: zohazte aphezetarat, ezagut-araz diotzotzue zuen buruak; hala manatzen du legeak. Jesusek ematen zuen ezagutzerat legearen alderat izan behar den lehaltasuna, eta giriztinoek bide egin behar dutela arimako mirikutarat hei bere barneak agerzekotzat, elizak manatzen duen ordutan, eta bekhatuez hobendun diren aldi guzian.

Hamar lepradunak agertu zirenean aphezetarat, sendatuak izan ziren guziek; ordean etzen izan hetarik bakhar bat baizik Jesus gana bihurtu zenik eskerren ematerat mirakuilluzko sendatze hartaz. Eman zen, ahuspez haren oinetan, eta bihurtu ziotzon eskerrak egin zion grazia handiaz. Salbatzaileak galdegin zion hea hamarrak etziren izan sendatuak, eta non ziren bertze bederatziak.

Bakhar bat aurkhitzen da, dio ebanyelioak, hamarren artean, dena ere arrotz bat, bihurtzen dena eskerrak Jesusi ematerat. Jesusek erran zion bakhar hari: zohazi deskantsuan: ardietsi duzu osasuna esker zure fedeari. Denbora berean gaitzitu zitzaion bertze bederatziaren eskergabetasuna.

Exenplu hunek irakhatsten daroku ihes egin behar diogula eskergabetasunari, eta ezagutzaz betheak izan behar gara Jainkoaren alderat zenbeit fagore egiten darokunean, gure bihurkhundeak agertu behar du egiten zaikun emaitzaren eredura: ez da beraz aski bozkariatzea gure arimak sendatzen direnean ungi hartuz sakramenduak. Bederatzi lepradun hek ere atsegin bide zuten osasunaren ardietsteaz, laudatzen ere bide zuten, bihotzez, bere ungi-egillea; ordean etziren hartan behar baratu; behar ziren lehiarekin Jesus gana bihurtu eskerren bihurtzerat. Zeren etzuten hala egin gorphutzean zuten lepra iragan zen arimarat, beraz egundaino baino eriago gelditu ziren.

Zenbatak ez dire gure lepradunen idurikoak, ez errateko, areagoak! Zenbatak, ardietsten dutenak ez bakharrik laster herrautsetarat behar den gorphutzaren osasuna, bainan oraino gaitzik kaltekorrenaz zaurthua den arimarena, halarik ere bihurkhunderik ez dutenak bere miriku soberano-



aren alderat, aitzitik, egundaino bezala haren damuztatzen eta ofentsatzen hari direnak! O! eskergabetasun ahalkagarria eta ondikoz! Maizegi baizik ikhusten ez dena gehien zor diotenen beren artean!

XXVII. KAPITULUA

Jesu-Kristoren eztitasuna emazte adultera baten alderat

Yaun-doni Yaun. 8.

Jesus hedatu zen Yudearat sendaturik bere bidean bathu zituen hamar lepradunak. Zuhurtzia guzizko bat agertzen zuen predikatzean. Berenagatzen zuen mundu guziaren admirazionea. Halarik ere, gaitzetsia zen skribez eta farisauetz; nahiko ziren hartaz yabetu: ordean populuaren beldur ziren; ezen guziek behatzen zioten Jesusi, bederan profetarik handienari bezala. Gaixtaginek etzuten deusere guphidetsten zerbeit errateko aurkhitzekotzat Salbatzaillearen hitzetan edo obretan. Erakharri zuten haren aitzinerat emazte bat adulterioko bekhatuan eroria. Ezarri zuten guzien erdian, eta erran zioten Salbatzailleari: nausia, emazte hau berriro atzemana izan da adulterioan: badakizu Moisen legeak manatzen darokula hulako emaztekien harrikatzeaz: zuk zer diozu horren gainean? Galde hau, dio ebanyelioak, egina zen nahi zerbait errateko kausitu Salbatzaillearen hitzetan; etzuen ordean deusere ihardetsi, eta abiatu zen makhurturik iskribatzen lurrean. Egin zioten bigarreanean galde bera: orduan xuxendu zen, eta erran zioten: nor ere baida zuen artean kutsatzen ez dena bekhatutan, eta hark artik biozo lehenbizirik harria emazteki huni. Hitz hautarik lekhora, Salbatzaillea eman zen berriz iskribatzen lurraren gainean.

Skribak eta farisauak berak begiratu ziren galderik gehiago egitetik. Ikhusten zuketeien Salbatzailleak lurraren gainean iskribatzen zituen hitz sailduak hekin ahalkeria eta kondemnamendua zakhartetela: kontzien-tziak ere ez ahal zioten bake handirik utzten; urrundu ziren, ixil-ixilla, Jesus ganik, eta Jesus bakharrik gelditu zen lekhu hartan emazteki harekin. Erran zion: non dire zure akusatzaileak? Bada batere kondemnatu zaituenik? Ez, Jauna, ihardetsi zuen emazte hark, nihork ez nau kondemnatu. Jesusek ikhusirik bere bekhatuaz zuen urriki mina, erran zion: etzaitut bada nik ere kondemnatuko. Zohazi, eta ez egin gehiago gaixkirik.

Deusere halakorik bekhatore bat bere baitan sar-arazteketotzat nola eztitasuna. Salbatzailleak barkhatzeko izan zuen ontasanak hobeki irabazi bide zuen emazte haren bihotza, ezen ez eginen baitzuen legeak manatzen zuen dorphetasunak. Ala berthute maitagarri bat baida eztitasun giriztinozkoa! Ematzen ohi ditu izpiriturik bihurrienak, hautsten bihotzik



gogorrenak, eta eskuratzen humorerik moldegaitzenak. Enganio handi bat da uste izatea bortiztasuna ahal dela erremediorik hoberena; suak baino zauri gehiago sendatzen bide du olioak. Nondik heldu da haurrak gaixtakeria beretan bizi baidire? Bizioak ez baidire sehietan gutitzen, aitzitik emendatuz baidohaz? Huna arrazoina. Burasoak eta nausi etxeko-Andreak edo, ez dire aski erneak bere umeen eta sehien gainean, edo bortitzkiegi eta minkiegi agertzen dire hekin alderat; erakharri nahi dituztenean bere egin bidetarat, ager beitez eztitasun eta arraitasun gehiagoeekin, eta irabaziren dituzte heien bihotzak.

XXVIII. KAPITULUA

Jesusek bihurtzen dio bista

sortzez itsu zen bati

Yaun-doni Yaun. 9.

Jesusek begiratu zuen ondoan emazte bekhatorea harrikatua izatetik, predikatu zituen salbamenduko egia handiak haren maiestate adoragarriari zagokon zuhurtzia miragarriarekin. Yuduek hartu izan zuten begietan; hari yazarri nahiak ziren; harrikatzerat ere zaramaten baldin ez balitz berehala athera tenplutik. Jesusek bathu zuen, bidean zohala, gizon bat sortzetik itsua zena. Bere dizipuluek galdetu zioten hea gizon hura bere bekhatuengatik, ala bere burasoeneengatik sorthu zen itsu. Jesusek ihardetsi zioten haren loria eta botherea seinalaraztekotzat zela itsutasun hura. Ni naiz, zioen, munduan naizeino, munduaren argia. Aski da begiak idekitzea, eta ene obrak ikhustea nor naizen yakitekotzat. Baltsatu zuen bere aho-gozoa lur guti batekin, hartaz gantzutu zituen itsuaren begiak, eta erran zion: zohazi, garbi zaite Siloeko pizinan, edo urean. Ur hartarat zen itsua, han garbitu zen, eta ardietsi zuen bista.

Mirakuillu hunek egin zuen haro. Itsu hura amoina eske egoten ohi zen tenpluko athean, beraz hainitzez zen ezagutua. Nihork ezin sinhets zezakeien lehen ikhusten zuten itsu hura zela, ordean bera etzen baratzen erratetik mundu guziari: leheneko hura bera naiz, ez duzue zeren egin hortan dudarik gutiena: zioen oraino, altxaturik boza, Jesus zaritzon gizonak bihurtu zioela bista, eta nola hartu zen hortakotzat. Farisauak laster yakin zuten zer iragaten zen. Erakharri zuten itsu argitu hura beregan: galdegin ziotzoten xehetasun guziak. Larunbata gerthatu zen Jesusek mirakuillu hura egin zuen eguna; eta horra zerk erran-arazi zioten farisau batzuei larunbata begirutzen etzuena ezin zitekeiela Jainkoak egorria; bertze batzuek berriz, ezin eman ziozoketen bere buruei gizon gaixto batek egin ahal zezakela halako gauza espantigarririk: beraz nor bere gisa, mintzo zen gerthakari handi hartaz. Galdetu zioten itsu argitu berriari zer zioen bista eman zioenaz: ihardetsi zuen: nitaz bezanbatean, uste dut gizon hura saindu handi bat dela, Jainkoak egorria dela, eta profeta dela.

Farisauak gaitzetsi zuten itsu argituaren solasa: etzuten sihetsterik eman haren erranetan; erakharri zituzten haren burasoak, eta erran zaroen: hau da zuen seme itsu sorthu dela diozuen hura? Nondi heldu da bada orai ikhusten baidu? Buraso hek farisauen beldur ziren: bazakiten khen-du gogo zituztela tenplutik Jesus ezaguturen zutenak Salbatzailletzat. Ihardetsi zuten hitz labur eta zuhur hautaz: guk dakigun guzia da, gizon



hori gure semea dela, eta sortzez, itsua zela. Ez dakigu ordean nondik heldu den orai ikhusten baidu, ez eta nor den begiak ideki diotzana. Galde diozozue berari: badu adinik aski; mintza bedi. Yduek galdetu zioten, bigarren aldian, itsu izanari gauzaren argitasuna, erraten ziotela: mintza hadi gerizerik gabe. Bazakiagu hire gizona bekhatore bat, eta gizon gaixto bat dela. Bertzeak ihardetsi zuen: nik ez dakit gaixtoa denez; bainan badakit itsua nintzela, eta orai ikhusten dudala. Galdegin zioten, egundaino bezala, nola bihurtu zion bista. Itsu ohiak ihardetsi zioten: zertako egi ten duzue bethi galde bera? Bazindukete haren dizipulu izateko gutiziarik? Horren gainean yduek erran zioten: Moisen dizipuluak gaituk. Bazakiagu Jainkoa Moisi mintzatu izan zaiola; ordean, gizon hortaz bezanbatean, etzakiagu nor den, ez eta nondik atheratzen den. Ihardetsi zuen itsu argituak: hauxe da gauza miretstekoa! Ez dakizue nor den gizon hura, eta nondik atheratzen den: hura bera da bizkitartean ene begiak ideki ditue na, eta bista eman darotana. Mundua mundu deino, ez ahal du nihork entzun izan dela bat bista bihurtu dioena itsu sorthuari. Nere sendatzeko gai izan denak etzuen eginen egin duen bezalako mirakuillurik, Jainkoaz egorria ez izaterat.

Farisauek ezin onetsi zuten gure itsu argituaren mintzoa. Arbuatu zuten eta khendu tenplutik hain zuhurki mintzo zena. Jesusek bathu zuen bidearen gainean, eta erran zion: sinhetsten duzu Jainkoaren semea baitan? Nor da, Jauna (ihardetsi zuen bertzeak) aiphatzen duzun Jainkoaren seme hura, ene sinhetstea haren baitan ematekotzat? Jesusek erran zioen : ikhusi izan duzu Jainkoaren semea, eta hura bera da orai mintzo zaitzuna. Ordu hartan gizon hura abiatu zen oihuz erraten: bai, Jauna, sinhetsten dut. Eman zen, ahuspez, Jesusen oinetan, eta adoratu zuen bere Salbatzaillea bezala.

Ala dohatsu izan baitzen gure itsua ezagutzeaz egiazko argia! Zer khar etzuen erakutsi bere Salbatzaillearen lorifikatzeko? Nolako humiltasunarekin etzuen adoratu Jesus maitea! Legeko doktorek, bere yakintasan guziaren erdian, amor eman behar izan zioten argitu berriaren zuhurtzia miragarriari. Alferretan arbuatu, eta khendu zuten bere baltsatik mirakuilluz sendatu zen gizon hura; etzuten hargatik gutiago edireten bere ahalkeria haren sentimendu laudagarritan. Aithortu behar da lanhoa eta humilla den fedea yakintasan supherra baino argituagoa dela. Izan dezagun, guk ere, Jainkoaren araberako fedea: maita dezagun gure Salbatzaille adoragarria gure egiazko aita, eta gure guzia bezala; ordutik gaiten seguratuak mundu huntan zer nahi arbuio eta laido yasanik ere, ohorez eta loriaz estaliak izanen garaela eternitate guzian.

XXIX. KAPITULUA

Martha eta Maria

S. Luc. 10.

Jesu-Kristo, Bethaniako herritarik iragatean, sarthu izan zen Martha bizi zen etxean. Martha zen Mariaren eta Lazaraen haurridea. Jesu-Kristok ohoratzen zituen bi anaia arreba hauk bere estimuaz eta amudioaz. Begitarte hainitz egin zitzaion etxe hartan. Martha guzia khexatua zabillan yatekoen aphaintzen, eta Maria deskantsu zagoen Salbatzaillearen oinetan entzuten haren hitz sainduak. Marthak egin ziotzon Mariaz errenkurak Salbatzailleari; othoitztu ere zuen mana ziozon haren laguntzeaz orduko lanetan. Urrun da nausi dibinoak gaitzetsi baitzuen Mariaren deskantsua, eta haren entzuteko zuen lehia handia, aitzitik laudatu zuen hartan, erraterainokoan haren aizpari: Martha, Martha, deus gutik asaldarazten zaitu horrela: ez da zeren egin errenkurarik Mariaz. Hagitz ungi hartu da, eta erakutsi duen zuhurtziak izanen du bere gollardoa. Salbatzailleak etzuen aurkhitzen erratekorik, berak eta haren dizipuluek Martha ganik izan zuten begitarte arraiaz; bakharrik kondenmatzen zuen sobraniazko khexaguneak sor-arazten duen asaldura. Irakhatsten zuen munduko lanik laudagarrienak berak deusere ez direla salbamenduko egitekoaren aldean, eta gauza guzien gainetik behar dugula bilhatu gure behin-bethiko zoriona.

Farisauak erasian zauden bere artean zeren Jesus yarri zen mahainean eskuak garbitu gabe. Salbatzailleak ikhusirik zer iragaten zen hekin bihotzetan, mintzatu zitzaian zuten hipokrisiaz, eta erakutsten zuten bere gisako prestutasunaz. Zuek, farisauak, erran zioten, uste duzue behar den guzia dela garbi agertzea kanpotik. Hortan zatzate batere lotsatu gabe bekhateuk zuen arimatarat dakhartzeten likhitskeriez. Zuen bihotzak ekharriak dire ebatskorat eta gaixtakeria guzietarat; ordean eskuak garbi baditutzue, deskantsu bizi zarete. Zer? Ez dakizue bada Jainkoa inozentziari eta barneko garbitasunari darraikola. Bihotza lohi denean, kanpoko garbitasuna sepultura xuritu baten pare dela? Guzietan zuen obra onez mintzo zarete: espanturekin aiphatzen tutzue zuen barurak, zuen amoinak, zuen itxurazko prestutasuna! O! hipokritak, zer irabazten duzue bada berthutearen axal horrekin? Gehienerat, gizonen estimua: horra zuen sari guzia; eta gauza horren aphurraentzat galtzen duzue zeruko erresuma.

Zorigaitzez zuentzat, erraten zioten oraino farisauai Salbatzailleak, leihalki bethetzeaz eginbide xumeak hautsten baduzue Jainkoaren legea



eginbide handiagotan, ez balin baduzue lagunena alderako zuzentasunik, ez eta Jainkoaren ganako amudiorik. Bethe behar dire, hala da, eginbide xumeak, ordean handiek ere galdetzen dute gure leihaltasun guzia.

Zorigaitz zuentzat utzteaz zuen kontzientziak ez deuskeriez asaldatzerat, deskantsuki egiten dituztuen denboran bekhatuak izigarrienak. Badire gizon batzue ulitxen iretsteaz ikharatzen direnak, hurren herabe ez diren denboran kamelu baten iretsterat; zuek ere hetarik dirurizue. Lehenbiziko urhatsaren ondoan zabilzate, mundu guziak agur egin diezazuen nahi duzue; eta ordukotz zuen othoitz luzean itxuran, yazartzen diozue alhargunari eta ume-xurtxari, eta erortzen zarete gaixtakeria guzietan.

Legeko doktorek beretzat hartu zituzten Salbatzaillearen hitz sainduak. Damustatuak izan ziren. Hetarik batek erran zion biphilki Jesusi: azkenaz-goiti desohoratzen gaitutzu gu ere horrela mintzatzeaz. Jesusek etzuen nihor guphidetsten; ihardetsi zion legeko doktor hari, urrikaltzeko zirela hura eta haren lagunak bertzei eman nahi izateaz uztarri dorphe bat berek erriaz ere ukitu nahi etzutena.

Ederrets dezagun Mariaren zuhurtzia yarraikitzean, guzien gainetik, salbamenduko egiteko handiari. Hura ahal da, bertze guzien artean, art-harik gehien galdetzen duena. Eta, egiaz, zer dire munduko itzuli, ohore eta ontasunak? Zer da gure bizia bera salbamenduko egitekoaren aldean? Edo behar gare behin bethiko dohatsu, edo, behin bethiko dohakabe: edo behar gare Jainkoaz, menderen-mende, gozatu zeruan, edo su lametan erre, damnatuen baltsan, eternitate guzian. Zer da mundu huntako bizi-terik nahikarazkoena eta dohatsuena? Amets bat berehala suntsitzen dena. Hillen gare beraz gutien ustean: ordean norako gare? Zerurat, ala ifernurat? Gogoeta lazgarria! Balinba zeruan nahi gare sarthu! Arren behar dugu maiteki ekharri izpiritutan salbamenduaren orhoitzapen zuhurra, eta finkatu gure bihotzetan haren ardiesteko lehia khartsuena.

XXX. KAPITULUA

**Jesu-Kristok erraten du funditua izaterat
zohala Jerusalemeko hiria,
eta mintzo da azken yudizioaz
Matth. 24.**

Jesu-Kristo tenplutik atheratzean, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak, eta erakharri nahi izan zuten begiak artikitzerat tenplu haren edertasunaren gainerat; ordean Salbatzailleak erran zioten bihotz minekin: ikhusten tutzue horiek guziak? Bada, egiaz mintzo natzaitzue, ez da geldituren harria harriaren gainean; ez, ez da harri bakhar bat tenplu hortan lurrerako ez denik. Jesu-Kristoren errana izan zen konplutua erromarrak Jerusalemek yabetu ziren ordu beretik: erran nahi da, Salbatzaillea hil zenetik berrogoi urtheen buruan.

Dizipuluek galdegin zioten bere nausi adoragarriari, noiz ikhusiko ziren aiphaturik heldu zen gauza espantigarriak, zertarik ezagutu beharko zen haren ethortzea mundurat, eta noiz izanen zen mendeen akhabantza. Jesus mintzatu zitzaien laburzki azken yudizioaren aitzinean ikhusi beharko ziren gauza ikharagarriez. Erran zioten mendeen akhabantza gerthaturen zela Jainkoak egundainotik hartakotz aldaratua zadukan egunean. Orduan kreatura guziak altxaturen zirela galdetzekotzat kreatzaillearen bothereaz eta ontasunaz probetxatu etzireneen punimendua. Orduan, zioen Jesusek, profeta faltsoek eginen tuzte munduan eginahalak hautesien ere gal-araztekotzat. Ez da, alde guzietarik ikhusiko liskar eta gerlarik baizen; populuak emanen dire populuen kontra, bakea familiatarik desterratua izanen da. Biziek hillak iduriko dute; lurra arraiatzen eta idekiren da guzietan. Zerua sutan agerturen da, ez du gehiago izarniaturen. Ospin ihurtzuriak iharrosiren tuzte bazter guziak. Gizon guziak yarriren dire nigar eta marrasketan. Abereek eginen tuzte orrho diren izigarrienak. Horra zertarik ezagutuko duzuen azken yudizioa hor heldu dela. Orai ikhus ezazue nolakoa beharko den bat bederaren ikhara mundu guzia azpikoaz gora itzulia gerthaturen denean.

Dohatsu izanen dire (zioen oraino Salbatzailleak) ez dut erran nahi, handiak eta lurreko erregeak, bothereak ezin emanen diotenaz geroz laguntzarik den gutiena; bainan yustuak eta kontzientzia deskantsu izanen dutenak ikhusiko duten orduan gizonaren semea hedoi batean ethortzen bothere eta maiestate handirekin. Egun ikharagarri hartan gizon eta



emazteki guziak biztuko eta agertuko dire yuie adorarriaren aitzinerat izatekotzat yuiatuak eta entzutekotzat sententzia bat apellik gabekoa, gure eternitateko zoriona, edo zorigaitza eginen duena. Ene aita da bakharra (Jesus mintzo da bethi) dakiena noiz izanen den egun lastimagarri hura: aingeruek berek ez dute egun haren ezagutzarik. Zuetaz bezanbatean, etzaitzela eman muga hura yakin nahizko grinan; bainan hartarat prepara zaitezte zuen obra onez, eta bizitze sainduaz. Yuie soberanoak ethorri behar zuenaz geroz adi-arazi gabe zein egunez eta orenez, egin behar zutela familiako aita batek bezala zeina erne bailagoke balaki zer mugaz, edo zein gauzez ethorri gogo duen ohoinek haren etxerat. Jesusek gomen-datu zioten bere dizipuluei leihalki bethetzeaz bere eginbideak, erraten ziotelarik etzutela zeren iguriki esker onik gizonetarik, aitzirik bereganaturen zutela heien arbuioa; ordean zerbitzatuko zuten Jainko handia bera izanen zela hekin gollardoa. Azkenean, Salbatzailleak erran zioten bere dizipuluei: balin bada nihor zuen baltsan, ukho egiten ez diotenik bere buruari, eta dituen guziei, haina ezin izanen da ene dizipulu; erraten balu bezala; alferretan nihor nahiko zait yarraiki, non ez duen lehenik bihotza garbitzen munduaren alderako yaidura gaixto guzietarik, eta salbameduari gibelamendu ekhar diozoketen gauza guzietarik.

Salbatzailleak, ikhusi dugun bezala, erran zioten bere dizipuluei azken yudizioa ustekaberik ethorriko zela. Gauza bera erran dezakegu gure heriotzeaz. Ez dakigu noiz hillen garen, ez non, ez nola, laster ala berant; guk dakiguna da ez dela urhats bat baizik bizitik heriotzerat; ez da bat uste ez duenik bizi bederen biharamuneraino, eta zenbatak biharamun hura ikhusiten ez dutenak, bet-betan dohazenak mundu huntarik! Eta zer estatutan! Halarik ere, bizi-gare behinere hil behar ez bagine bezala, edo heriotzeko orena gure eskuko bagindu bezala. O! itsumendu auhendagarria.

XXXI. KAPITULUA

Aberats gaixtoa

Luc. 16.

Jesu-Kristok irakhatsten daroku arbuaitzen aberatstasunak. Huna hortakotzat ekhartzen duen exenplu bat ikharatu behar gaituena. Mintzo da bi gizonez, eta dio hetarik bat hagitz aberatsa zela, guzia bere buruaz hartua, atseginetarar emana, ederki yauntzia; eta mahain ona zadukana; ordean ondikoz! gogorra pobreen alderat. Bigarren gizona zen, dio Jesu-Kristok, zauriz guzia maldatua, aberats haren athean zatzana, eta haren mahainetik erortzen ziren ogi paphurren eske zagona: dohatsu oraino izan balu laguntza xume hura hagoan bizitzekotzat: ordean dena ere ez zitzaion ematen. Etzen aberatsaren etxean atseginik eta dostatzerik bai-zen; nausi bihotz gogor haren zakhurrek urrikalmendu gehiago agertu zuten pobrearen alderat; ezen noizetik-noizerat limikatzen zituzten haren zauriak.

Horra bi gizon elkhar guti iduriak, bata, munduaren arabera, dohatsu bizi zena, eta bertzea urrikaltzeko zena. Ordean ederrets dezagun Jau-naren probidentzia saindua, eta haren zuhurtzia miragarria gerthakari guzietan. Pobre hura hil zenean gosez eta miseriaz, haren heriotzea preziatua aurkhitu zen Jainkoaren begietan: aingeruek eraman zuten haren arima bakearen eta bozkario guzien ithurburu dohatsu baterat. Aberatsa ere hil izan zen handik laster. Ala bertzelakoa izan baitzen haren heriotzea! Pobrearena zorionezkoa bezain ondikozkoa gerthatu zen harena. Aberatsaren gorputz guriki haziak harrak bazkatzen zituen denbora berean, haren arima dohakabea erretzen hari zen su lametan. Aberatsak ikhusi zuen, gogoz, Lazara, Abraham Patriarkaren aldean, deskantsu handi batean, eta gozatzen zela orduan arima yustuak mundu huntarik lekhora, gozatzen ziren dohatsutasun guziaz.

Aberatsaren bihotz-mina eta desesperamendua emendatu baizik etziren ikhustez Abraham eta Lazara nahikara guzien erdian, eta bere burua tormenta izigarritan phulunpatua. Abiatu zitzaion Abrahami, nigar eta marrasketan, othoitz humil hunen egiten: aita Abraham, duzun nitaz urrikalmendu sutan natza. Egor diezadazu Lazara, guzti beza bere erria urean, eta artik beza xorta bat ene mihiaren gainerat. Balinba izan araziren diozu laguntza xume hau alde guzietarik erretzen hari den dohakabe bati! Urrun da Abraham erori baitzen Lazaraen othoitzetarar; aitzitik min-



tzatu zitaion hitz min hautaz: ene semea, orrhoit zaite atseginpean eraman duzula zure bizi guzia, eta Lazarak bizitze triste eta nekhatu bat eraman duela. Orai bertzela dire gauzak, haren aldia da bozkariatzeko, eta zurea pairatzeko: ez duzu zeren iguriki arinduren darozkitzula zure tormentak; ezin ere egin dezake. Hulako moldez gare elkhar ganik hastanduak, non nihor ezin baidohake hemendik zu zaren lekhurat, ez eta ethor hortik huna.

Bederen erran zion Abrahami aberratsak, hel-araz ezazu (errekeritzen zaitut), Lazara ene aitaren etxerat, ene bortz anaiei erraterat zer herturretan edireten naizen, hek ere ez ditezentzat ethor enekin batean su huntan erretzerat. Abrahamek ihardetsi zion: eskutan dituzte Moisen eta Profeten liburuak; ez dute bertze deuseren beharrik: aski dute egitea nausi hek irakhatsten diotzotenak: entzun betzate, eta salbatuko dire. Ez, aita Abraham (zioen oraino aberats gaixtoak) ez da aski zuk diozuna egitea. Hel baledi hillen artetik norbait ene haurridetarat, eta erran baliozate zer zorigaitz dagon hekiენტzat, dudarik batere gabe, yar litezke ikharan, eta egin lezakete peitentzia. Enganioan zara (ihardetsi zion Abrahamek) Moise eta Profetak entzun nahi ez dituztenek ez lukete sinhetste gehiago hil biztu baten erranetan.

Nor dagoke lastu eta ikharatu gabe orhoitzean badela ifernu bat; erran nahi da, su bat Jainkoak bere aserradura sainduan, eta bere bothere guziaren hedadura biztu izan duena bekhatoreari yazarteko, eta haren punitzeko! Ala urrikaltzeko baida arima damnatua! Suzko itsaso ondorik gabeko hartan datza phulunpatua: sua dario alde guzietarik, eta haren tormentak oraino gehiago emendatzen dituena da yakitea baliatu behar bidean Jainkoak zeruratzekotzat eman zion denboraz, iragan duela denbora preziatu hura bere Salbatzaillearen ofentsatzen, eta bere burua behin bethikotzat galtzen.

Non zen, erranen du arima damnatuak, non zen ene adimendua? Non zen ene buruari zor nioen, eta ekharri behar nion amudio zuhurra? Sinhetsten nuen bazela ifernu bat, bekhatu mortal bakhar bat aski zela harat kondemnatua izatekotzat; eta atsegin iragankhor, eta ohore zoro batzuen ondoan ibilli naiz bada! Jaunaren graziari, kontzientziako boz ixillari, abisu eta exenplu salbagarriei; hitz batez, ukho egin diotet bada zerurat hel-araz nintzaketeien laguntza guziei!

Erre behar izatea ifernuko zolan munduan oren iragaten den bezanbat mendeez, hainitz laite, eta iraupen hunek baluke zertaz yar-araz bat bedera ikhara handiengan: zer izanen da bada erre beharko denean su lametan itsasoan ur xorta, udan, haritzetan hosto, eta lurren hare izpi

bezanbat milla million mendez! Zer diot? Zer dire hauk guziak eternitatearen aldean? Deusere. Urtheak, millionka, iraganen diren buruan, egundaino bezala, hasi beharko da berriz erretzen.

O! zuek egia erdiragarri hauk irakurtzen eta entzuten dituzuenak, sarthuko ahal zarete zuen baitan; urrunduko ahal zarete ifernurat daraman bide gaixtotik; altxaturen ahal ditutzue zuen bihotz eroriak Jainko maitea gana, gozatzekotzat, eternitate guzian, arima hautetsientzat aldaratua den zeruko zorionaz.



XXXII. KAPITULUA

Nolakoa den Ebanyelioaren araberako pobreziaren gollardoa

Matth. 19.

Apostoluek ezagutu zuten Jesusen erranetarik dohatsu zirela besaratu baitzuten ebanyelioaren araberako pobrezia; horra zergatik Yaundoni Petrik galdegin zion bere eta bere apostolu laguneen izenean: nautia, ikhusten duzu guziez gabetu garela nahiz zuri yarraiki, eta bizi zure abisu zuhur eta exenpluen arabera. Ordean zer behar dugu iguriki gollardotzat?

Zuen saria (ihardetsi zuen Jesusek) handia, eta iguriki ahal dezakezuen baino handiagoa izanen da. Behinik-behin, eginen dut lurreko nazione guziez eliza bat; eta hark eginen du ene populua eta ene primuza; Israelgo hamabi tribuek orai arteraino egin izan duten bezala, eta zuek izanen zarete nazione hek guzien yuiatzailleak. Hil guziak biztuko diren egun handi hartan, ikhusiren da orai zuen idurikoa zaitzuen gizon hura maiestatz gaindi egina, bere loriaren tronuan yarria, eta ekhartzen duela bat-bederaren behin bethiko zorionaren, edo zorigaitzaren sententzia.

Yuiamendu lazgarri hura emanen denean, izanen dire zuentzat yarlekhuak zeruan. Yarraiki izan zaizkidate, ene lehenbiziko ministro izan zarete, zuzen da beraz izan zaitezten ene aldean yarriak nik bezala zuek ere kondemna detzatzuentzat zuen hitzak entzun nahi izan ez dituztenak, eta bere buruen galtzerat hari izan direnak.

Zuen gollardoa ez datza bakharririk erranik heldu naizenetan. Ez duzue, zuen pobrezia guziaren erdian, deuseen eskasik izanen mundu huntan berean. Ene hitzean aurkhituko naute bere ontasunak eta bere ahaideak utziko dituztenek ene ohoretan, eta heltzekotzat ebanyelioak manatzen duen perfekzionerat. Bai (Jesu-Kristo mintzo da bethi) saristaturen ditut mundu huntarik beretik bere etxeak, edo bere anaiak, edo bere burasoak, edo bere emazteak, edo bere umeak, edo bere lurrak utzirik, niri yarraikiren zaizkidanak. Halakoei emanen diotet utzi duketen baino ehunetan ontasun gehiago. Emanen diotet oraino nahi bezanbat laguntza aitzinatzekotzat berthutean; berriz izpirituko eta bihotzeko bake gozo bat haragiak, odolak, mundu guziak ere eramanez ez diotena; aitzitik bethi berekin izanen dute bake maitagarri hura bere pobrezia dohatsuan, zeinak itzultzen baiditu atsekabea atseginetar, eta bidegabea irabazitarat.

Gauza guziei ukho eginen diotenek niri yarraikitzekotzat iguriki behar dute (dio oraino Jesu-Kristok) bertze fagore bat infinituki prezia-tua: hillen dire sainduen heriotzeaz, eta bizitze labur, eta lazeriez betha den huntarik lekhora, ardietsiren dute behin bethiko dohatsutasuna.

Deusere zuzenagorik nola nork bere ahaideen maitatzea. Jainkoak manatzen ere daroku hala egiteaz; ordean erraten daroku, denbora berean, ukho egiten ez dioenak haragiari, odolari eta bere buruari, bakharririk hari yarraikitze, ez duela zeren uste izan haren dizipulu dela. Deusere hitz hauk baino klaragorik; ordean nola onhetsten ditugu? Salbatzaillearen nahiaren eta manuren arabera bizi othe gara! Ez da egia, askotan ekharriagoak garela, gure kontzientziaren bidegabeta bada ere, yarraikitzerat ahaidei, adiskidei, hitz batez, munduari ezen ez gure Salbatzaille adoragarriari? Othe dugu bada martirek etzuten ebanyelio bat, hek ezagutzen etzuten bertze bide bat zerurat heltzekotzat! Ez, ez, lege bera dugu, bethetzeko, bide bera jartzeko; beraz nauti beraren dizipulu izatekotzat, hek bezala utzi behar dugu, bihotzez, mundua, eta bilhatu, gauza guzien gainetik, gure salbamendua.



XXXIII. KAPITULUA

Bere langilleak pagatzen dituen famiako aitaren parabola

Matth. 19.

Jesu-Kristok kondenatu zuenean ontasunen alderako yaidura sobraniazkoa, eta altxatu bihotzeko pobrezia, erran izan zuen, hainitzak dire lehenak direneen artean azken izanen direnak, eta azken direneen artean hainitzak dire orobat lehenbiziko gerthaturen direnak. Sententzia laburra; ordean hainitz zakharkena: irakhatsten zuen ilhunbean bizi diren, eta munduaz arbuiauak diren arima Jainkotiarrak izanen direla, egun batez, zeruan ohoratuak, eta loriaz estaliak.

Jainkoak erraten daroku haren zerbitzuan denbora luzia daramatenak ez direla bethi gehiago altxatuak zeruan arte laburrez zerbitzatzen duketenak baino. Bihotzaren ondoan dabilha. Arraikiago behatzen dio haren ganat berriro, ordean zin-zinez itzultzen denari, ezen ez aspaldion, ordean khar gutirekin yarraikitzen zaion arimari. Maitatua denaren eredura, du saristatzen. Ematen du egia hau argi zabalerat konparazione huntuaz: emozue (dio Jesu-Kristok) zuen izpirituari ikhusten duzuela famiako aita bat bere etxetik atheratzen argitu orduko mahatstizainketarat, eta aurkhitzen dituela. Agintzen dio hetarik bakotxari eguneko kornadu bat diru, eta egortzen ditu bere mahatstirat. Beldurrez etzuen langillerik aski, eta nahiz gehiago, badoha hameka orenetako mugan lehenbizikoak bathu zituen lekhu bererat; han aurkitzen ditu zenbeit alfer zaudenak. Erraten diote: zertako daramazue egun osoa alferrerian? Iherdetsi zioten: nihork ez gaitu galdegin lanerat. Horren gainean, nausiak erran zioten: nik emanen darotzuet lana, zohazte ene mahatstirat, eta izanen duzue zuen sari ona.

Langille hek etziren guziak orobat nekhatu: ikhusia den bezala, batzu bertzeak baino gehiago egin behar izan ziren, halarik ere sari bera izan zen guzientzat. Sarthu zenean iguzkia, famiako aita manatu zioen haren ontasuneen artha zadukanari bil arazteaz langilleak, eta hei emateaz irabazi zutena, hasirik azken ethorritarik manu hau konplitua izan zen. Hurbildu ziren berantenik ethorriak, eta izan zuten kornadu bana: lenenbizi ethorriek sari hobea igurikitzen zuten, abiatu zirelakotzat lanean argitu orduko: errenkuratu ziren famiako aitz ez gehiago saristatzeaz hekin lana. Etziren baratzen bere artean erastetik. Hetarik bat mintzatu zitzaion

nabarbenki, bere eta bere lagunen izenean, famiako aitari, erraten zioela: gutaz noizbait ethorri dire gizon hau lanerat, oren bat eman dukete lanean, eta oraino, arratseko freskuran, eta gu nekhatu izan gara, egin oso batez:gehiago dena, iguzkiaren minenean; bada zer ikhusi heien lanetik gurerat; bizkitartean ematen diozute guri bezanbat. Non da adimendua? Non da zuzentasuna?

Famiako aita ihardetsi zion langille nabarben hari: ene adiskidea, ez darotzut egiten bidegaberik. Ematen zaitzu zor zaitzun eguneko irabazia; ez da egia ez darotzudala gehiagorik agindu? Har ezazu beraz zor zaitzuna, eta bihur zaite zure etxerat. Baldin eman nahi badiot zuri bezanbat azkenik ethorriari, egiten darotzut hortan bidegaberik? Ez dut ene ontasuna neure eskuko? Ez naiz bada nausi hartaz nahi dudana egiteko-tzat? Bekaxtu behar zaizko bada zure lagunaren onari zehorrek kalterik ez duzun denboran?

Ez ahal da estatu kaltekhorrakorik salbamendukotzat nola ephelatsuna. Arima ephelak ihes eginen dio, nahi dut, bekhatu mortalari. Ordean ala errexki erortzen baida mortalak etzaizkon gaixkitan! Haren othoitzak, meza entzuteak, kofesio, komunioneak barneko gozotasunik gabe, kharrik eta fruiturik gabe gerthatzen dire. Arima ephelak ez du berthutean aitzinatzeo lehiarik. Aski zaio huts handitan ez erortzea. Gaitzetsten ohi ditu presuna Jainkotiarrak aurkhitzen duelakotzat bere ahalkeria, eta kondenamendua halakoen bizitze saindu eta exenplu ederretan, lakhetago du bera bezalakoeikin, diot, giriztino bere Salbatzaillea erdizka baizik maite ez dutenekin.

Arima ephelak ez du hurren ezagutzen bere hirrisku ikharagarria; nola beraz atherako da handik? Ez du luzero begiratzen bekhatuen alde-rako higuntza zuhurra: emeki-emeki, galtzen ohi du kontzientziaren minberatasuna; hastean, haren barnea asaldatzen zuen gaixkiak ez du gehi-go kantitzen ere. Uzten ditu nausitzerat bere bihotzean yelosia, orguilleria eta lagunaren alderako hotzatasuna. Behatzen dio Jesu-Kristoren uzta-rriri arin eta eztiari uzta-rriri pisu eta dorphe bati bezala: zer gerthatzen da azkenean? Arima ephela largatzen da zer nahi gaixakerietarat. Munduan bekhatoretzat ezagutua dena baino areagoa da arima ephela; eta horra zerk erran-arazten dioen Jesu-Kristori hobe dela osoki hotza izatea haren zerbitzuan ezen ez ephela. Bai, bekhatore handi bat lasterrago itzuliren da Jainkoa ganat arima ephel bat baino. Ikhusten dire askotan gaixtagin handienak bere baitan sartzen, penitentzia egiten; ordean giriztino ephel hainitz ikhusten othe dugu finki eta khartsuki lothzen bere salbamenduari.



XXXIV. KAPITULUA

Jesus badoha Yerusalemerat ixillik bezala, eta agertzen da tenpluan

Joan c. 7.

Jesus yoantzen Galileatik Yerusalemerat: etzuen nihor berekin eram hiri hartarat. Haren ospea hedatua zen inguru hetarat: mundu guziaz hartaz mintzo zen. Abiatu ziren haren ondoan; ordean ezin aurkhitu zuten. Guziak etziren orobat mintzo Salbatzailleaz: batzuek haren alde ziren, laudatzen zuten, saindutat ere zadukaten: bertze batzuek zadukaten gaixtagin eta munduaren enganatzailletzat; hartaz gaixki mintzo zirenek bere artean zituzten bere solasak; etziren ausartatzen ageriki gaixkirik erraterat yuduen beldur zirelakotzat. Jesus sarthu izan zen laster tenpluan, eta beregana zuen guzien admirazionea, azkenaz-goiti bere etsaiena ere: batak bertzeari galdetzen zion espanturekin: gizon hori nola egin othe da bada horren yakina egundaino nausirik izan gabe?

Jesusek erran zioten zuhurtzia handirekin predikatzen zioten doktrina etzela harena; bainan haren aitarena, hark egorria zela doktrina hura hei irakhatsterat; bere baitarik mintzo denak, eta ez, eman izan zaizkon argien arabera, bakharrik bere burua bilhatzen duela; ordean bere nausiarren ohoratzeko, eta haren izenean predikatzen duena egiaz mintzo dela, eta gauza guzietan zuzentasuna bilhatzen duela.

Ez dut miresten (zioen Jesusek) ez balin bazarete predikatzen darozkitzuedan egien arabera bizi, ez duzuenaz geroz begiratu Moisen, erran nahi da, zuen buruzagitzat ezagutzen zindutenaren legea. Urrun da begiratu baiduzue lege zuhur hura, aitzitik hark debekatzen darotzuena egiten duzue. Manatzen darotzue inozenten alde yartzeaz, eta zuek, hekin alde yarri behar bidean, yazarri nahi diozue. Konprenitzen bide duzue zer erran nahi dudan; ikhusten duzue beraz zuen barneko xede gaixtoaz mintzo naizela. Ez naiz deusetaz hobendun, ez duzue nitaz erratekorik; halarik ere, ni hil-arazi nahiz zabiltzate. Zer egin darotzuet bada? Zergatik eram nahi darotazue bizia? Funtsean, badakit zerk ematen zaituzten hortan: gabetu nahi nauzue bizi, zeren egin izan dudan zuen begietan gauza bat legeak, zuen arabera, debekatzen zuena: sendatu izan dut paralitiko bat, manatu izan diot ibiltzeaz, bere ohea hartzeaz, eta berekin etxerat eramateaz; eta hauk guziak larunbat egun-kara egin izan ditut.

Jesusek erran zioten bere etsaiei asko gauza irakhatstekotzat etzuela behintzat egin gaixkirik den gutiena paralitiko hura larunbatarekin sendatzeaz, aitzitik obra on bat egin zuela. Gauza bat dut (zioen oraino Jesusek) zuei gomendatzeko: norbait yuiatu nahi duzuenean, ez beha presunari, bainan bakharririk arrazoinari eta zuzentasunari. Hunela egiten baduzue, zer nahi desgustu eta urruntasun dukezuen nor baiten alderat, ez duzue kondemnatuko haren akziona non ez den berenez kondemnagarria.

Jesusek predikatu izan zituen milla gauza eder eta miragarri, aski behar zirenak haren saindutasuna eta Jainkotasuna ezagut-arazteko. Urrun da ordean suntsi arazi baitzituen haren biziari nahi zioteneen izpiritutako ilhunbeak, eta eskuratu baitzituen hekin bihotzak; yarri ziren egundaino baino herra eta errabia handiagotan: etzuten bertze gogorik baizik nola harturen ziren hartaz yabetzeko. Ordu hartan Jesus sobera ungi zen begiratu eskurik ezartzekotzat haren gainerat. Etzen nihor atrebitu haren hartzerat: etzen alabainan oraino ethorria berak bere burua etsaieen eskutarat largatu nahiko zuen muga. Hargatik, populuak atseginekin entzuten zuen Salbatzaillea bere predikutan. Izan ere zenbait bere sinhetstea haren baitan eman zutenak, ziotelarik bere artean: uste duzue bada Mesias ethorriko denean gizon hunek baino mirakuillu gehiago eginen duela?

Yuduek ikhusten zituzten Salbatzailleak hekien begietan obratzen zituen mirakuillu handiak, halarik ere etzuten ezagutzen bere erregetzat, bere yabetzat igurikitzen zuten Mesiasztat. Itsumendu auhendagarria! Giriztinoek berek nola ezagutzen dute bere Salbatzaillea adoragarria? Haren ezagutzea othe da bada haren manu sainduen hautstea? Aita amultsu hura maitatu behar bidean, hotztasunik baizen haren alderat ez agertzea? Munduaren iduriz, prestuki bizi direnek berek behar den bezala ezagutzen othe dute Jesus maitea? Merezi othe dute haren dizipuluen izena ekhartzea? Orrhoit gaiten Salbatzailleak zer egin duen gure fagoretan, eta has gaiten haren hobeki ezagutzen eta khartsukiago maitatzen.



XXXV. KAPITULUA

Jesu-Kristok bitz-arazten du Lazara

Yaun. 2.

Jesusek obratu zituen mirakuillu guzietarik harrabots gehien egin zuena, erran daite Lazaraen biztea ahal zela.

Lazara zen gizon bat yudeuk ohoratzen zutena; Bethania deithua zen, eta Yudeatik hurbil zen herri batean bizi zen bere arreba Martha eta Mariarekin. Jesusek izan zuen behin baino gehiagotan hainitz begitarte Lazaraen etxean; arraitasunekin behatzen zion familia saindu hari. Lazara erori izan zen eritasun handi batean, haren arraebak lehiatu ziren egor-tzerat mandatari bat Jesus ganat, erraterat eritu zela hark maite zuena. Salbatzailleak berri hau entzun zuenean, ihardetsi zuen eritasun hura etzela heriotzerat zaramana, bainan zela ethorria Jainkoaren ohoratzeko eta Jainkoaren semea lorifikatzeko. Salbatzaillea etzen, bi egun hetan, bere lekhotik alderatu. Bi egun hek iragan zirenean, erran zioten bere dizipuluei: bihur zaitezte Yudearat. Dizipuluek ihardetsi zioten: zer? Nausia, ez du denbora guti baizik yudeuk harrikatu nahi zintuztela, eta nahi zara bada bihurtu zure biziari nahi dioten yendeen arterat? Jesusek irakhatsi zioten nihork ezin egin ziozokela gaixkirik non etzuen berak nahi. Ondoran, erran zioten: lo datza Lazara gure adiskidea. Banhoa haren irartzartzera. Jesusek loaren izena ematen zion Lazaraen heriotzeari, zeren hain errex baitzen harentzat hil baten biztea nola bizia den, eta lotan datzan gizon baten irartzartzea. Azkenean, erran zioten garbiki: hil da Lazara, eta atsegin dut zuengatik ez bainaiz han gerthatu, zuen fedea perfetagoa izan dadintzat.

Bazuen lau egun Lazara ehortzia zela Salbatzaillea Bethaniarat zenean. Nola lekhu hura hurbil baitzen Jerusalemetik, ethorri ziren hiri hartarik yendeak Martha eta Maria kontsolatzerat bere anaiaren heriotzeaz. Marthak entzun zueneko Jesus heldu zela, athera zitzaion bidera nigar eta marrasketan: erran zion: *Jauna, zu hemen izaterat, ene anaia etzen hillen; bainan badakit botheretsua zarela, eta horrek egiten du ene kontsolamendua.* Jesusek ihardetsi zion: zure anaia biztua da. Badakit, zioen Marthak, bizturen dela azken yudizioko egunean. Ni naiz (ihardetsi zuen Jesusek) biztea eta bizia bera, ene baitan sinhetstea duena biziren da, hilla balitz ere: eta nork ere baidu ene baitan bere sinhetstea, eta hura ez da bethikotzat hillen. Sinhetsten tutzu egia hauk? Marthak erran zuen: *bai, Jauna, sinhets-*

ten dut zu zarela Kristo, Jainko biziaren semea, mundurat ethorria. Martha, hitz hauk erran eta, yoantzen lehian Maria bere aizpa ganat, eta erran zion beharrirat: nausia ethoria da, zure galdea du. Maria altxatu zen berehala bere lekhotik, eta egin zuen bide Marthak Jesus bathu zuen tokirat; yarraiki zitzaizkon bere etxeko guziak ustez nigar egiterat zohan bere anaiaren hobiaren gainerat.

Mariak ikhusi zuenean Salbatzaillea, artiki zuen bere burua haren oinetarat, eta erran zion nigarrez: Jauna, zu hemen izaterat, ene anaia etzen hillen. Bi aizpa heien nigarrek eta han aurkhitzen ziren yuduenek ukitu zuten Salbatzaillea nigarrez abiatzerainokoan. Yudeuk hori ikhusi zutenean, erran zioten elkharri: zenbat maite zuen! Salbatzailleak yakin nahi izan zuen non ehortzi zuten Lazara. Erran zitzaionean non, yoantzen lekhu hartarat, eta altxarazi zuen hobiaren gaineko harri handia. Marthak erran zion: Jauna, badu lau egun ehortzia dela, beraz usaindua behar da. Salbatzailleak ihardetsi zion: ez darotzut nik erran sinhetstea duenak ikhusiren duela Jainkoa lorifikatua? Eman zen othoitzean, eta egin zuenean bere othoitza, erran zituen hitz hauk: Lazara altxa zaite hortik. Berehala hilla biztu eta altxatu zen han ziren guzien begietan, eta ehortzi zuten plantan; erran nahi da, eskuak eta zangoak estekatuak, eta bisaia oihal batez estalia. Nork egundaino ikhusi zuen halako gauza espantagarririk? Hartzeko ahal zen mirakuillu hartarik Jesu-Kristo Jainkoaren semea zela, eta igurikia zen Mesia hura bera!

Lazaraen bizteak irakhatsten daroku bekhatoreari, egun guziez, gertatzen zaioena lothzen zaionean salbamenduari. Jesu-Kristo hurbiltzen zaio bertze-orduz Lazarari bezala; bere ganatzen du bere grazia sainduaren gantzuduraz. Oihuz dagoko bere ministroen ahoz, erraten dioela ilkitzeaz bekhatuen thonbatik: ematen diote bere ministroei bothere guzia libratzekotzat bekhatorea etsai gaixtoarekin amarratua dadukaten lokharri bortitzenetarik. Lazara bizteko aitzinean egin ziren nigar eta othoitzek erraten darokute ez dela halako zorigaitzik nola arimako bizia galtzea, eta nekhe dela bekhatore bat Jainkoa ganat itzul-araztea, guziz aspaldion bekhatutan ehortzia badago. Ordean zer nahi gaitzetasun daiten konbersioneko obra handian, ez da zeren behin ere etsitu salbamenduaz: Jaunaren miserikordiak hedatzen daroku esku amultsu eta botheretsu bat: zelhaitzen ditu bide guziak, eta ematen daroku errextasun maitagarri bat heltekotzat zeruko erresuma dohatsurat.



XXXVI. KAPITULUA

**Yuduak biltzen dire yakitekotzat
zer eginen duten Salbatzailleaz,
eta deliberatzen dute haren hil arazterat**

Yaun-doni Yaun. c. 2. etc.

Lazaraen biztea zen mirakuillu bizi bat bakotxak, bere begiz, ikhusten zuena. Etzen Yerusaleme guzian Jesusen alderako laudoriorik baizen. Handik harat Mesia deitzen zuten; errex zen haren Mesiasztat hartzea eta ezagutzea. Ordean farisauek eta skribek alferretan ikhusten zuten Jesus zela egiazko Mesia, profeteen erranak haren baitan konplitzen zirela, mirakuilluak berak mintzo zirela; hauk guzien erdian, aski zoroak gertatu ziren utztekotzat bere buruak itsutzerat. Yelosia eta herra mausitu ziren hekin bihotzetan. Hartu zuten xedea gal-arazteko Jainkotasunaren seinale guziak ematen zituen: huna farisauen eta skribeen arrazoinamendu auhendagarria.

Gizon hunek dio garbiki Jainkoaren semea dela, Kristo dela, Mesia dela: egia hau argitarat ematekotzat, obratzen ditu, Jainko bere aitaren izenean, mirakuillurik espantagarrienak, bitz-arazterainokoa lurraren barnean lau egunez egon diren eta ustelduak diren gorphutzak. Ez bagare hartaz yabetsen, nausitu bezala zaizkigun erromarrak beretuko gaituzte alde baterat. Yabetsuren dire hiri huntaz, eta deseginen dute gure populu guzia. Kaifa zaritzon, urthe hartako aphez-handiak, erran zaroen farisauei eta skribei: ez duzue bada ikhusten balinba hobe dela zuentzat gizon bakar bat hil dadin, ezen ez populu guzia izan dadin galdua? Guziak erori ziren Kaifaren erranetar. Ordu beretik hartu zuten Jesus hil arazteko xede izigarria; eman ere zituzten, ixillik, bere manuak hartaz yabetzeko non nahi den gertha zadin. Etzen deusere gorderik Salbatzaillearentzat; bazakien gauza guzien berri; ordean inmolatua izateko muga etzen oraino ethorria. Etzen gehiago agertu munduaren arterat. Hedatu zen Efremgo hirirat, eta han egon zen bi ilhabetez bere apostoluekin.

Yuduen bazkoak hurbilduak ziren, baina Salbatzailleak etzuen Yerusalemerat heltzeko lehiarik. Hiri hartara lehenik yoan zirenak besta handi haren zebratzerat izan ziren miretsiak Jesus ez han edireteaz: ibilhi ziren haren ondoan, eta etzutenean tenpluan ere ikhusi, elkhari erran zioten: nondik heldu da bada ez baida hemen? Zerk debekatzen duke bada hunat ethortzetik? Yelosia kruelak, eta bere xede gaixtoa lehen-bai-

lehen konplitzeko hirritsak hunela mintzarazten zituen pasioneak itsutzen zituen gizon zoratu hek. Nola heien arabera, Salbatzailleak berantzen baitzuen, manatu zioten haren berri ahal zakiten guziei errateaz non zen, nahiz hartaz yabetu. Hanbat lehiarekin bilhatzen zutena agertu zitzaizoten, ustekabea, eta bere nahitarat. Haren baitan seinalatzen ziren deskanstuak eta bozkarioak ematen zuten ezagutzarat hek hura hil-arazteko baino, berak bere bizia gizonen salbatzekotzat emateko oraino khar handi-agoa zuela.

Samariako bazterretan gaindi iragan zen Salbatzaillea Yerusalemera-koan. Yuduen alderako samaritarren herrak hain zen handia non ez baitzuten nahi izan utzi Salbatzaillea herri batean sartzerat, eta hori, zeren zohan Yerusalemerat. Zebederen bi semeek Yakobek eta Joanek minki hartu zuten bere nausiarri egiten zioten idioia: erran ere bazioten: nahi duzu, Yauna, yauts-araz dezagun zeruko sua yende hauk funditzeko- tzat egiten darotzuen idoiaren punimendutan? Salbatzailleak ihardetsi zioten: ez dakizue nolako den zuen akzionetan izan behar duzuen xedea. Gizonaren semea ez da bizia eramaterat ethorria, baina haren ematerat. Ez da ethorri bekhatoreen gal-arazterat, baina heien salbatzerat eta miserikordia hei egiterat: yakin ezazue beraz miserikordia nahi dudala, eta ez mendekua. Jesus yarraiki zitzaion bere bideari, eta etzuen beltzuri bera aurkhitu bertze herri baterat zenean.

Salbatzailleak irakhatsten daroku bere enxemplu saindu eta miragarriaz gaitzetsten duela khar biziegia eta dorphegia, haren beraren alderako kharrak ere, karitatea izan behar duela asentutzat. Ez ahal da eztitasuna baino berthute maitagarriagorik. Hari ohi datxeizko bihotzeko bake gozoa, eta garbitasun preziatua. Ez da pasione muthiririk eztitasunak zebaten ez duenik, izpiritu mindurik malsotasunerat erakhartzen ez duenik, bihotz gogorrik hautsten ez duenik; ez da oraino bekhatore errebelaturik eztitasunak emeki-emeki, zeruko bidean sar-arazten ez duenik.

Eztitasunik gabeko zela faltsoa da, eta gaixki erregelatua. Ez da beraz miretstekoa baldin Salbatzaillea ez bazen erori bere dizipuluen nahirat; ez balinbazuen laudatu zerutikako su batek fundi zetzan haren alderat huts egin zutenak. Oxala eztitasuna balitz hedatua familietarat eta lekhu guzietarat! Gudu eta liskar gutiago ikhusi laite gure artean: bertzelako amudioa ginduke elkharentzat. Zer fruitu nahikarazko! Zer bake dohatsu ez ginduzke gure bihotzetan! Erran daite eztitasuna dela berthute bat Salbatzailleak beregainki onhetsten duena. Etzaio aski berthute hura gomendatzea, bera agertzen da gure nausitzat eta enxemplutzat: *discite*



a me, etc. Zerbaitgatik ezti eta olhe izan dire Jesu-Kristoren dizipulu guziak.

O! Jesus, ezttasuna bera zarena, egizu ikhas dezadan zure eskola sailduan ezti eta humil izaten. Ekharria naiz zure exenplu salbagarriaz probetxatzerat. Utzi nahi ditut kontzientziaren asaldarazteko baizik ez diren dorphetasun eta khexadura guziak. Nahi natzaitzu yarraiki leihaltasun handienarekin. Bai, ene Salbatzaille ezti eta amultsua, zure dizipulu izan nahi naiz, eta emanen dut ezagutzerat hala naizela nere ezttasunaz eta humiltasunaz.

XXXVII. KAPITULUA

**Jesu-Kristo mintzo da bere heriotzeaz,
eta haren pasionean ikhusteko ziren gauzeaz**

S. Matth. 20.

Etziren aurkhitzen apostoluen bihotzetan Jesu-Kristo baitan ageri ziren deskantsu eta bozkario berak. Bere nausia galtzeko beldurrak zaurhizen zituen hekin barneak atsekaberik minenaz. Salbatzailleak altxatu zituen hekin gogo eroriak: hartu zituen bazterrerat, eta erran zioten: ene haur maiteak, hel gaiten, azkenean, Yerusalemerat: han behar dire konplitu profetek gizonaren semeaz erran izan dituztenak. Libraturen dute aphezeen printzeen, eta legeko nausien eskutarat. Kondemnatzen dute heriotzerat; burlaturen dire hartaz; izanen da azotatua eta thuz estalia. Ezin erran bezanbat arbuioekin yazarriren diotenean, hil-araziren dute. Lehen ere erran izan darozkitzuet, behin baino gehiagotan, gauza hauk berak, nahiz yakin dezazuen deusere etzaitala gerthatuko aitzinetik nehorrek ikhusten ez dudarik, eta ene ganik urrun ez nezakeienik. Pairatzen balin badut, nere nahitarat eginen dut, eta ene aitaren gogara; ezen heriotzerik laidotsuenaren gostuz nahi ditu erosi gizon guziak.

Salbatzailleak erran zaroen apostoluei lorios biztuko zela gurutzean hillen zenetik hirugarren egunean. Haren heriotzeak etzituela beraz behar asaldarazi. Haren erran guziak konplitzen ikhusteak ezagut-araziren ziotela haren Jainkotasuna. Jesu-Kristoren dizipuluek etzuten oraino ikhasi gurutzea maitatzen. Min zitzairen entzutea bere nausia bere heriotzeaz mintzatzen. Haren hitzak nekhez sartzen ziren hekin izpiritutan. Ohore goseak ziren, eta bertzeaz gorago altxatu nahiak. Horra zergatik Zebederen bi semek, Yakobek eta Yoanesez, othoiztu zuten bere ama galdetzeaz Salbatzailleari grazia bat erakutsterat ematen zuena bertzeak baino gorago izan nahizko zuten gutizia.

Ama hura hurbildu zitzaion Salbatzailleari; adoratu zuen errespektuarekin, eta othoiztu zuen onhetsteaz galde ziozon grazia bat. Salbatzailleak etzuen (urrun da) hartarik gibelatu. Emazte hura hasi zen mintzatzuten trebeki eta fidantzia handirekin hitz hautaz: bagare hirur zure ganik grazia bat nahi gindukeienak, eta damu min bat ginduke haren ez ardietsiteaz. Zer da (ihardetsi zion Salbatzailleak) zuk galdetzen duzuna? Zer da nik egin ahal dezakedana zuretzat eta zure umeentzat? Orduan buraso hark aithortu zuen garbiki, ahalkerekin bazen ere, haren semeen nahia



zitekeiela izatea, egun batez, yarriak haren erresuman, bata eskuineko aldean, eta bertzea ezkerrekoan. Mana zazu hala gertha dadin, eta emazu zure hitza zure lorian izanen zarenean, ezarriren ditutzula zure bi saihestetan, bertze dizipuluak baino gorago.

Jesusek ikhusten zuen amakarako amudioak hala mintzarazten zuela emazteki hura. Etzion deusere ihardetsi; ordean erran zioten eztitasun eta amultsutasunekin Yakoberi eta Yoanesi; ez dakizue zer galdetzen duzuen; ene erresuma ez da zuek uste duzuen bezalakoa. Fagoreak ez darama nihor harat, bainan bakharrik merezimenduak. Baduzue bada aski animo edateko nik lehenik edanen dudan khalitz kharatsetik, eta bathaiatuak izateko zuen odolean, ni neurean izanen naizen bezala? Nola bi dizipulu hek amudio khartsu bat baitzuten bere nausiaren alderat, ihardetsi zioten fermuki ekharriak zirela zer nahi pairatzerat haren ohoretan, eta haren zerbitzatzerat. Orduan Salbatzailleak agindu zioten haren sofrikarietan partale direnentzat aldaratua dadukan khoroa; ez ordean bertzez gorago izateko galdetzen zuten ohorea. Bai (erran zioten nausi dibinoak) edanen duzue ene khalitza, eta izanen zarete ni bezala bathaiatuak; bainan, haren erresuman galdetzen zuten herrunkaz bezanbatean, utzi behar zela gauza Jainkoaren nahirat.

Bertze hamar apostoluek gaitzetsi zuten bere bi lagunen galdea: abiatu ere ziren erauntsian. Jesusek deithu zituen bere gana guziak; egin zioten prediku miragarri bat guzien izpirituak eta bihotzak deskantsuan ezarri zituena. Asko bertze gauza ederren artean, erran zioten: zuetarik nihork nahi badu altxatu bere burua bertzeez gorago, hasi behar du izatetik bertzeak baino ahalago, eta bertzeak zerbitzatzetik: lehen herrunka nahi badu, azkena behar du berezi. Ez da ere aski bihotzez humil izatea, oraino behar da maitatu humiltasuna, behar da bere burua beheratu egin ahal bezanbat, eta ohoretzat iduki behar da bertzeak zerbitzatzea. Gizonaren semea hartu behar duzue exenplutzat: ez da ethorri mundura zerbitzatu izatekotzat, aitzitik, ethorri da bertzean zerbitzatzerat eta bere bizia guzien salbatzeko ematerat.

Salbatzaillearen exenpluak erakharri behar gaitu atsekabeak maitatzerat: giriztino leihalak hetan edireten du egiazko atsegina. Ez da gurutzak dakharzkeien fruituak baino gozoagorik. Jesu-Kristoren odol sakratuak khentzen diote bere kharatstasun guzia. Gure sentsuak entzuterat, gure naturalesaren eta nahien arabera bizitzerat, ikhusia da, atsekabeak ez direla batere maitagarriak, higungarri ere direla; ordean zer irakhatsten daroku fedeak? Zer dio ebanyelioak? Huna zer dioen: zorigaitz zuentzat

nahikaretan eta frankian bizi zaretenak; ordean dohatsu, zuek, nigarretan bizi zaretenak.

Erremediorik den kharatsena bilhatzen da, erosten da, zer nahi gostatarik ere, iretsten da zer nahi bortxa egin dezan barneak uste denean luza detzakeiela aphur bat gure egunak; irabaziaren eta ohorearen hirritsak badarama presuna nekhe eta hirrisku handienetarat. Oi! non da bada gure zuhurtzia? Gure eskutan dugu zeruko erresuma irabaztea; heltzekotzat bethiereko bizitze dohatsurat, aski dugu pazientzia saindu batekin hartzea Jaunaren miseriak gure salbamenduko egortzen darozkigun mundu huntako, eta ephe laburra duten arbuio, eskasia, gaitz eta bertze lazeriak. Ez da bertze biderik zeruan sartzeko, eta ez ditugu bada onhetsiko eta maitatuko gurutzak! Itsumendua auhendagarria!



XXXVIII. KAPITULUA

Jesusek argitzen du itsu bat.

Zakeen fede bizia

S. Luc. 19.

Jesusek bere dizipuluekin solasean zohala, bathu zuen itsu bat bidearen gainean yarrria, eta eske zagoena. Itsu hark entzun zuen harramantza handi bat, eta galdetu zuen zer zen. Erran zitzaionean Jesus Nazarethkoa iragaten zela han gaindi, abiatu zen erraten oihuz: Jesus, Dabiten semea, duzun nitaz urrikalmendu. Populuak nahi izan zuen ixil-arazi; ordean alfer izan ziren haren alderako hitz dorphe eta dixidu guziak. Gure itsua etzen batere ixiltzen: egundaino baino gorago zaraman bere oihua. Etzen miresteko: berak zakien bere gaitzaren berri, eta fidantzia handi bat zuen sendaturen zela. Yarraiki zitzaion Salbatzaileari guzietarat; hain ungi egin zuen, non ardietsi baitzuen, haren urruntzerat hari zireneen bortxaz bezala, galdetzen zuen guzia. Salbatzailea trikatu zen aphur bat, eta manatu zuen erakhartzeaz itsu hura garen ganat. Lehen hura bidetik khendu nahiz zabiltzanek erran behar izan zioten: izan zazu gogoa on, altxa zaitte, zure galdea du. Gure itsuak etzituen hain laster hitz konsolagarri hauk entzun, non abiatu baitzen bozkarioz, yauzika. Momenturik galdu gabe, lehiatu zen Salbatzailea gana. Salbatzaileak galdegin zion zer nahi zuen egin ziozon. Itsuak ihardetsi zioen: Jauna, idek dietzadatzu begiak, bihur diezadazu bista. Miriku soberanoak urrikari izan zuen itsu hura: ukitu ziotzon begiak bere esku botheretsuaz, eta erran zion: ikhus zazu; sendatu zaitu zure fedeak. Ordu berean itsuak ikhusi zuen, eta yarraiki zitzaion bide guzian Salbatzaileari, eskerrak bihurtzen ziotzotela hark beregainki, eta harekin batean mirakuillu haren lekhuko izan ziren guziek.

Salbatzaileak egin zuen oraino Jeriko berean gauza bat ungi miragarria: hiri hartan bizi zen gizon aberats bat, publikanoen buruzagia zena, eta aspaldion Jesus ikhusi nahia. Ordean, bere egin ahal guzien erdian, ezin konpli zezakeien zuen gutizia. Aphala zen gorphutzez, eta etzen hurren seinale ere bertzeen baltsan: bera baino handiagoak ziren, eta bere inguru guzietan zituen yendeek debekatzen zuten ikhustetik Salbatzailea.

Antzeak konplitu zuen gorphutzeko handitasunaren eskasa. Zakee igan zen Salbatzailea iragan behar zen bideko arbola baterat, handik haren ikhusteko bere gogara, eta debekurik gabe. Jesusek, bide hartarik iragatean, ikhusi zuen Zakee arbola gainean, erran zion arraiki yauststeaz

handik, eta egun hartan haren etxerat beharra zela. Zakeek egin zuen berehala manatu zitzaiona: errebitu zuen Salbatzailea bere etxean. Nausi dibinoari egin zion ezin erranezko begitarteak erakutsterat ematen zuen ekhartzen zion errespektu handia, eta haren ikusteaz zuen bozkario guzia. Errateko aurkhitu zen Jesus ostatatzeaz fama txarretako publikano baten etxean; ordean laster ikhusi zen Jesus Zakee baitan sarthu zela, miriku bat eri baten etxean sartzen den bezala: eta egiaz, ordu hartan berean Zakeek altxatu zuen bere bihotza zerurat. Eman zen, ahuspez, Salbatzailearen oinetan, eta erran zion: aithortzen dut, Jauna, hemen direneen, eta ene berri dakiten guzien aitzinean, bekhatore handi bat izan naizela. Ezin garbi dezaket ene burua; ordean eskandalisatu balin badut mundua orai arteraino, nahi dut, hala-hala, orai guziek yakin dezaten nola-koak diren ene xedeak. Hasten naiz ematetik pobretarat ene ontasunen erdia, era ezagutzen badut egin diodala nihori bidegaberik, ekharria naiz hari bihurtzerat zor diodan baino laueta gehiago.

Salbatzailea boztu zen sar arazteaz bide onean ardi errebelatu hura, eta erran zuen: egun hau salbamenduko egun bat da etxe huntentzat. Yuduek behatu diote orai arteraino Zakeeri atze eta publikano bati bezala; ordean, egun, bere fede handiari esker, egina da, hek bezala, Abrahamen ume.

Simon, lepratsuaren izen-goitia zakharkenak (naski lepratik sendatua izan zelakotzat) othoitztu zuen Salbatzailea afaltzeaz haren etxean. Lekhu hartan berean biztu izan zen Lazara. Marthak nahi izan zituen zerbitzatu mahainean zirenak. Othuruntzako mugan, Maria Lazaraen eta Martharen haurrideak isuri zuen Jesusen oinen gainerat belhar miragarri eta diru handia egiten zuen baten uretik. Huntaraino zohan ur haren balioa, non Mariak Jesusi buruaren gainerat isuri zuena, izan baitzen estimatua ehun eta berrogoi eta hamar libera diru. Ur preziatu haren urrin onak bethe zuen etxe hura guzia. Yudas, apostolu traidorea, bekaxtu zitzaion Mariari. Gaitzitu zitzaion hala galtzeaz hanbat diru balio zuen ura; erran ere zuen balinba hobe izanen zela ur balios hura saltzea, eta haren dirua hari ematea pobreen laguntzekotzat. Judas etzabilhan pobrengatik, dio iskribu sainduak, bainan nahiko zuen diru hura eskuratu asetzekotzat bere abarizio zikhina.

Jesusek, ikhusirik bere dizipulu zenbaitek etzutela laudatzen Mariak haren ohoratzeko xedez egin zuena, yarri zen haren alde, eta egin zituen haren laudorioak. Bere dizipuluei erran zioten: zerentzat damustatzen duzue emazteki hori? Obra on bat eginik heldu da: urrinztatu nahi izan du ene gorphutza, orai beretik, hillen naizen eguneko. Noiz nahiden sok-



horri detzaketzue pobreak, bethi izanen duzue hetarik; ordean ez nauzue ni bethi ageriki izanen lurraren gainean. Yakin ahal dezakezue orai Mariak egin duena ezagutua eta laudatua izanen dela ene ebanyelioa predikatuko den bazter guzietan.

Biharamunean, Jesus ilki zen Bethaniatik. Hurbildu zenean Yerusalemerrat, erran zioten bere dizipulutarik bie: zohazte begien aitzinean duzuen herrizka hortarat. Han edirenen duzue asto bat bere umearekin; lexa eta erakhar ezazue ene gana: nihork galdegiten badarotzue zer egin gogo duzuen hetaz, ihardetsiko duzue zuen nausiak hekin beharra duela. Dizipuluek egin zuten manatu zitzaioena. Hunela iragan ziren hauk guziak, dio ebanyelioak, izan zitezentzat konplituak Mesiasetz erran izan zirenak.

Ikhas dezagun Zakeen eskola zuhurrean izaten Jesu-Kristo baitan fidantziarik handiena. Gauza guziek behar gaituzte erakharri fidantzia hartarat. Berak erraten daroku bekhatoreen salbatzeko ethorri dela mundurat. Ez da ikhusi egundaino hura bezain nausi ezirik, ez eta halako aita onik. Jesusen bizitzeko misterioek, haren sofrikariek, haren heriotzeak, hitz batez errateko, gauza guziek irakhatsten darokute haren baitan ezarri behar dugula gure fidantzia guzia.

Ala ene fede gutiak erakutsten baidu, Jauna, ene fidantzia eskasa! Ez da batere miretsteko bethi lahenekoa balin banaiz, pasioneak nausitzen badire ene bihotzean, eta ez banaiz entzuna ene othoitzetan. Heldu naiz, egun, zure ganat esparantza bizi batekin ahantziren zaizkitzula ene gaixki guziak, orrhoitzekotzat bakharrik enetzat eman duzn odol sakratuaz. Zu zare, Jauna, ene fidantzia guzia. Ezagutzen tutzu ene flakezia eta bekhatu guziak. Lazten naute, eta ikharatzen. Aithortzen dut ez dudala merezi zure miserikordia, bainan bai gaztigurik garratzenak. Zure izenak berak, Jauna, ematen darot fidantzia oso bat: bekhatorea naiz, egia da; ordean zu, ene Jesus, ene Salbatzailea zare.

XXXIX. KAPITULUA

**Jesu-Kristo sartzten da
lorioski Yerusalemeko hirian**
Yaun-doni Yaun. c. 12.

Jesu-Kristoren pasionea misterioz bethea da, eta orduan iragan ziren gauza guziek ematen dute ezagutzerat hura zela egiazko Mesia, eta Jainkoaren semea. Beztarat Yerusalemerat hedatu zirenek yakin zuten Lazaraen bitzte espantigarria, mirakuillu haren lekhuako izan zirenen beretarik, eta entzun zuten Jesus harat heldu zela. Athera ziren, osteka, haren bide-rat erramuak eskutan, ziotelarik oihuz: salbamendua eta loria Dabiten semeari; bizi bedi Israelgo erregua, Jaunaren izenean heldu dena. Huntaraino heltzen ziren poñuluaren bozkarioa eta errespektua, non batzuk hedatzen baitzituzten bere soinekoak, eta bertzek arboletako adarrak Jesus iragan behar zen bidearen gainerat. Hurbildu zenean hirirat, haren dizipuluek egin zuten gandi bezala bozkarioz ikhustez bere nausiar bihurtzen zitzaizkon ohoreak. Eman ziren populuaren baltsan, eta abiatu ziren laudatzen Jainkoa hekien begietan egin zituen obra miragarriez, ziotelarik oihuz: *Bedi benedikatua Jaunaren izenean heldu den errega: bakea lurraren gainean eta loria zeruan*. Salbatzailearen ingurutan zirenek altxatu zituzten bere bozak, dizipuluek bezala, haren lorifikatzekotzat. Etzen alde guzietarik entzuten hitz hau baizik, *hozanna*; erran nahi da, bihur bekio loria Dabiten semeari.

Salbatzailearen etsaiek gaitzetsten zituzten populuak bihurtzen ziotzon ohore handiak: elkharririk erraten zioten: ikhusten duzue ez dugula deusere irabazten; horra non darraikon mundu guzia. Hetarik zenbeit baltsatu ziren populuarekin, eta ezin gerizatu zehiago bere errabia, erran zioten Salbatzaileari: nausia, ixil-araz ezatzen zure dizipuluak. Ihardetsi zioten bere emetasun ohikoarekin: sinhets nazazue: ixil balitez ere, harriak mintza litezke oraino, hek baino gorago.

Salbatzailea, ikhustean Yerusalemeko hiria, ezin egon zen nigar egin gabe. Orrhoitzen zen lekhu dohakabe hark eta nazione guziak yasan behar zituzten ondikoez zeren thematu ziren haren ez ezagutzerat Mesiatzat. Jesusek, nigarrak isurtzearekin batean, egin zuen errenkura amultsu hau: o hiri dohakabea, orai arteraino ez duk nahi izan ezagutu hire zorio-na egin behar zuena! Zergatik iduki dituk, hanbat denboraz, hire begiak hertsia argiari! Oxala idek bahetza hiretzat graziazkoa, eta bakezkoa den



egun huntan! egun huntan zeinetan populuaren eta ene umeen bozak gonbidatzen baihaute ezagutzerat eta errezibitzerat hire Salbatzaillea eta hire aita! Ordean, ondikoz! itsua haiz, eta hala nahia haiz. Yakin ahal deza-kek bada, hiri dohakabea, hire nahiaren araberako itsumendu hori ikhus-ten duen Jainkoa bere fulian ethorriko dela hire gana, laster izanen haize- la funditua. Ikhusiren tuk, urthe laburrik barnean, etsaiak hire sethiatzen. Herstura handian aurkhituko haiz alde guzietarik; bortxatua izanen haiz erortzerat hekin eskutarat, eta sarraski handia eginen die hire populan: lurrerako ditie hire murrak, emanen die hiri guzia sutan eta odoletan: hire etxe eder guziak izanen tuk azpikoaz gora itzuliak; eta ez die utziko harria harriaren gainean. Horra nola Jainkoa ethorriko den bere fulian hire ganat, zeren ez dukan errezibitu ethorri nahi izan zaikanean Salbatzaille eta aita bezala.

Hulako hitz minek ematen zuten ezagutzerat, Salbatzaillea gehiago zela ukitua Yerusalemeren zorigaitzaz, ezen ez populuak agertzen zuen bozkarioaz. Hiri hartan sarthu zenean, bat-bederak galdetzen zuen: nor othe dugu hau? Hari yarraikitzen zitzaizkonek ihardetsten zuten: zer? ez dakizue bada hau dela Jesus Nazarethkoa, bere hitzetan eta obretan hain handia den profeta hura bera? Yuduak etziren bakharrak lehiatu zirenak Jesusen ikhusterat. Jainkoaren adoratzerat ethorriak ziren zenbeit jentilek ere erakutsi zuten gutizia bera. Egin zuten bere nahiaz yakintsun Filipe apostolua, Filipe etzen menturatu, bere nausiaren alderako errespektuz, jentil hek haren ganat hurbil-arazterat. Erran zion Andresi zer zen jentilen nahia. Bi apostoluak mintzatu zitzaizkon Salbatzailleari jentil hetaz. Salbatzailleak erran zioten ematerat zohala bere bizia yudentzat bezala jentilentzat ere, nahi zituela guziak salbatu bere odolaren gustuz.

Salbatzaillearen bihotza lastu zen orrohoitzean bere nahitarat yasan behar zituen tormenta izigarriez; ordean konplitzerat zagon bere aitaren borondatea gauza guzietan: erran ere zion: ene aita, lorifika zazu zure izena: erran nahi izan balu bezala: izan nahi zarenaz geroz lorifikatua ene heriotzearen bidez, ez dut galdetzen zehorriri zaitzuna baizik. Ordu hartan berean entzun zen zeruko boza bat zioena: yadanik lorifikatu dut ene izena, eta oraino lorifikatuko dut orai arteraino egin ditutzun mirakui-lluez, eta gerorat eginen ditutzunez.

Ez ahal da izan egundaino halako bozkariorik nola, Yerusalemetik Jesusen biderat athera zirenek erakutsterat eman zutena: hetarik gehienak lekhuko gerthatu ziren Jesusek, hirur urthe hetan, obratu zituen mirakui-llu guziez; etzen beraz batere miretsteke ezagutu bazuten Salbatzaillea

bere erresketetzailletzat, bere Mesiatzat. Zer lehiarekin etzituzten estali hostoz, loreez eta erramuz Jesus iragan behar zen bidea!

Jesus, komuniatzen dugunean, sartzen da gure bihotzetan Yerusalemen sartu zen bezala, erran nahi da, errege guziz soberano, ordean arrai eta bakharrik gure zoriona bilhatzen duen bat bezala. Ikhusterat girizti-noak, multzoka, mahain sainduan, nork ez lezake erran Jesus bere bihotzetan errezibitzeko lehiarik handienean bizi direla, aitzinetik bere barneak behar bezala garbitzen dituztela, eta bozkario handi bat dutela hazteaz bere arimak Jesu-Kristoren gorphutz sakratuaz? Zenbatak bizkitartean komuniatzen dutenak errankizunagatik, bertzei yarraikitzeo, eta hotztasun ahalkagarrienarekin! Halako giriztino ondikozkoak Yerusaleme-ko populuaren iduriko dire. Badakite komunionean, bere Salbatzaillea errezibitzen dutela; ordean aita amultsu eta heien zoriona egin behar luken hura laster da ahantzia hekin izpiritutan, nonbait da hekin bihotzeta-rik. Jesus hanbat edertasun eta magnifizentzian Yerusalemen sartu zenetik seigarren eguneko, yazarri izan zioten gogortasun eta errabia handiekin. Zenbat giriztino otai ere, komuniatu dutenetik sei egunen buruko, batzutan, lehenago, bederen denbora laburrik barnean, Salbatzaillearen kontra altxatzen direnak! Yazartzen diotenak bere gaixakeriez! Bihurtzen direnak egundainoko bekhatuzko bide beretarat, eta Jesu-Kristoren herio- tzea bere bihotzetan erreberitzen dutenak!



XL. KAPITULUA

Jesus badoha tenplurat. Madarikatzen du phiko-ondoa

S. Marc 12.

Jesus sartu zen tenpluan Yerusalemerat zen arratsean. Egon zen beha alde guzietarat ikhustekotzat egiten zenez deusere lekhu haren sainsidutasunari etzagokonik. Ilhuntzerat zohan, eta etzen bakhar bat gerthatu hiri hartan guzien eskani zioenik bere etxea. Ilki behar izan zuen Yerusalemetik bere apostoluekin batean heltzekotzat Bethaniarat. Bihurtu zen biharamun goizean Yerusalemera nahiz amoratu bere arraitasunaz yuduen bihotzak. Atheratzen zela Bethaniatik, ikhusi zuen phiko-ondo bat bide handiaren hegian landatua, eta hostoz bethea; ordean fruiturik gabea: etzen ere phikoen denbora. Nihork etzakien hala fruiturik etzela arbola hartan nola sasoinak darabiltzanak eta arbolak fruitutzatzen dituenak berak; halarik ere, hurbildu zen phiko-ondo hartarat hango fruiturik yan nahi izan balu bezala.

Jesusek egin zuen arbola haren kontra aserre zelako itxura, ez izateaz historik baizen. Kondemnatu zuen ihartua izaterat, eta erran zuen: ez beza nihork yan arbola hunen fruiturarik. Hitz hauk gora, eta bere dizipuluek entzuteko bezala erran zituen. Arbola hura hil izan zen ordu hartan berean; ordean nola hostoak ez baitziren berehala erori, etzuten biharamunerainokoan ezagutu ihartu zela. Jesusek khendu zituen, bigarren aldiko, tenplutik uso eta sakrifiziotako gauzeen saltzailleak, erraten ziotelarik: ez dakizue bada zer irakurtzen den iskritura sainduan? Ene etxea othoitzeko etxe bat da mundu guziarentzat, eta zuek, ohoinen lekhu bat egin izan duzue duzue hartaz. Hauk guzietarik ageri zen Jesus bertze gizonak baino gehiago zela. Zenbat ere gogorki hartu baitzituen tenpluko tralulariak, etzen bat atrebitu hartaz errenkurarik den gutiena egiterat.

Arrats aphalerat Jesus athera zen, lehen bezala, Yerusalemetik yoatekotzat Bethaniarat: han ohi zuen bere egoitza. Dizipuluek ikhusi zuten, bidean zohazela, phiko ondo hura ihartua errotarainokoan. Laztu izan ziren, eta erran zioten elkharrri: nola hil eta ihartu daite arbola hau hain arte laburrez? Piarresak, orrohoiturik bere nausiaren hitzez, erran zion: Jauna, huna non den arras ihartua zuk madarikatu duzun phiko-ondoa. Jesusek ikhusi zuenean bere dizipuluen espantimendua, ihardetsi zuen deus gutia zela hek harritzen zituen mirakuillua, berek harean laguntzare-

kin eginen zituztenen aldean. Izan zezatela bakharrik fede bizi bat, eta fidantzia oso bat Jainkoa baitan, ordu beretik, bothere guzia izanen zutela arbolen eta mendien gainean. Jesusek oraino erran zioten nork ere haren izenean, manatuko baitzion azitun edo Olibetako mendiari atheratzeaz bere lekhotik itsasoan barna sartzeko, eta hura izanen zela obeditua, baldinetariak sinhetste osoan bazen hala eginen zela. Hitz batez, deusere etzela fede bizi batetako othoitzak eragin etzakeienik.

Jesusek etzuen egunik utzten iragaterat predikatu gabe tenpluan. Aldi batzutan, bil arazten zituen bere aditzaileak bere ingurutarat hei trebeki mintzatzeko, ustez horrela hobeki eskuratu hekien bihotzak; bertze aldi batzutan, igaten zen predikatzeko alkhirat handitasun eta maiestate gehiagoeikin aiphatzeko salbamenduari darraizkon hitz errespektagarriak. Jesusen biziari nahi ziotenak ethorri ziren tenplurat, bere legean, haren garaitzerat bere arrazoinamenduez. Ediren zuten nausi dibinoa irakhatsen hari zela bere ebanyelioko egia salbagarriak. Galdetu zioten: noren laudamenduarekin egiten dituztu, eta utzten dituztu egiterat gure hirian, eta tenpluan berean khusten diren obra miragarriak. Galdetu zioten: noren laudamenduarekin egiten dituztu, eta utzten dituztu egiterat gure hirian, eta tenpluan berean ikhusten diren obra miragarriak? Nork eman darotzu horiek guzien egiteko eskua? Jesusek erran zioten: ihardetsterat nago zuen galdeari baldinetariak nahi badiozue ihardetsi egin nahi darotzuedan huni: zer zaitzue Yaun-doni Yauni-Baptistaz? Noren izenean bathaiatzen zuen? Jainkoarenean, ala gizonenean? Jesu-Kristoren etsaiek ez zakiten zer ihardets, eta zioten bere artean; aithortzen badugu Joanesek, Jainkoaren izenean bathaiatzen zuela, gizon hunek gure hitzean harturen gaitu, eta erranen daroku: zertako beraz ez duzue hura entzun mintzatu zaitzuenean nitaz, zuen Salbatzailleaz bezala? Hala-hala, erraten badugu Joanes etzela Jainkoak egorria, populuak harrikaturen gaitu; ezen bethi profeta handi bati bezala behatu izan dio Joanesi.

Gaixtagin hek bazuten zer egin. Etzakiten zer ihardets Salbatzaillearen galde zuhurrari. Azkenean, erran zioten hotzki, eta gezurraz baliaturik, hek etzakitelat, segur, Joanesek noren izenean, eta noren laudamenduarekin bathaiatzen zuen. Orduan Salbatzailleak erran zioten etzutenaz geroz nahi ihardetsi haren galdeari, etzutela hek ere iguriki behar haren ganik haren nausitasun eta botherearen gaineko argitasunik.

Jainkoak Yerusalemeko tenpluaren alderat agertu zuen kharrak, irakhatsten daroku nolako errespektuarekin aurkhitu behar garen gure eliza saindutan. Urrun da obratzen baitziren lehenago tenplutan orai, eta egun oroz, gure aldare gainetan obratzen diren misterio handiak. Jainkoaren



semea etzen orai bezala aphez eta biktima denbora berean. Etzuen isur-
tzen bere odola bihotzak bekhatutarik garbitzekotzat; etzuen yanaritzat
ematen bere gorphutz sakratua. Ez, etzen orai bezala ikhusten Jainkoaren
maiestate adoragarri guzia hostia xume batean. Halarik ere, zenbat ez dire
gure elizetan agertzen direnak lekhuaren saildutasunaren alderako erres-
pekturik gabe, federik ez balute bezala! Paganoak berak eta Jainkoa baitan
sinhetsterik ez dutenak modestia eta errespektu handirekin egoten dire
bere tenplutan. Etzaie zilhegi burua itzultzea, ez eta hitz baten erratea; eta
ikhusten dire giriztinoaren izena dakharketen batzu Jesu-Kristoren
etxean, haren beraren begietan, barraiaturan, harat hunat beha! Ikhusten
dire giriztino direlako batzu aire haizatu, mundutiar batekin, eta solasean!
noiz? Askotan apheza aldarean dela, Jesu-Kristo hekientzat sakrifikatzen
hari den denbora errespektagarri hartan berean. Zer eskandala izigarri ez
diote ematen arima Jainkotiarrei! Iduri du halako giriztino dohakabeek ez
dutela gure errelijione saildua ezagutzen, edo ezperen hartaz burlatzen
direla. Zer itsuskeria ahalkagarri! Zer punimendu lastimagarri ez dute igu-
rikitzeko agertuko direnean hanbat idoiztatu izan duten Salbatzaillaren
aitzinean bere eternitateko sententzia hartzerat.

XLI. KAPITULUA

Jesusek nola behatzen dioten

Yudu sinhets gogorrei.

Mahatstizainek hiltzen dute

bere nausiaren semea

Matth. 21.

Zenbat ere baitzirurien Jesusek nahi zuela ixiltasuna begiratu, ezin
egon zen seinalarazi gabe bere khar saildua farisauen eta legeko dokto-
ren alderat. Ezagut-arazi zioten bizitze urrikalgarri bat zaramatela, eta
itxurazko prestutasun baten fama galtzeko beldurrak gibelatzen zituela
penitentzia egitetik. Hortarakotzat galdegin zioten bere sentimendua
parabola hunen gainean.

Gizon batek zituen bi seme; manatu zuen, egun batez, zaharrena
yoateaz lanerat haren mahatstirat. Seme hunek ihardetsi zuen berehala
bihurriki etzela harako; ordean sartu zen, aphur baten buruan, bere bai-
tan, eta egin zuen obediencia. Manu bera egin zitzaion seme gazteagoa-
ri, hau emeago eta obediencia agertu zen. Errespektu handirekin min-
tzatu zitzaion bere aitari. Agindu zion hariko zela lanean hark nahiko
zuen bezanbat; ordean bere hitz legun guzien erdian, etzen hurbildu
mahatstirat. Zein da, zuen arabera, bi seme hetan aitaren nahia egin
duena? Ez zitzaioten gaitz ihardetstea; ordean tontoegiak ziren ezagutze-
kotzat bere kondemnamendua bere hitz beretan. Ihardetsi zuten lanhoki
seme zaharrenak egin zuela aitaren nahia.

Orduan Jesusek erran zaroen farisau eta legeko doktor hei: har eza-
zue ungi gogoan, eta finka izpirituan egia bat egun irakhatsi nahi daro-
tzuedana, eta zuen aithorrari dagokona. Zuek baino berthute gehiago
dute publikanoek; eta fama gaixtotako emaztekiek, zuek baino ohore
gehiago izanen dute zeruko erresuman; ordean zuek baino altxatuagoak
izaten badire zeruko erresuman, edo, zuek ez bazarete han sartzen, loth
zakizkote bakharririk zuen buruei: ez duzue merezi duzuen baizik. Sume-
timendu itxurazko batez bere aita enganatu nahi izan duen seme haren
iduriko izan zarete. Joanes-Baptista, bazter guzietan ospe handitan zena
ethorri izan da zuen ganat, irakhatsi darotzue salbamenduko bidea; nahi
izan zaitzute erakharri penitentziarat; ordean zer gerthatu da? Aski iduri-
tu zaitzue haren entzutea: ez zaizkote yarraiki haren exenpluari ez duzue
egin zuen bekhatuen penitentzia.



Publikanoek eta emazteki bizi gaixtotakoek zuek baino hobeki egin dute. Entzun izan dutenean Jainkozko gizon hura, ezagutu dituzte bere buruak; lothu zaizko bizitze berri bati, eta seme zaharrenak bezala egin dute. Arbuiaitu zituzten orduraino zeruko aitaren manu sainduak; bainan, handik harat, ekharri zioten obediencia. Hitz hauk aski izan ez balire bezala hautstekotzat bihotzik gogorrenak, Salbatzailleak athera zuen berze parabola hau.

Familiako aita batek landarazi zuenean mahatsti bat, eragin zuen sasi bat haren ingurutan, dolhare bat lurpean, eta dorre bat hekin begiratzekotzat. Eman zioten mahatsti hura aphur batetakotz mahatstizainei, hango lanak egiteko, izatekotan hunen bertze mahats beretzat. Yabe hark utzi zuenean bere mahatstia gizon hekin arthaen azpian, hedatu zen lekhu urrunetarat, eta etzen gehiago agertu mahatsen biltzeko muga ethor areraino. Orduan egorri zituen sehiak beretzat aldaratu zituen mahatstiko fruituen bilha. Sehi hek dorpheki izan ziren hartuak. Mahatstizainek zehatu zuten lehenbizirik ethorri zehia, idoiztatu eta zauriztatu bigarrena, eta hik hirur garrena.

Halako atrebentzia batek galdetzen zuen (ikhusia den bezala) punimendua; bizkitartean nausiak egin zuen ez yakinaena, eta egorri zuen bigarren aldian bere mahatstirat lehen aldian baino sehi gehiago. Hauk ere orobat izan ziren zehatuak, harrikatuak eta hillak. Zer egiten du familiako aitak? Egortzen du bere seme bakharra etziotelakoan hari bederen gaixkirik eginen, eta haren beldur izanen zirelakoan. Gaixtagin dohakabe hek ikhusi zutenean seme hura, konpartitu zuten, bere artean, hil behar zutela yabetzeko haren ontasunaz. Hala ere egin zuten: lothu zitzaizkon seme hari, khendu zuten mahatstitik, eta eraman zioten bizia.

Jesusek erran zituenean hauk guziak, galdegin zioten farisauei eta legeko doktorei: ethorriren denean mahatstiaren yabea halako gaixtaginen gaztigatzerat, nola uste duzue punituren dituela? Ihardetsi zioten etzela halakoentzat punimendu aski garratzik, merezi zutela heriotzerik dorpheena, eta nausi hark harturen zituela mahatstizain hobeak artha izanen zutenak hari bihurtzeko, denboran, bere fruituak.

Farisauek eta legeko doktorek beretzat beharko zituzten hartu Salbatzaillearen hitz errespektagarriak; ikhasi zuten bere liburutarik Jainkoak egundainotik maitatu izan zituela bere populu eta bere mahatsti hautetsia bezala; egortzen zituela noizetik-noizerat bere zenbeit zerbitzari mahatsti hartarat hango fruituen biltzerat; ordean hiltzen zituztela krueltasun handirekin: bazakiten oraino orduan hei mintzo zitzaiotena mahatsti, edo populu haren yabearen seme bakharra zela, halarik ere bizia hari erama-

teko xedea zaramatela. Zenbat arrazoin etzuten beraz beldurtzeko Jainko handiak puni zetzan hekin gaixki izigarri guziak! Ordean urguilluak itsutzen zituen farisau eta legeko doktorak: etzituzten bere buruak kondemnatzen. Salbatzailleak erran behar izan zioten parabolarik gabe, eta garbiki: zeruko graziez egiten duzuen arbuioaren punimendutan, khenduko zaitzue orai areraino zuentzat zen zeruko erresuma; zuek baino leihala-go izanen direnak, eta salbamenduko fruitu gehiago bilduko dutenak izanen dire bakharrak sarthuren direnak zeruko erresuman.

Ala presuna urrikaltzeko baida largatzen dioenean bere burua urguilluari! Utzten bada pasione hau bihotzean nausitzerat, laster yarraikiren zaizko bertze pasione guziak. Nondik heldu dire familietako hotztasunak? Hauzoe arteko eskatimak? Inbidiak, hauziak, eta bertze gaixkiak? Nondik? Uргуillua ohi dute bere ithurburu ondikozkoa. Humiltasuna maitagarria bezain da higungarria urguillua. Halarik ere, o itsumendua! Pasiene hau hedatzen da bazter guzietarat, sartzen da adin, estatu, kondizione guzietan: baliatzen da azkenaz-goiti erreljioneaz beraz munduaren estimu ezdeusa beretzekotzat. Zenbatak, Jainkotiar iduri dutenak, eta orduko prestutasunaren axala baizik ez dutenak! Ez ahalda munduan bizio kaltehorragorik, gehiago ikharatu behar gaituenik urguillua baino. Izurritatzen du, askotan, obrarik, berenaz, sainduenak. Nahi bezanbat lagunduko dire pobreak, eginen barurak, eta bertze penitentziak, urguillua sartzen bada batere horietan, obra on iduri hek guziak kanpo ederra eta barnea gaixtatua duten fruituak bezala dire. Nork egiten du farisauek egiten zuten baino karitate gehiago pobretarat? Nork darama hek bezain bizitze dorphea? Nor, iduritik hartzerat, hek bezain saindurik? Ordean munduaren estimua eta laudorioak bilhatzen zituzten: urguilluak zarabiltzan, eta horra, zerk erakharri zuen Jainkoa heien punitzerat eta behin bethiko kondemnatzerat.



XLII. KAPITULUA

**Errege batek bere semearen ezteietan
ematen duen othuruntzaren parabola.**

**Jesusek manatzen du
bihur dakion erregeri bere zuzena**

S. Matth. c. 21, 22.

Farisauek eta legeko doktorek ezagutu zuten Salbatzailea hetaz berez mintzo zela mahatstizain gaixtoen parabolari, eta ematen ziotela bere kondemnamendua begietarat. Horrek bera yar-arazi zituen haren alderako suminduran, eta emendatu baizik etzen hartaz yabetzeko zuten hirritsa; etziren ordean atrebizten haren hartzerat; bazakiten populuak profeta handitzat zadukala; beldur ziren arrapa ziozoten eskutarik. Hek egin zuten guzia zen Salbatzailea ganik urruntzea, ezin gehiago yasanez bere aitzinean gizon bat hain higun zutena.

Jesusek ikhusten zuen farisauen eta legeko doktoren bihotzetako phozoadura, eta hari yazarri nahizko gutizia ondikozkoa; guziarekin deusere etzuen galdu bere emetasunetik, eta etzen baratu predikatzetik egundainoko khar berarekin. Egin zioten harekien gelditu zirenei parabola berri bat, ezagut-arazten zuena zeruko erregeaz mintzo zela: huna parabola hura: Lurreko errege batek gonbidatu zuen mundu oste bat bere semearen ezteietarat, eta ez zitzaion nihor ethorri. Errege hark egorri zituen bigarren aldian, bere zerbitzariak erraterat gonbidatuei hurbiltzeaz lehen-bai-lehen haren etxerat, hil-arazi zituela idirik gizenenak, eta oilhoki guzietarik; yanari guziak aphainduak zirela, etzutela beraz ethortzea baizik. Zerbitzari hek Jesusen parabolaren arabera, egin zituzten bere egin-ahalak erakartzekotzat gonbidatu hek ezteietako othuruntza hartarat; ordean alferretan. Bata yoan zen bere bordarat, bertzea bere traturat; eta bere lekhuari gelditu zirenek yazarri zioten dorpheki zerbitzari hei, hil ere zituzten.

Lurreko errege hari gaitzitu zitzaion bere manukoek haren alderat agertu zuten intsolentzia. Egorri zituen gerla-gizonak heien hiltzerat, eta sutan ematerat hekin hiria. Hauk hunela iragan zirenean, errege hark erran zioten bere bertze zerbitzariari: ikhusten duzue othuruntza aphaindua dela; ordean gonbidatu nituenek etzuten merezitzen halako fagorerik. Zohazte bidetarat, erakhar ezatzue bathuko dituzten guziak. Zerbitzariak konplitu zuten nausiaren manua. Bildu zituzten onak eta gaixtoak, eta yateko lekhuari laster izan zen munduz bethea. Guziak yarri zirenean mahainean, errege sartu zen yateko lekhu hartan nahiz ikhusi harat bildu

zirenak. Aurkhitu zuen bat bere ohiko soinekoekin: erregek erran zion: adiskidea, zergatik ethorri zare ezteietako yaunstura gabe? Gizon hura ahalkatu zen guzia, eta egon zen mutu. Errege etzen hartan gelditu; manatu zituen bere azpikoak amarratzeaz gizon haren eskuak eta oinak, eta haren artikitzeaz leze beltz batetara, zeinetan ez baida entzuten nigarrak eta hortz kharrakarik baizen.

Farisauek eta legeko doktorek etzuten nihon onik non etzioten Salbatzaileari yazartzen. Egiten zituzten munduan egin ahalak haren urrutzeko populuaren izpiritutik; nahiko zuten aurkhitu zerbeit errateko haren hitz saindutan. Huna nola hartu ziren hortakotzat. Egorri zituzten Jesus gana bere dizipulutarik bia Herodeen manuko ziren batzuen balsan. Zenbeit estakuruen ondoan zabiltzan sinhets-arazteketzat Jesus erori zela erregeren alderako hutsetan, haren largatzeko probintzia hartako gobernadodorearen eskutarat. Mandatari hek hobeki geritzeko bere gaixtakeria, egin zioten Salbatzaileari salutantzia kortesia handirekin: laudatu izan zuten bere hitz legunez zeren egiaz mintzatzen zen, batere behatu gabe munduaren errankizunari, eta berezkorik egin gabe batzuen eta bertzeen artean. Erran zioten irakhatsten zioela bere egia handiez mundu guziari zerura daraman bidea; ordean Jesusen ganat egorriak izan zirenek haren laudatzeaz bertzerik zarabillaten gogoan. Kontzientzia minberadunak izan balire bezala, galdegin zioten Salbatzaileari yuduek zor ziotenez dretxurik enperadoreari. Uzte zuten edirenen zutela, galde hunen bidez, errateko zerbaitek Jesusen hitzetan: bi gauzetarik bat beharko zela gerthatu: edo, Jesusek ihardetsiko zuela yuduek zor ziotela enperadoreari dretxua, aditzen dela, figoa: eta horrek damustatuko zituela bere libertatea maite zuten yuduak; edo, ihardetsiko zuela etzirela zordun enperadorearen alde- rat; eta horrek emanen zituela erromarrak suminduran, eta Salbatzailearen punitzeko eginbidetan.

Jesusek ezagutzen zuen zer iragaten zen galde hura egin ziotenen izpiritutan. Eman zioten begien aitzinerat bere gaixtakeria. Erran zioten, bere itxura eder eta humil guziaren erdian, faltso era hipokrita batzu zirela. Erran zioten oraino: erakuts diezadazue zuen figoaren pagatzeko darabillazuen dirutarik peza bat. Eman izan zitzaionean, galdegin zioten: nor diruri? Nor erran nahi du diru peza hunen gainean zigillatua den figurak? Zer erran nahi du diru peza hau birundatzen duen iskribuak? Ihardetsi zioten enperadorearen errepresentazionea zela diru-pezan zigillatua zen figura. Orduan Jesusek erran zioten: gauza, zuek diozuen bezala, denaz geroz, bihur diozue beraz Zesari (erregeri) Zesarena, eta Jainkoari Jainkoarena.



Salbatzaillearen parabolaren aiphatua den erregeak artik-arazi zuenean ezteietako yauntstura gabe agertu zena ilhunbetako lezerat, erran zituen oraino hitz ikaragarri hauk: hainitzak dire deithuak; ordean gutiak hautesiak. Ez da gure erreljione guzian deusere hala lastu behar gaituenik nola yakiteak bakharrak direla salbatzen direnak. Hau da egia bat argitasun handienez aurkhitzen duguna iskritu sainduan, exenplutan, eta Jesu-Kristo beraren erranetan. Sei ehun milla gizon armadun (zaharrak eta emaztekiak bertze alde) athera ziren Egiptotik heltzekotzat lur agindurat. Hetarik zenbat han sartu izan ziren? Bakharrak bia, Kaleb eta Josue. Lurraren gaineko gizon eta emazteki guzietarik, nor dire uholdearen uretan hondatuak izan etzirenak? Noeren familia bakharra. Zerutik yautsi zen su batek borts hiri handi erre zituenean, zenbat gerthatu ziren bere bizia begiratu zutenak? Lau presuna bakharrak. Hauk guziak hanbat exenplu erraten darokutenak gutiak salbatzen direla. Egia ikharagarria; ordean gure baitan aski sar-arazten ez gaituena!

Hamar milla persunetarik ez balitz damnatzen bakharrak bat baizik, beldurtzeko nuke ni nintekeiela dohakabe hura: gertha daite bizkitartean ez den, hamar milla giriztinotarik bakharrak bat baizen salbatzen, eta bizi naiz deskantsuan, segiratia banintz bezala hamar millen arteko dohatsu bakharrak hura ni beharko naizela.

Izurritea sartzen denean herri batean, ez dituen arren hil-arazten guziak, bat-bedera beldur da bere buruarentzat. Armadore batek, edo bere ahaide hurbillak itsasoan dituztenek entzuten badute galdu dela unti bat, ematen zaizko beldurrari, diren arren hamar milla unti baino gehiago itsasoaren gainean: badakigu orai lurraren gainean bizi diren artean bakharrak helduko direla salbamenduko porturat, gehienak galduko direla, eta ez gare beldur dohakabe hetarik izan gaiten. O itsumendu damnagarria!

O! Jesus maitea, gizon guzien salbatzekotzat hil nahi izan zarena. Egizu zure grazia sainduak ez nadin gertha damnatuko diren baltsa handiko. Gal bedi galdu nahi dena, zeruko bidea utzirik ifernukoari darraikona. Ala urrikaltzeko baida halako zoroa! Nitaz denaz bezanbatean, ukho egiten diot orai danik, bihotzez, munduari, zeruaz gozatzeak egiten du ene hirritik handiena. Ez balitz mundu guzian bakharrak bat baizik ere salbaturen denik, ni nahi naiz izan dohatsu bakharrak hura. Badakit, Jauna, ene eskutan dudala ene salbamendua, ematen darozkidatzula behar diren laguntza guziak zeruratzekotzat: badakit ene ganik galdetzen duzun guzia dela ene bihotza: bada, o! Jesus guziz maitagarria! nahi zaitut orai danik finki maitatu eta leihalki zerbitzatu.

XLIII. KAPITULUA

Jesusek interrogatzen tu Farisauak eta Skribak

Mesiasen ethorkiaren gainean.

Kondemnatzen du hekin suphertasuna eta laudatzen alhargun pobrearen karitatea

S. Matth. 22, 23.

Etzen batere miretsteko populu xeheak ederrets zetzan Salbatzaillearen erran zuhurrak. Baziren farisau eta skriben artean ere laudatzen zituztenak haren hitz sainduak. Heien doktor batek ikhusririk zein ungi mintzo zen Salbatzaillea, hartu zuen haren alderako fidantzia handi bat, galdegin zion: zein da manamendu guzietan lehena eta handiena? Jesusek ezin hobeki ihardets ziozokeien legea beraren hitzez baino, zeinek baidakharkete ez dela Jainko bat baizik, hura behar dugula maitatu gure bihotz guziaz, gure arima guziaz, gure izpiritu guziaz, eta gure ahal guziez; behar dugula oraino proximo laguna maitatu gure buruak bezala, bi manamendu hauk elkharri datxeizkola, eta hetan datzala gure legearen perfekzione guzia. Doktorak aithortu zuen Salbatzaillea ezin mintza zitekeiela yustukiago, etzenaz geroz Jainko bat baizik; erran zuen oraino Jainko hura, eta proximo laguna maite zuenak, Jesusek zioen moldean, gehiagorik egiten zuela ezen ez ofrenda baletza munduko sakrifizio guziak. Salbatzailleak laudatu zuen doktorak bere hitzetan erakutsten zuen zuhurtzia; erran ere zion: hurbildua zara zeruko erresumarat, abiadura on bat duzu han sartzeko.

Salbatzailleak bazakien hainitzek etzutela lakhet haren predikutan; ordean nola guziak seguratuak baitziren haren hitz bakotxa hanbat egia zela, etzen bat atrebizten hari galderik egiterat. Hobeki argitzekotzat bere aditzaileak, erran zioten tenpluan ziren farisauak: zer zaitzue Mesiasiez? Noren semea dela uste duzue? Ihardetsi zioten Dabiten kastatik athera behar zela. Jesusek horren gainean erran zuen: skribek ere gauza bera diote, eta arrazoin dute; ordean ez dute erraten guzia. Mesias ez bada Dabiten semea baizik, nondik heldu da Dabit berak (Mesiasiez mintzo denean) deithzen baidu bere Jauna? Zergatik bada erraten du bere salmotan: entzun dut, Jauna erraten ene Jaunari: yar zaite ene eskuineko aldean: zure alde agertuko naiz: huntaraino geheraturen ditut zure etsaiak non ezarriren baiditut zure oinen azpian. Dabit hunela mintzo othe lite-



ke bada Mesiasen handitasunaz ez izaterat bertze titulurik Dabiten seme izatekoa baizik?

Salbatzailleak ematen zuen bere hitz sailduz erakutsterat Mesias Dabiten semea zen bezala, orobat Jainkoaren semea zela. Populuak sinhetsi zituen haren erran guziak: Doktorek berek etzakiten zer ihardets; handik harat nihork etzion egin galderik gehiago nausi dibonoari; bainan bera mintzatu zitzaioten bere dizipuluei yuduen doktozez, zeinak saildutasunezko fama handian baitziren bazter guzietan. Salbatzailleak, hetaz mintzo zela, eran zuen yarriak zirenaz geroz Moisen alkhiairen gainean, entzun behar zirela explikatzen zutenean legea; ordean etzitustelakotzat erraten zituztenak berek egiten, aski zela sinhetstea heien hitzak yarraiki gabe hekin obrei; ezartzen zituztela karga pisuak bertzeen bizkarretan, eta berek etzituztela ukitu ere nahi; bizitze guri bat zaramatela; nahi zituztela lehenbiziko lekhuak mahainean, eta alkhirik ohoratuenak tenplutan; nahi zutela guziek egin ziozoten agurra, eta eman ziozoten nausiaren izena. Zuetaz bezanbatean (erran zioten Jesusek bere dizipuluek) ez zabiltzatala nausiaren eta aitaren izenaren ondoan: haurrideak zarete guziak, zeruko aitaren ume berak: nor ere altxatuko baida, eta hura izanen da beheratua; berriz, nor ere beheratuko baida, eta hura bera izanen da altxatua.

Jesusek kondemnatu zituenean skribeen eta farisauen guritasuna eta suphertasuna, mintzatu izan zen amoinari zatxeikon merezimenduaz Jainkoa beragatik zenean egina. Yarri izan zen populuak bere ofrendak egiten zituen lekhotik hurbil, ikhustekotzat nork zer ematen zuen. Aberatsek diru hainitz ofrendatu zuten; halarik ere, hekin amoina handiak baino gehiago laudatu zituen alhargun pobre batek eman zituen bi kornadu. Emazteki erromes haren bihotz-ontasunak atsegin egin zion Salbatzailleari: erran ere zioten bere dizipuluei: egiaz mintzo natzaitzue. Alhargun hunek bertze guziek baino gehiago eman du: bertzeek ez dute eman bere ontasunen parte xume bat baizik; ordean hunek eman du eman ahal zeza-keien, eta bizitzeko behar zuen guzia.

Hipokrisia da gaixki bat hanbatenez higugarria zenbatenez hartzen baidu berthutea bera bere maleziaren estalkitza. Errelijioneak ez du deusere errespektagarriarik eta saildurik hipokrisiak gaixtatzen ez duenik. Hipokrisiak eskarniatzen du berthute guziak errexkiago enganatzekotzat mundua. Batean emetasuna, bertzean modestia; orai humiltasuna, sarri karitatea; badaki guziez balitazen bere ganatzeko gizonen estimua eta laudorioak. Hipokrisiaren phozoina sartzen da begitarik eta beharritarik. Sathanez ez bide du hipokrisia baino arma seguragorik arimen gal-arazteko-tzat. Heresia gehienek bizio hartan ohi dute bere ethorkia; ez da hetarik

batere hastean kanpo eder bat erakutsi ez duenik. Arius heretiko ospe handitakoak, eta hanbat desmasia egin izan duenak hunenbat humiltasun agertu zuen non bere ganatu baitzuen Alexandrian ziren arima Jainkotiar guzien fidantzia. Lutherek eta Kalbinistek mortifikazione handiago bat hartu zuten estakurutzat bazterren izurritzatzekotzat bere ilhumbe dam-nagarriez.

Ez da miretsteko Jainkoak kondemnatu izan baidu zorrotztasun guzian hipokrisiako bekhatua, erran badu zorigaitz zuentzat, farisauak eta skribak. Kanpotik xurituak diren hobien iduriko zarete. Barneak galduak eta ustelduak dituzte: ez duzue zeren iguriki sarturen zaretela ene erresuman. Nor mintzo da hunela? Jesu-Kristo, emetasuna eta miserikordia bera dena. Ezagun da haren hitz saildutarik hipokrisia zein bekhatu handia den haren begietan: ez dugu ere nihon ikhusten konbertitu izan duela hipokritarik batere.

Ala baidut, Jauna, zertaz kondemna ene burua hipokrisiaren gainean! Zenbatetan ez diot nahi izan sinhets-arazi munduari humil, prestu, garbi nintzela pasione gehienak nausituak ziren denboran ene bihotzean! Zenbatetan ez dut izan artha gehiago agradagarriago agertzeko munduaren begietan, ezen ez zure begietan! Zenbatetan ez naiz lorifikatu ene ahalkeria eta kondemnamendua eaiten zuten flakezia eta eroriko humilia-garriez berez! Ikhusten duzu, o Salbatzaille amultsua! ene bihotzeko urri-kia. Bai, damu dut ene obra onetan sartu ahal ditezken xede gaixto guziez. Hitz ematen darotzut, ontasuna bera zaren Jainkoa, ez dudala bilhatuko ethorkizunerat zure loria eta ene salbamendua baizen ene hitz eta obra guzietan.



XLIV. KAPITULUA

Azken yudizioaz.

Jainkoa da bakharra dakiena

noiz izanen den azken yudizioko eguna

Matth. 24.

Jesus athera zenean tenplutik eta Yerusalemetik, bere dizipuluek othoitztu zuten itzultzeaz begiak tenpluaren gainerat, ikhustekotzat mirakuilluzkoa zirurien obra hura. Hetarik batek erran zion: nausia, ederrets zatzu hango harri eta gauza miragarri guziak. Jesusek ihardetsi zuen: ikhusten tutzue zuen begiak lilluratzen dituzten obra eder horiek guziak? Bada, yakin ahal dezakezue ez dela geldituren harria harriaren gaienan: hitz hauk erran eta yoan zen azitun, edo Olibetako mendirat, eta yarri zen han. Hurbildu zitzaizkon dizipuluak, eta othoitztu zuten errateaz noiz yasan beharko zituen Yerusalemek, haren hitzen arabera, igurikitzeo zituen zigorrada ikharagarriak? Zertarik ezagutuko zen haren mundurat ethortzeko eguna, eta noiz izanen zen munduaren akhabantza.

Jesusek ihardetsi zuen dizipuluen galdeari: erran zioten ordu hartan izanen zirela profeta faltsoak lehiatuko zirenak hekin enganatzerat. Begira zatzue hetarik zuen buruak; non ez, atzemanak izanen zarete. Hetarik hainitzek erranen dute ene izenean heldu direla, Kristo direla, eta horra nola enganatuko duten asko mundu. Oraidanik egiten zaituztet hauk guziez yakintsun izan etzaitzentzat atzemanak. Yuiamenduko eguna hurbiltzerat, ikhusiko da odola zurrutan alde guzietarik. Guziek yazarriren diote elkharrri. Altxatuko dire hiriak hirien kontra, erresumak erresumen kontra. Gudu, asaldu eta gerlate guzien buruan, ikhusiko dire ohi bezala, izurria eta gosetea. Ene dizipuluak zuek izanen zarete gehienik pairaturen duzuenak. Mundu guziaz presekutatuak eta higunduak izanen zarete, kondemnatuak ere izan zarete heriotzerat; ez duzue ordean zeren izan deuseren beldurrik: emanen darotzuet garaitia zuen etsaien gainean. Irakhatsiko darotzuet zer ihardetsi beharko duzuen behar orduan; zer nahiden dela, eramaten badarotzue bizi labur eta dolorezko hori, nik agintzen darotzuet bertze bizi bat irauen duena eternitate guzian.

Deusere seguragorik nola azken yudizioa; ordean noiz izanen da? Hori da gauza bat nihork ez dakiguna, zeruko ingeruek berek ezagutzen ez dutena: ene aita da bakharra, dio Jesu-Kristok, egun eta oren haren berri dakiena. Zaudete (dio oraino Jesu-Kristok) atzarriaketa othoitzean

oren hura ethor ez dakizuentzat gutienik uste duzuenen. Orrhoit zaitzete oren hari darraikola eternitateko zuen zoriona, edo zorigaitza; betetan ethorriko dela, eta lurraren gainean diren guziak hartuak izanen direla saretan bezala. Zuei dagotzue erne egotea ez izatekotzat atzemanak. Nahi badituzte eman zuen buruak Jainkoak munduaren punitzeko egorriren dituen gaztigu ikharagarrien gerizean, zaudete atzartasunean eta othoitzean: molde huntan gai izanen zarete fidantzia saindu batekin agertzeko Jainkoaren tribunalaren aitzinean.

Yuiamenduko egun handi hartan, Salbatzaillea ethorriko da bere loriaren distadura guzian, bere aingeruez inguratua. Yarriko da bere maiestate adoragarriaren tronuaren gainean, eta lurreko populu guziak bilduko dire haren aitzinerat, bere errege eta bere yuiearen aitzinerat bezala. Ekharri baino lehen behin-bethiko zorionezko, edo zorigaitzezko sententzia lazgarria, berexiren ditu batzuk bertzetarik, artzain batek bildotsak akherretarik berexen dituen molde berean. Ezarriko ditu bildotsak (onak) bere eskuineko aldean, eta akherrak (gaixtoak) ezkerreko aldean. Erranen diote eskuineko aldeko: zatozte, zuek, ene aitaz benedikatuak, goza zaitzete munduaren hastapenetik zuentzat aldaratua den, eta, ene odolaren goztuz, zuentzat erosi izan dudan erresumaz. Mereziduzue han sartzea; ezen gose izan naizenean, eman darotazue yaterat, egarri nintzenean, edaterat; egoitzarik gabe nintzenean, hartu nauzue zuen etxetarat, soinekoak eman darozkidatzue bulhuzia nintzenean; ikhusi eta kontsolatu nauzue ene eritasunetan; preso nindagonean ere egin darozkidatzue laguntza guziak.

Hitz kontsolagarri hauk erran ondoan arima yustuei, Salbatzaillea itzuliko da ezkerreko alderat, eta erranen diote gaixtaginei boza min eta erdiragarri batekin: urrun zaitzete ene ganik, madarikatuak, zohazte Jainkoaren yustiziak Luzifer, eta haren lagun gaixtoentzat biztu duen, eta eternitate guzian irauen duen surat. Bere bidean da izan zaitzeten tormenta-tuak; ezen ez darotatzue eman yaterat gose nintzenean, ez eta edaterat egarri nintzenean; egoitza gabe nintzenean, ez nauzue hartu zuen etxetarat; ez darotazue eman soinekorik bulhuzia nintzenean; ez nauzue ikhusi preso nindagoenean. Gaixtagin dohakabeek galdeginen dute: noiz, Jauna, ikhusi izan zaitugu sofrikarietan eta beharrean zuri emateko gure lagun-tza? Salbatzailleak ihardetsiren diote, pobreen alderat urrikalmendurik izan etzuten aldi guziez hari berari eskas egin izan diotela. Bera zela guzien aita eta buruzagia, eta beretzat hartzen zituela pobreen alderako ungiak eta gaixkiak. Salbatzaillea gelditu zen predikatzetik; etzen gehiago mintzatu populuaren aitzinean: bere heriotzea zarabillan gogoan.



Deusere seguragorik nola gure heriotzea; deusere ordean dudazkoa-gorik nola heriotzeko orena. Guk dakigun guzia da gizonaren semea ethorriko dela igurikitzen ez dugula, beraz, gutien ustean hillen garela. Zer itsumendu! herioak atzeman gaitzake momento guzietz; Halarik ere bizi gara deskantsuan, segur bagine bezala herioa gure ganik urrun dabil-lala. Noiz eta ere gizonak uste baidu aphur bateko dela munduan, eta ordu hartan berean, dio zuhurrak, izanen da herioaz atzeman arraina amuaz, eta xoria sareaz bezala.

Aurthen hil direnean artean, ez ahal zen bakhar bat uste etzuenik bizi urthe bat gehiago. Eta aurthen hillen direnetarik ez bide da bat agin-tzen ez dioenik bere buruari bertze urthe baten bizia. Nor yarriko da berme bihar munduan izanen naizela: erran nahi da beraz gaur berean hil naitekeiela. Hala gertha baledi, behar banintz, bi orenik barnean, Jainko-aren aitzinean agertu kontu ematerat denbora galduaz, grazien arbuioaz, nolakoa liteke entzun behar nukeien eternitateko sententzia!

Ala gauza lazgarria baida agertzea yuie ikharagarriaren aitzinean erregelatu gabe kontzientzia, garbitu gabe bihotza! Ala baidire urrikaltze-ko mundu huntarik, bet-betan, edo zenbait egun bakharretako eritasune-tik lekhora eternitatean sartzen direnak! Hamar, hogoi urthe eta gehiago bekhatutan eraman dituzkegunean, zenbeit aste eta ilhabete sobera othe gintuzke bada heriotze saindu baten egitekotzat! Eta arte hek, ilhabete hek, gure eskuko ditugu?

XLV. KAPITULUA

**Yudasek saltzen du Jesus bere nausia.
Sakramendu Sainduaren establimendua**

Matth. 26.

Salbatzaillearen etsaiak, erran nahi da, skribak, farisauak eta sinago-gako bertze buruzagiak, bildu izan ziren Kaife aphez-handiaren etxerat elkhar aditzekotzat Jesusez yabetzeko, eta haren hil-arazteko moldearen gainean. Etziren berehala hartan eman. Mundu oste handi bat ethorria zen Yerusalemerat bazkoko bestarat: farisauak eta heien bertze lagunak bazakiten guziek ohoratzen zutela Salbatzaillea, beldur ziren gertha zadin zenbeit asaldura populuaen artean, heldu baziren yabetzerat ordu hartan Jesusez; ordean bazkoko bildotsa bera zenak bazko egunarekin eman nahi zuen bizia; horra zergatik permetitu zuen etsai gaixtoa sar zadin Judasen bihotzean. Judas apostolua agertu zen Kaifaren etxerat, eta erran zioten han bilduak zirenei: zenbat nahi darotazue eman, eta nik largaturen darotzuet Salbatzaillea zuen eskutarat? Zer bozkariozko berri sinagogako buruzagientzat! Agindu ziotzoten Judas traidoreari hogoi eta hamar diru peza, erran nahi da, berrogoi eta hamar libera. Halatsu zuen balio gathi-bu batek saltzerat. Prezio hartan berean nahi zuen izan saldua zeruaren eta lurraren yabe soberanoak.

Biharamunean zeina baitzen ortzeguna, eta hiltzeko bezpera, Jesus etzen Yerusalemen sartu. Gelditu zen Olibetako mendian. Mintzatu zitzaian dizipuluei bere heriotzeaz, eta irakhatsi zioten nolako amudioa izan behar zuten elkharren alderat. Egorri zituen Piarres eta Joanes aphaintzerat Yerusalemen bazkoko behar ziren gauzak. Zohazte, erran zioten, Yerusalemerat: han sarthu bezain sarri bathuko duzue gizon bat pegar bat ur daramana. Yarraik zakizkote, eta erran diozazue hura sartu-ren den etzeko nausiari, han egin nahi dudala bazkoa ene dizipuluekin. Erakutsiko darotzue lekhu handi eta eder bat. Han aphain zatzue behar direnak. Piarresek eta Joanesek konplitu zuten nausiaren manua. Jesus joan zen arrats aphalean, bere dizipulu guziekin lekhu hartarat.

Ethorri zenean yateko muga, Jesus yarri zen mahainean. Eman zio-ten bere dizipuluei erakutsterat bethidanik zuen nahi handia hekiekin egi-teko azken bazkoa. Erran zioten galdu behar zuela laster bizia. Eta haren hirrits handiena, sorthu zen oren beretik, zela bere burua bere aitari sakri-fikatzea mundu guziaren salbatzekotzat. Othuruntzaren erditarat zire-



nean, Salbatzailleak eman zioten oraino humiltasunezko exenplu eder bat, handitasunezko gogoeta guziak hekien izpirituarik khen arazteko gai zena, eta erakhatsten zuena garbitasun handi batekin beharko zela hurbildu laster establitzerat zohan sakramendurat. Altxatu zen mahainetik, utzi zuen soinekoen gainetik erabiltzen zuen arropa luzea; hartu zuen oihal bat aitzinean, eta eman zen bere apostoluen oineen garbitzen. Hala-ko humiltasunak harritu zituen apostoluak. Piarresek beregainki ezin garai zezakeien bere baitan bere nausi dibinoak garbi ziotzoinak: ez, Jauna, (erran zion) ez dut niholere laudatuko eman zaitezzen eginbide hortan. Jesusek ihardetsi zion: ez dakizu orai zer egiten dudan, baina yakin duzu gerorat. Piarres egundaino bezain herabe zen utzterat Salbatzaillea haren oinen garbitzerat. Orduan Jesus mintzatu zitzaion hitz hautaz: baldinetariak ez badarozkitzute oinak garbitzen, ez zaitut ezagutuko ene dizipulutzat. Apostolu sailduak ihardetsi zion: Jauna, hori horrela denaz geroz, garbi dietzadatzu ez bakharririk oinak, baina oraino eskuak eta burua. Karitatezko eta humiltasunezko exenplu handi hartarik lekhora, Jesusek yauntzi zuen utzi zuen arropa luzea: yari zen berriz mahainean, eta erran zioten bere dizipuluei izaterat zohala hetarik batez saldua eta largatua bere etsaieen eskutarat. Solas hunek laztu eta damuztatu zituen dizipuluak. Bat-bedera hasi zen erraten: ni othe naiz hura? Jesusek ihardetsi zioten: ni salduko nauena mahainean da enekin yarria. Zorigaitz bere Salbatzaillea trahituko duenarentzat. Hobe izanen zen harentzat ez balitz egundaino ethorri mundurat.

Yudasek izan zuen atrebentzia galdetzeko Salbatzailleari hura othe zenez haren saltzaillea. Jesusek ihardetsi zion ahopean, eta ohiko bere arraitasunarekin: bai, zu zare salduko nauzuna. Uste izateko da hitz ahopean erran hauk ez zirela hedatu bertze apostoluen beharritarat. Urrun da igurikitzen baitzuten gertha ahal zitekeiela heien artean bakhar bat gai zenik halako gaixki izigarri baten egiteko. Othuruntzaren azkenerat, gizonen alderako Jesusen amudioa seinalatu izan zen bere gaididura guzian, eta molderik espantigarrienean. Eman izan zuen yaterat yanari guzietarik gozoena eta perfetena; erran nahi da, bere gorphutz sakratua. Hartu zuen ogia eskutan, benedikatu zuen, hautsi zuen, eta eman zioten bere dizipuluei, erraten zuela: hau da ene gorphutza. Hartu zuen orobat khaliza, benedikatu zuen ogia egin zuen bezala, eman zioten dizipuluei eskutarat erraten zuela: edan ezazue guziek huntarik, orai ematen darotzuet edaterat ene odola arnoaren iduriaren azpian, eta oren laburrik barnean, isuriko dut gurutze baten gainean, mundu guziaren begietan bekhatuen borratzekotzat eta gizon guzien salbamendukotzat. Nola nahi baidut ene herio-

tzearen orhoitzapena iragan dadin mende guzien akhabantzarin, ematen darotzuet zuei ere botherea eta manua egiteko nik egiten dudana.

Sakramendu sailduaren establimentua bide da, Jainkoaren obra espantigarrien artean, guzietarik miragarriena, eta gure ganako haren amudioa gehienik seinalarazten duena. Jainko bat, zeru lurak bere maies-tate adoragarriaz bethetzen dituena, aingeru garbiak berak ikharan daduzkana aurkhi dadin bada, gau eta egun, gure elizetan, hostia xume batean! Erran dezan gurekin izateak egiten duela haren atsegin handia! O! bihotz ontasun ezin erranezkoa! Jainko bat egin zadin gizon gu etsaiaren gathibutasunetik erostekotzat, isur zezan bere odol preziatua gure arimen garbitzeko eta salbatzeko; horra balinba iguriki behar ginduen baino fagore infinituki gehiago. Salbatzaillearen miserikordia ez da hortan gelditzen. Urrunago hedatzen da. Etzaio aski bere bizia guretzat ematea, azkenaz goiti, bera, den guzia, bere yainkotasun guzian heldu da gure ganat ogiaren eta arnoaren iduriaren azpian. Zer amudiozko gaididura! Zer ezagutza ez diogu behar ekharri guretzat hanbat egiten duen Jesus maiteari!



XLVI. KAPITULUA

Yudas traidoreak ematen du Salbatzaillea soldaduen eskutarat

S. Luc. c. 22.

Yudasek bazakien Salbatzailleak othoitzean iragan gogo zuela heldu zen gaua Olibetako baratzean. Athera zen bertze apostuluen baltsatik erraterat sinagogako buruzagiei nahi bezalako parada zela yabetzeko Jesus ez harorik batere gabe. Salbatzailleak bazakien zer xede zaraman apostolu traidoreak; etzen hargatik gibelatu yoatetik bere dizipuluekin mendi hartarat. Mintzatu zitzaieten bidean hainitz gauza eder eta ukigarri haren heriotzeari zaronsetenez. Piarresek seguratu zuen haltoki etzela behinere urrunduren haren ganik; ordean nausi dibinoak eman zuen ezagutzerat Piarresek hartaz arnegatuko zuela, ukhatuko ere zuela ezagutzen zuela oilharrak, gau hartan, kantatuko zuen baino lehen. Adi-arazi zioten guziei on zela hastan zadin heien ganik hei egortzekotzat izpiritu saindua. Gomendatu zioten begiratzaz haren manamendu guziak, beregainki elkhar maitatzeaz. Erran zioten bere apostoluei persekutatuak izanen zirela; ordean grazia eginen ziotela atsekabe guzien pairatzeko pazientziarekin eta bozkariorekin. Azkenean gomendatu ziotzon amultsuki bere aitari gizon guziak, guziz, bere apostoluak. Iragan zen gero bere hameka apostoluekin Gethsemani zaritzon lekhu baterat. Manatu zituen apostoluak egoteaz gau hartan othoitzean, Jainkoari galdetzekotzat leihaltasuna eta iraupena.

Jesusek hartu zituen berekin Piarres, Yakobe, eta Yoanes bere dizipulu maiteenak, eta urrundu zen aphur bat bertze apostolutarik. Ordu hartan ikhara handi batek hartu zuen Jesusen gorputza, eta eman zitzaion tristeziari ikhusi zituenean bere dizipuluak lokhartuak, eman zen bazter batetarat, yari zen ahuspez, eta egin zuen othoitz hau: ene aita, khalitz hau urrun bedi ene ganik, egin ahal badaite: guziarekin egin bedi zure nahia, eta ez nerea. Othoitz bera doblatu zuen hiruretarainokoan bethi sumetimendu eta khar berarekin: odolezko izerdia zarion gorphutz guzitik. Hurbildu zenean bere hirur dizipulutarat, aurkhitu zituen oraino lo zaudela. Egin ziotzoten bere errenkura amultsuak ez damu gehiago erakutsteaz haren tristeziatz. Zer? erran zioten, lo zaudete bada! Ezin egon izan zarete bada, oren batez, enekin atzarriak?

Jesusek erran zioten bere hirur dizipuluei ordu zela yaikitze eta hari yarraikitze; ethorria zela orena zinetan gizonaren semeak utziko baitzuen bere burua bere etsaieen eskutarat. Abia gaiten (zioen Jesusek) ni trahituren nauena ez da hemendik urrun. Ez zitzaion eman ihesari, aitzitik bera athera zen haren hartzerat heldu zireneen biderat. Hek ziren mandurel multzo bat, gehienak farisauen manukoak edo sehiak. Berekin zituzten ezpatak eta makillak, eta Judas traidorea zuten guzien aitzinean: apostolu dohakabe hark bazakien Salbatzaillea bere dizipuluez maitatua zela. Beldur zen yar zitezen bere nausiaren alde; eta bere gaixtagin lagunek ez zezaten, ilhun zelakotzat, ungi ezagut Salbatzaillea. Ez nahiz huts egin bere kolpea, erran zioten: nori ere emanen baidiot musu, eta hura bera izanen da zuek bilhatzen duzuen. Loth zakizkote, eta zuekin eramazue, itzuriko ez den bezala. Horrekin batean, Judas traidorea hurbildu zitzaion Salbatzailleari, erraten zioelarik: agur, nausia, eta ematen zioelarik musu. Dizipulu baten ganikako musu ondikoazko hark ez bide zuen egiten Salbatzaillearen tormentetarik arinena. Halarik ere, Jesusek hartu zuen traidorekeriazko musu hura anaia, edo aita batek eman izan balio bezalako malsotasunarekin. Adiskidea (erran zion Judasi) zertarat ethorri zara? Badakizu zer egiten duzun? Zer? musu baten bidez saltzen duzu bada gizonaren semea?

Jesu-Kristoren presentziak berak lastu eta ikharatu zituen mandurel hek. Salbatzailleak erran zioten haren handitasun adoragarriari zagokon maiestatearekin: noren bilha zabiltzate? Ihardetsi zioten: Jesus Nazarethkoaren ondoan gabiltza. Jesusek erran zioten: ni naiz hura. Hortan ere ematen zuen erakutsterat heriotzea pairatzen balin bazuen, bere nahitarat egiten zuela. Jesusek aiphatu zuenekotzat hitz hau: ni naiz, ikharak artikarazi zituen gaixtagin hek guziak lurrerat. Orduan ere Salbatzailleak eman zuen ezagutzerat Jainkoaren semea zela. Altxarazi zituen lurretik, eta erran zioten haren bilha zabiltzanaz geroz, etzutela konplitzea baizik bere nausien manua.

Yudu zoro hek ezagutu behar bidean Salbatzaillearen bothere guzizkoa, erori ziren haren gainerat gaixtaginik handienaren gainerat bezala. Yabetu ziren hartaz, eta estekatu zuten ahalik hobekiena. Min zitzaion dizipuluei ikhustea altxatzerat zaramatela bere nausi dibinoa; egin zuten haren atheratzerat etsaieen eskutarik. Piarresek khendu zuen ezpata maginatik, eta hartaz arraillatu zion beharri bat aphez-handiaren sehi, Malkuzaritzonari. Jesusi gaitzitu zitzaion apostoluaren orduko khar sobraniazkoa. Ukitu zuen bere eskuaz zauria, eta sendatua izan zen. Eraman zuten Salbatzaillea hobendun bat bezala, estekaturik aphezen printzearen aitziz-



nerat. Sinagogako buruzagiak hanbatenaz bozkariatu ziren ikhustean Jesus bere eskutan, zenbatenaz beldur baitziren, harturik ere, itzuriko zela zenbait mirakuillu eginik.

Ez da batere miretsteko baldin Salbatzailleak yasan nahi izan bazi-tuen bere bihotzean, eta bere pasionearen hastapenetik tormentarik lasti-magarrienak. Ikhusten zuen, urrundarik, herrestan erabiliko zutela Yeru-salemeko karriketari; izanen zela laidoz estalia, elhorriz khorotua, eta azkenean, itzeztatua. Gogoan zarabiltzan humiliazioa eta tormenta iguri-kitzen zituen guziak, eta horra zerk zaraman Jesus maitea tristeziarik han-dienerat. Zer lantza kolpe haren bihot samurrearentzat orrhoitzeaz bere dizipulu baten traidorekeria beltzaz, hanbat fagoratu zuen populu baten eskergabetasun izigarriaz! Zerk ordean gehienik zauritzen zuen Salbatzai-llaren bihotz amultsua? Zerk bada? baizik yakiteak alferretan zohala isur-tzerat bere odol sakratua hainitzentzat, eta arbuiaturen gintuela haren gra-zia preziatuenak berak. Gure bekhatuek, haren alderako gure ezagutza eskasak ahal zuten parterik gehiena haren lazduan eta odol-izerdian.

Jainko handia, saindutasuna bera zarena, eman nahi izan zaizko tris-teziari orrhoitzean gure bekhatuek, eta gu deskantsuan eta atseginpean bizi gare dakigularik bekhatutan phulunpatuak garela, ifernuko sua segur dugula non ez dugun egiten penitentzia! Ez duzu, o! Jesus emea, egiten errenkurarik den gutiena yazarri nahi darotzuten zure etsaiez, zure presu-na adoragarria laidostatzen dutenez, eta guk utzten ditugu gure buruak eraunsietarat, aseradurarat eta mendekurat iduritzen zaikunean ez garela aski ohoratuak edo heldu zaikunean zenbeit damu. Zer ahalkeria! zer itsu-mendu!

XLVII. KAPITULUA

Jesu-Kristo Anasen eta Kaifasen aitzinean

Matth. 26.

Yuduek eskutarat zutenean Salbatzaillea, eraman zuten lehenik Ana-sen aitzinerat. Hura zen aphez-handi urthe hartan. Anasek egin ziotzen zenbeit galde bere dizipuluen eta bere doktrinaren gainean. Salbatzailleak ihardetsi zion etzela behinere gerizean mintzatu, haren doktrina ezagutua zela gazter guzietan, aski zuela galdetzea hura entzun zutenei zer irak-hatsten zioten. Ingurutan zen aitzindari batek gaitzetsi zituen Salbatzai-llaren hitzak, eta izan zuen atrebentzia behar-ondoko bat emateko nausi dibinoari, erraten zioelarik hala behar zenez bada aphez-handi bati min-tzatu? Jesusek pairatu zuen laido humiliagarri hura Jainkozko emetasuna-rekin. Erran zion gizon dohakabe hari: *Baldinetariak gaixki mintzo banaiz, erakuts diezadazu zertan huts egiten duan; ordean ungi mintzo banaiz, zertako jotzen nauzu?*

Arte hartan aphezeen printzeak bildu izan ziren Kaifasen etxerat. Salbatzaillea eramana izan zen hekin aitzinerat bere yuiamendua hartze-rat, gaixtagin bat izan balitz bezala; etzuten lekhukotasun beharrik Jesu-sen kondemnatzeko, bere baitarik ekharriak ziren haren gal-arazterat: ordean errana izan etzadintzat arinkiegi yuiatzen zutela, eta legearen erre-gelak begiratu gabe, irabazi zituzten zenbeit lekhuko faltso erran zutenak entzun zutela Salbatzaillea erraten, esku guzia bazuela lurrerat artik-araz-teko Jainkoaren tenplua, eta haren erreberritzeko hirur egunik barnean. Egia da Salbatzaillea mintzatu zela lekhuko faltsoek zioten bezala; ordean bere gorphutzaz mintzo zen: erran nahi zuen hillen zela, eta lorioski athe-rako zela lurretik hirur egunen buruan. Lekhuko faltsoak etziren kon-puntzen bere erranetan, eta heien akusurik handienak etziren aski gizon baten gal-arazteko.

Aphez-handiak ikhusirik Jesus ixillik zagoela, altxatu zen, eta erran zion: manatzen darotzut, Jainko biziaren izenean, errateaz zu othe zaren kristo, Jainkoaren semea. *Ungi mintzo zara* (ihardetsi zuen Jesusek), bai, hura bera naiz; ordean ez duzue sinhetsiren, eta ez nauzue largatuko. Halarik ere, *laster ikhusiko duzue gizonaren semea* (izen hau hartzen ohi zuen Salbatzailleak mintzo etzenean bere gizontasunaz baizik), *laster ikhusiko duzue gizonaren semea yarria bere aita guziz boheretsuaren eskuineko aldean zeru-ko hedoi baten gainean ethortzen*. Aphez-handiak entzun zitueneko Salbatzai-



llearen hitzak, hautsi zituen bere soinekoak (hori zen blasfemia bat entzun zuelako seinalea) eta abiatu zen boza altxaturik erraten: blasfema-tu du: ez dugu bertze lekhukotasun beharrik. Zer zaitzue bada? guziek ihardetsi zuten merezi zuela heriotzea, kondemnatu ere zuten hartarat.

Zer humiliazione espantagarri! Zer konfusione laidotsu mundu guziaren Salbatzailearentzat ikhustez bere burua idoiztatua, gezurtizat, profeta faltsotzat hartua! Zer? Jesu-Kristo, gizon guzien yuie soberanoa, saindutasuna bera dena, eramana da bada yuie gaixtagin baten oinetarat! Kondemnatua bada gaixki egillerik handiena bezala, bere bizia galtzerat!

Jesu-Kristo loriaren erregea, aingeruek ikharan adoratzen dutena, largatua da soldadu errabiatu batzuen trufa eta fulia guzietarat, gau oso bat iragaterat hekien dosteta, kolpe, eta intsolentzia guzien erdian! Haren gorphutz garbi eta sakratua emana da sarraskitan! heuk guziak zergatik? ene salbatzekotzat. O! amudio ezin konprenituzkoa, eta sekulan ezin aski pagatuzkoa!

XLVIII. KAPITULUA

**Piarresak ukhatzen du Jesu-Kristoz,
eta Yudasek urkhatzen du bere burua**

Jesu-Kristok iragan zuen beraz gau oso bat soldaduen eta aphez-handiaren sehietarik yasan behar zituen arbuio eta gogortasun guzien erdian. Yaun-doni Petri yarraiki zitzaion bere nausi dibinoari, eta eman zen berotzen Kaifasen etxe aitzinean biztu zuten su batean. Hitz eman zion Salbatzaileari lehenago hillen zela ukhatuko zuen baino haren dizipulutarik zela. Ala iraupen guti izan baitzuen haren kharrak! Sehi herbal baten hitza aski izan zen dizipulu haren fermutasuna kordokatzeke eta haren gezurt-arazteko. Sehi hura hurbildu zitzaion Piarresi, eta galdegion zion: etzara zu Jesus Nazarethko, eta mundu guziaren tronpatzaille haren dizipulutarik? Ustekabeko galde hunek ikharan eman zuen apostolu flakoegi hura. Ihardetsi zuen etzuela ezagutzen. Soldadu batek hartu zuen haren mintzotik Galileakoa zela: egin zion galde bera: Piarresak, orduan ere, ihardetsi zuen etzuela Jesus ezagutzen. Handik oren baten buruan, aphez-handiaren sehi batek ikhusi zuen Piarres berotzen zagoela, eta erran zuen Jesusen dizipulutarik zela, seguratu ere bazuen ikhusi zuela apostolu hura Jesus hartua izan zen oren eta baratze berean. Piarres beldurtu zen hartaz yabe zitezen: erran zuen hirurgarren aldikotzat, eta yuramentu eginik, etzuela egundaino Salbatzailea ezagutu. Denbora berean kantatu zuen oilharrak. Jesus etzen handik urrun: artiki zuen behatze amultsu bat dizipulu iziper haren gainerat, eta orrhoit-arazi zuen erran izan zioenaz. Piarresak ezagutu zuen, ordu beretik, bere hobena: haren bihotza zaurhua izan zen damurik minenaz. Athera zen nigar marrasketan lekhu hartarik, iragan zituen hirur egun auhendatzen bere desleihaltasuna.

Biharamunean, argitu zeneko, aphezak eta legeko doktorak bildu ziren elkhar ganat: erakharri zuten Salbatzailea bere aitzinerat gaixtaginik handiena izan balitz bezalako moldean. Berriz ere galdetu zioten hea Kristo zenez, hea Mesias zenez. Jesusek ihardetsi zioten: baldin erraten badarotzuet nor naizen, ez duzue emanen sinhetsterik ene hitzetan: baldin nik ere zerbait galdetzen badarotzuet, ez duzue ihardetsiko, eta ez nauzue emanen libertatean; ezen ethorria da ene orena. Yakin ezazue bakharrik gizonaren semea laster yarriren dela Jainko bere aitaren eskuineko aldean. Orduan guziak abiatu ziren erraten: beraz Jainkoaren semea zare?



Ihardetsi zuen: *egja diozue erratean hura naizela*. Egin zuten harramantza handi bat, eta hasi ziren erraten: ez dugu bertze lekukotasunen beharrik gehorrek haren ahotik entzun dugunaren ondoan. Bere artean konpartitu zuten libratu behar zutela Salbatzaillea Ponzio Pilatusen eskutarat. Hura zen Yudeako aitzindaria zadukana erromarrentzat: berek etzuten nihor hil arazteko botheririk.

Zer humiliazioe Jesusentzat! kondenatua da agertzerat gaixkirik handienaren ezagutza hartzen zuen yuie atze baten aitzinerat. Haren gantzekatzen iragan behar zen munduz betheak ziren Yerusalemeko karriketant gaindi, eskuak amarratuak, gaixki egillerik handienaren planta berean. Hulako ikhugarrri ukigarriak hautsi zuen Yudasen bihotz gogorra. Dizipulu dohakabe hark ikhusi zuenean bere nausia kondenatua aphezhandiaren tribunalean, eta gobernadorea ganat eramana bere azken sententzia hartzerat, ezin egon zen abhorritu gabetarik bere traidorekeria. Iduri zuen penitentzia egin nahia zela bere bekhatu izigarriaz. Erran zioten sinagogako buruzagiei gaixki handi bat egin zuela trahitzeaz, eta gal-arazteaz yustua zen gizon bat. Aithor hunek bazuen zertaz bere baitan far araz buruzagi hek; urrun da ordean ezagutu baitzuten bere gaixkia. Ihardetsi zioten Yudasi: guk zer axola dugu urriki duzun, edo ez, guri Salbatzaillea saltzeaz: hori zure egitekoa da, eta ez batere gurea. Pagatu izan zaitugu: ez duzu beraz ikhukizunik gure gainean.

Dizipulu traidoreak ezagutu zuenean etzuela deusere irabazten bere aithor berankhorraz, artiki behar bidean bere burua Jaunaren miseridien oinetarat, fidantzia saindu bat izan behar bidean haren gana zinez bihurtzen direnak behinere arbuiazen ez dituen Salbatzaillearen ontasun infinituan, eman zitzaion desesperamenduari. Artiki zituen bere hogoi eta hamar diru-pezak aphezak bilduak aurkhitzen ziren tenplurat, eta urkhatu zuen bere burua.

Ala indar handia baidu Salbatzaillearen behatze amultsuak! Piarresek etzuen ezagutzen bere gaixkia, bederen etzuen hartaz behar zen urrikia Jesusek bere begiak hedatu zituen arteraino haren gainerat. Orduan orrhoitu zen bere eroriko humiliagarriaz, orduan isuri zituen nigarrrik kharsenak, orduan hasi zen penitentzia dorphe baten egiten. Zenbat ere baigara bekhatuz gaindi eginak, ez ditugu guk ere ikhusten Jaunaren miserikordiak ez baditu artikitzen gure gainerat bere urrikalmenduzko begiak, ez bagaitu argitzen bere grazia sainduaren arraio salbagarriez.

Jaunaren probidentzia miragarria da bere obra guzietan. Permetitu badu bere elizaren buruzagia eror zadin gaixki handi batean, hori egin izan du apostoluen printzeak eta elizako artzainek ikhas zezatentzat bere

experientziak beraz urrikari izaten bekhatoreak bere flakezia guzietan. Piarresen penitentzia balia daite penitent guzien mirail eta exenplu eder batentzat. Apostolu haren penitentzia ez da mintzo; ordean egiten du gainerako guzia. Funtsean, zertako dire hitzak obrak berak mintzo direnean? Ez dut entzuten, dio San Ambrosiok, Yaun-doni Petriren boza; ordean ikhusten tut haren nigarrak. Nigar zorionezkoak! nigar preziatuak! ez dute galdetzen barkhamendua; ez dute ordean gutiago merezitzen.



XLIX. KAPITULUA

**Pilatusek ez du ezagutzen
Jesu-Kristo baitan hobenik.
Halarik ere kondenatua da
azotatua izaterat**

S. Matth. 27.

Salbatzaillea izan zen beraz, eskuak estekaturik, eramana Pilatusen palaziorat. Berria hedatua zen bazter guzietarat legeko doktorek eta sinagogako buruzagiek ezagutu zutela azkenean Jesus, orduraino Jainkoaz egorria zen gizon saindu batentzat zadukatena, gezurti eta profeta faltso bat zela; gehiago dena, sorgin bat eta majiziano bat zela: Beelzebuten laguntza behartzen zitzaioela etsai gaixtoak gorphutzetarik khentzeko, eta bertze mirakuillu guzien obratzekotzat. Gaixtaginek eman zioten gezurriari egia iduririk ederrena. Herrautsa artiki zuten mundu guziaren begitarat, eta sinhets-arazi zuten nahi zuten guzia. Populuak orduraino Jesusen alderat izan zuen errespektua izan zen itzulia haren alderako arbuioatarat. Hirur egun lehenago, Jesusen ohoretan, bozkarioz, errepikaz, *hosanna* erraten zutenak abiatu ziren oihuz erraten: *tolle, etc*

Pilatusek ikhusi zuenean Salbatzaillea gaixtagin baten plantan, erran zioten yuduei: zertako galdetzen zuten gizon haren heriotzea? Guziek, boz beraz, ihardetsi zuten ez liozoketela galde haren heriotzea ez balitz gizon gaixto bat. Pilatusek etzuen lakhet bere sententzien ekhartzea arinki eta airezko akusuen gainean: erran zioten yuduei yuia zezatela bere bere legearen arabera. Orduan populua aitindariak agertu ziren Pilatusen begietarat: erran zioten Jesusez gizon populua altzarazten zuen nahasi bat zela, etzuela nahi bihur zakion Zesari zor zitzaiona, eta bere burua yuduen erregetzat, eta Mesiatzat egiten zuela. Pilatusek entzun zituenean ekhartzen zituzten frogarik gabeko hirur akusuak, ezagutu zuen gaixtakeria beltzak zarabiltzala izpirituak. Jesusen baitan, eta ordu hartan berean, seinalatzen ziren emetasun eta deskantsu osoak hanbat lekhuo ageri ziren haren inozentziaren alde altxatzen zirenak.

Pilatusek erakharri zuen Salbatzaillea bere aitzinerat, egin ziotzon galdeak hirur akusu heien gainean; ordean Salbatzaillea etzen batere mintzatu. Gobernadoreak erran zion: zer? ez darotazu deusere ihardetsten? ez duzu ikhusten zutaz zer dioten? Jesus bethi ixil zagon: Pilatusek hartu zuen zerbait misterio behar zela ixiltasun hartan. Egia othe da bada (erran

zion oraino) yuduen erregea zarela? Zer egin duzu bada? Zer bide eman izan diozute yuduei sinhetstekotzat errege izan nahia zarela? Jesusek ihardetsi zuen garbiki: ene erresuma ez da mundu huntakoa. Ez naiz zerutik yausti lurreko errege izatekotzat. Hala banintz ene armadetako aitzindariak eta soldaduek fite athera nintzakete ene biziari nahi dioteneen esku-tarik; ordean erran darotzudan bezala, ene erresuma ez da beheare huntakoa. Errege zare beraz, erran zion Pilatusek? Bai, ihardetsi zuen Jesusek, errege naiz zuk diozun bezala; sorthu naiz, eta ethorri mundurat egia lekhukotasuna bihurtzeko; egiaen alde denak entzuten du ene boza.

Pilatusek, zenbat ere paganoa baitzen, ezagutu zuen bazela Jainkozko zerbeit gizon haren baitan. Galdegin zion: zer da egia? utzi gabe Jesusi haren galdeari ihardetstekoa astirik, bihurtu zuen yudutarat, erraten ziotela: ez dut ikhusten gizon hau zertaz ahal den hobendun: ez dut hunen baitan aurkhitzen zertaz kondenatua. Ekharria zen Jesusen libratzerat. Populuaren buruzagiek, hori ikhusi zutenean, abiatu ziren egundaino baino lehia eta khar gehiagorekin erraten, behar zuela izan heriotzerat kondenatua; populua asaldaratzaille bat zela; banatzen zituela, hirur urthe hetan, hasi Galileatik eta Yerusalemeraino irakhaspenik gaixtoenak.

Pilatusek yakin zuenean Jesus Galileakoa zela: egorri zuen hura eta haren akusatzailleak Herodes, Galileako printzea gana. Herodes yakin-tsun zen Jesusen obra espantagarriez: atsegin hartu zuen haren ikhustean agian zenbait mirakuillu handi eginen zuela haren begietan. Ordean Yaundoni Jauni-Baptista hil-arazi zuen printze kruel, ohore eta erreljione gabeko hark etzuen merezi Salbatzailleak egin zezan hark nahiko zuenik. Herodesek egin zion Jesusi galde hainitz, eta Jesusek ez zion deusere ihardetsi. Ixiltasun hau gaitzitu zitzaion printze barbaro hari; arbuiau zuen Salbatzaillea, hartu zuen errhotzat, eta hartaz burlatzeko, yauntz-arazi zion arropa xuri bat, eta egorri zuen Pilatusen gana. Hura izan zen ordua zinetan etsaikoan bizi ziren bi printze hek adiskidetu baitziren.

Pilatus sentimendu beretan bizi zen: ez zadukan Salbatzaillea deusetan hobendun; seguratu zen haren kontrako akusu guziak hanbat gezur eta gaixtakeria behar zirela. Erakharri zituen bere ganat yuduen buruzagiak, erran zioten, mundu guziaren begietan, etzuela aurkhitzen gizon haren baitan fitsik punimendua galdetzen zuenik, Herodesek ere ez ziotela ezagutu hobenik: halarik ere, nahi ziotela atsegin egin, alde baterat libratuko zuen baino lehen, gatzigaraziren zuela debekatzekotzat gehiago predikatzetik.

Yuduak zuzenetan ziren galdetzeko, bazkotan, gaixtagin baten librantza. Pilatusek uste izan zuen legeko doktorek populuak baino urri-



kalmendu gehiago agerturen zutela; galdegin zioten zein nahi zuten libra ziozoten bietarik, ala Jesus, zeinaren saildutasuna ezagutua baitzen, eta zeinak ez baitzion egin populuari unirik baizen; ala Barrabas, ospe handitako ohoin eta gizon hiltzaille hura. Batzuen eta bertzeen izpirituak sobera ziren berotuak eta nahasiak erortzeko arrazoierat. Guziak abiatu ziren erraten oihuz eta deihadarrez: ez dugu Jesus galdetzen; bainan bai Barrabas. Pilatusek, sumindurik zoro heien kontra, erran zioten: zer nahi duzue bada egin dezadan Jesusez? Ihardetsi zioten, izan bedi gurutzefikatu; ordean zer gaixki egin du, galdegin zioen Pilatusek? Populuak ihardetsi zuen oraino gorago: gurutzefika zazu, gurutzefika zazu. Pilatusek ezin egundaino amoratu zituenean yuduitsuak bere hitz eta arrazoin onez, eman zion bere buruari sarthuren zirela urrikalmendutan ikhusiko zutenean Salbatzaillea barbaroen beren urrikalmendua bereganatzeko estatuturik lastimagarrienean. Manatu zuen yazartzeaz azoteekin Jesusen gorphutzari. Manu kruel eta inyustu hura izan zen ondiko! konplitua. Eman zuten sarraskitan Jesusen gorphutz sakratua. Zathitan zarizkon haragiak. Etziren gelditu haren zehatzetik hiltzat utzi zuten arteraino: hillen ere zen burreuen eskutan, ez balu, mirakuilluz, luzatu bere bizia artikitzekeztat azken hatsa gurutzearen gainean.

Tormenta hauk guziak aski izan ez balire bezala, yudu gaixtoek asmatu zituzten oraino idoi izigarrienak. Yauntz-arazi zioten Salbatzaille adoragarriari kapa gorri tzar bat, eman zioten seska bat eskutarat skeptrotzat bezala, eta elhorrizko khoroa bat bururat. Horiek horrela egin zituztenean, belhaurikatzen ziren, hartaz hirri egitekeztat, haren aitzinean, erraten ziotela: agur, Yuduen erregea. Thu egiten zioten bere bisaia sakraturat; hartzen zioten eskutarat eman zioten kana, eta hartaz yotzen zioten burua barnago sar-araztekeztat khoroko elhorri zorrotzak.

Odol ihintz bat franko zen gure erospenarentzat. Jesu-Kristoren nigar xorta batek garbi gintzakeien gure bekhatu guzietarik. Zertako, Jauna, isuri nahi izan duzu, ibaiatz, zure odol preziatua! Ez othe da sobe-ra egitea gure alderat? bai, ihardetsten du Salbatzailleak, behar zen baino gehiago egin dut ene aitaren aphazegatzeko, ene etsaieen herra guzia suntsi-arazteko, lurraren gaineko bekhatu guzien borratzeko; aski zen egin dudan baino gutiago ifernuko suaren hil arazteko, eta salbamenduko bidea zuen fagoretan zabaltzeko; ordean aski egin othe dut zuen bihotzen irabazteko! zuetaz ezagutua eta maitatua izateko!

Pilatusek ezagutzen zuen Jesu-Kristoren inozentzia: ekharria zen haren libratzerat: bizkitartean ukho egiten dio graziaren argiari, sartzen da ilhunbetan, kondemnatzen du hobenik ez duena. Ala bi gauza baidire,

Jauna, zure ezagutzea eta zure maitatzea! Ezagutua zara giriztino guziez; ordean hetarik hainitzak othe dire maite zaituztenak! Munduaren errankizunak, munduari atsegina egin nahi izateak zertarat ez dezakete erakhar bat-bedera! Pilatusek ikhusten zuen yuduen inyustizia Jesusen alderat: ikhusten zuen orobat hari yazartzeko zuten errabia barbaroa; ordean ez ditu nahi damustatu. Nahiago du bere kontzientzia sakrifikatu ezen ez galdu munduaren amudioa eta estimua. Oxala Pilatus baxharra balitz Jainkoari baino munduari hobeki behatzen dioena! Ordean zenbatak ez dire gorraena egiten diotenak barnetik mintzo zaioten boza salbagarriari! zenbatak ithotzen dituztenak graziaren mobimendu sailduak atseginei, ohorei, hitz batez, munduari yarraikitzekeztat?



L. KAPITULUA

Jesus kondemnatua da gurutzefikatua izaterat, berekin darama gurutzea Galberiorat

S. Matth. 27.

Etzen egundaino gerthatu gauza hain bihotz arraillagarririk. Zauri izigarri batek hartzen zuen Jesusen gorphutz sakratua burutik oinetaraino. Pilatus bera, zenbat ere baitzen paganoa, laztu izan zen ikhustez Salbatzaillea hala billakatua. Uste izan zuen ez bide zela bihotz aski gogorrik eta barbarorik ez sartzekotz urrikalmendutan. Erakharri zuen Salbatzaillea bere etxe aitzinerat: handik erakutsi zioten yuduei erraten ziotelarrik: *ecce homo*. huna gizon hura zeinaren heriotzea galdetzen baitzinduten hanbat fuliarekin: badu lehen zenaren iduririk ere? Bazaitzue bada aski pairatu duela? nahi zindiokete bada oraino gehiago yazarri? *ecce homo*. huna gizon hura zuen arabera, zuen errege izan nahi zuena. Nork sekulan uste-ko zuen gizonen bihotzak etzirela hautsiren ikhustez gure Salbatzaille maitea halakatur? Damu ginduke ikhustez azienda bat ere halako hertsuran, eta yuduak egundaino bezain gogor agertu ziren; egundainoko khar beraekin galdetzen zuten, Jesusen heriotzea: *tolle, tolle* (zioten) gurutzefika bezate; Jainkoaren semetzat egiten du bere burua, galdu behar du bizia. *Tolle, tolle, etc*

Pilatus oraino gehiago laztu zen Jainkoaren semearen aiphamenean. Salbatzaillearen pazientziak eta ixiltasunak, alde batetik, eta populuaren errabiak, bertzetik, iduri-arazten zioten bertze gizonak baino gehiagokoa zela. Sar-arazi zuen Jesus bere palaziorat, eta berriz ere egin ziotzon galdeak bere sortzearen, bere herriaren, eta bere ethorkiaren gainean. Jesus ek etzion deusere ihardetsi. Pilatussek, espantiturik ixillik egote hartaz, erran zion Jesusi: ez dakizu bada eskutan dudala zu gurutzean hil-arazteko, edo zure libratzeko bothere guzia? Zergatik beraz ez zara mintzatzen? Orduan Jesusek ihardetsi zion: etzinduke ene gainean eskurik ez balartzu zeruak eman probidentziaren nahia konplitezkotzat. Zure eskutarat largatu nautenak zu baino hobendunago dire. Pilatussek entzun zituenean hitz hauk, egin zituenean, berriz ere, munduan egin ahal guziak Jesusen libratzeko. Yuduak ezagaturik Pilatusen izipertasuna, erran izan zioten: baldinetariak ez badiozu bizia gal-arazten erregetu nahi izan den gizon bati, zure printzearen etsai agertzen zare. Orduan Pilatus flakoa beldurtu zen

bere buruarentzat. Yari zen bere yuiamenduen ekhartzeko alkhiaren gainean. Erakharri zuen ur guti bat, eta bere eskuak garbitu zituen mundu guziaren aitzinean, erraten zuelarik etzela behintzat hobendun yustu haren heriotzeaz, hek beharko zutela ihardetsi hobenik gabekoaren odolaz. Populua eman zen, oihuz, erraten: Jesusen odolaren isurtzeari dagokon punimendua eror bedi gure, eta gure umeen gainera.

Pilatussek, bere eskuak garbitzean uste zuen naski bere arima ere garbitzen zuela. Zer enganio! ala seinalatu baitzen haren inyustizia kondemnatzean heriotzerat berak hobenik gabe zadukana! Libratu zuen Barrabas, gaixtagina; eta eman zuen yuduen eskutarat, gurutzefikatua izatekotzat inozentzia bera, eta bizia beraren emallea. Khendu zioten, tiraka, haren gorphutz guziko zauriari zatxeikon kapa tzar hura: zer tormenta berri! eta bihurtu ziotzoten bere soinekoak; har-arazi zioten bizkarrean haren gurutzefikatze kotzat baliatu behar zen zur pisua, eta eraman zuten Yerusalemeko murrutarik zenbeit hurratsetarat, diot, Galberriako mendirat.

Horra beraz gizon bat hain miragarria, mundu guziari ungi egiten zioena, saindutasuna bera, hitzetan bezala, obretan ere bothere guzizko bat agertzen zuena; horra posedituak libratzen, gaitik zaharkituenak sendatzen, eta gorphutz erdi ustelduak bitz-arazten zituena, horra Jainkoaren seme bakharra, gauza guzietan bere aitaren idurikoa, horra non daramaten ohoin bat bezala amarratua, azote kolpez guzia zaurizatua, eta bere gurutzeaz kargatua. Nor dire Salbatzaille adoragarriari krudelitate harekin yazartzen diotenak? Hek dire zenbait egun lehenago Jesus bozkario guzietan errezibitu izan zutenak bere Mesias bezala. Izpiritua galtzen da sartzean hauk guzietan. Jesusen amudioa, hauk guziak gizonengatik pairatzean, ezin konprenituzkoa balin-bada, hala den bezala, errexago othe da konprenitzea yuduen malezia eta errabia Salbatzaille maitearen alderat!

Salbatzaillea Galberiorat zaramaten dohakabek ikhusirik hagorandua zela, eta bere indar guziez hurren gabetua, behartu zuten gizon bat Simeon zaritzona gurutze haren khartzen laguntzerat. Etzabiltzan (urrund) Jesusen ganako urrikalmenduz; baina beldur ziren zuraren karga pisuegiak labur zetzan haren orenak, eskas zakizkon Galberiorat heltzeko indarrak, eta ez zezaten izan haren gurutzefikatze atsegina. Jesusek ikhusi zituen Galberiorakoan zenbeit emazteki erakutsterat ematen ziotenak bere nigar gozoez hartaz zuten urrikalmendua. Itzuli zen heien alde rat, eta erran zioten: Yerusalemeko alabak, ez isur nigarririk ene gainerat; baina isur atzue zuen buruen, eta zuen umeen gainerat. Hunela yazartzen badiote (zioen Salbatzailleak) gaixkirik egin ez duenari, zer izanen da bada gaixki egilleez? Zeruko aserraduraren sua hunela lothzen bazaio



arbola heze eta fruitutsuari, nola egonen da lothu gabe arbola ihar eta fruiturik gabe denari? Zer kharrekin etzaie beraz lothuren gaixtakeria bere gaindidurarat daramatenei hil-araztean berei bizia eman diotena, eta hekiengatik sakrifikatzen dena?

Salbatzailleak erraten daroku gurutzea ekharri nahi ez duena ez dela gai zeruan sartzeko. Berak hitzez bezala exenpluz ere ezagut-arazten daroku gurutzearen ekhartzeko eta maitatzeko premia baitezpadakoa. Jesusen gorphutz adoragarria emana zen sarraskitan, halarik ere etzuen nahi nihork izan zezan hartaz urrikalmendurik. Ikhas dezagun nausi dibi-noaren eskola zuhurrean errenkurarik ez egiten gure nahikabetan, gure buruen ez urrikaltzen gure damu, atsekabe eta lazerietan. Jesus maiteak pairatu zituen emetasun saindu batekin idoi eta tormenta ikharagarrienak; hartu behar ditugu, guk ere, errespektu eta sumetimendu saindu batekin behere huntako desfortuna, eritasun eta ethor ahal dakizkigun gaitz guziak. Ezar dezagun gure fidantzia Salbatzaille maitearen bothere eta miserikordia infinitutan. Bera da gure aita, gure mirikua, gure kontsola-zioea, hiz batez, bera da gure guzia.

LI. KAPITULUA

Jesus gurutzefikatua da eta ehortzia

Matt. 27.

Jesus igan zenean Galberiorat, eman nahi izan zioten edaterat kheldarraekin nahastatua zen mirrha arnotik. Hala egiten ohi zuten hiltzerat kondemnatuak zireneen alderat. Edari bortitz hark berotzen zuen barnea, eta aphur bat arintzen heriotzeko tormentak. Jesusek etzuen hartu edari hartarik; edan nahi izan zuen bere pasioneko khalitz guzia azken xortarainokoa. Arratsaldeko hirur orenen gainerat, bureuek itzatu zuten Salbatzaillea gurutzean eskutarik eta oinetarik. Gaitz zen suplizio dorpheago baten asmatzea. Hobenik etzuen biktimak altxatu zituen gurutze gainetik begiak zerurat, zioela: ene aita, barkha diozozute; ezen ez dakite zer egiten duten. Salbatzailleak eman zuen bere Jainkoatasunaren seinalerik aski; yuduek yakin behar zuten nor zen; ordean etzuten zenarentzat hartzen: etzuten sekulan gurutzefikatuko uste izaterat (Yaun-doni Paulek dioena) loriaren Jainkoa zela.

Soldaduak eta populua izigarri den bezala agertu ziren hobendun Salbatzallearen alderat; ordean erran behar da legeko doktoren eta sinagogako buruzagien gaixkia oraino areagoa zela. Hekien ezagutzan zen etzela Jesu-Kristo baitan populuak uste zuen gaixkirik, ageri ere zela haren mirakuillutarik yustutasuna eta saindutasuna bera zela. Salbatzailleak, hiltzerakoan, othoitztu zuen bere aita bere burreuen fagoretan. Hortik beretik ematen zuen ezagutzerat mundu guziaren salbatzekotzat ematen zituela bere odola eta bere bizia.

Etzen deusere gai zenik yuduen harrizko bihotzen hautstekotzat. Zer urrikalgarriagorik nola Salbatzaillearen orduko presuna sakratua! Ordean, o itsumendua! etsai kruel hek etzuten bere fulia baizik aditzen. Ordu arterainoko idoiak eta dorphetasuna aski izan ez balire bezala, bur-latu ziren Jesus maiteaz molderik humiliagarrienean, ziotelarik: gizon hunek bertzeak begiratu izan ditu heriotzetik, eta ezin begira dezake bere burua. Mesias balin bada, Israelgo errege balin bada, yauts bedi orai gurutzetik, erakuts beza bere botherea, eta emanen dugu haren baitan gure sinhetstea. Dio esparantza duela Jainkoa baitan, gehiago dena, Jainkoaren semea dela; Jainkoak ezagutzen balin badu bere semetzat, athera dezala beraz hortik.



Azkenaz-goiti Jesusen bi saihetsetan gurutzefikatu zituzten bi ohoi-netarik batek erran izan ziotzoz hitz min hauk: Kristo balin bahaiz: begi-ra zatzik hire bizia eta gurea. Bertze ohoina zuhurrago agertu zen; erran zion bere lagunari: zer? ez duk Jainkoaren beldurrik? Hirurak, egia duk, kondenmatuak gaituk heriotze bererat; hik eta nik ez diagu merezi duguna baizik; ordean horrek zer gaixki egin dik? Mintzatu zitzaion Salbatzailleari ere bihotz urrikiz zaurthu batekin hitz hautaz: Jauna, orrhoit zaite nitaz zure erresuman izanen zarenean. Salbatzailleak ihardetsi zion: *egia erraten darotzut gaur beretik enekin izanen zara parabisuan.*

Nolakoa etzen behar Maria sainduaren bihotz mina ikhustean bere seme adoragarria gurutzefikatu! Yaun-doni Jauni Ebanyelistak sobera zuen maite bere nausi dibinoa haren ganik urruntzeko haren azken orenean; bata nola bertzea gurutzearen oinetan aurkhitzen ziren. Jesusek begiztatu zuen bere ama, eta erran zion amultsuki, bere dizipuluaz mintzo zela: emaztekoa, horra zure semea; erran zion gero bere dizipulari Birjina sainduaz mintzo zela: horra zure ama. Ordutik Yaun-doni Jauni Ebanyelistak behatu zion Andre-dena Mariari ama maite bati bezala, eta bethe zituen haren alderat ume on bati dagozkon eginbide guziak.

Arrats-aldeko hirur orenetan iguzkia goibeldu zen bet-betan: ilhunbeak hedatu ziren lur guziaren gainerat, iduri zuen mundu guziak Salbatzaillearen heriotzearen damua eta dolua zakharzkela. Ilhunbeek iraun zuten hirur orenez. Salbatzailleak, nahiz konplitu profetia guziak, erran izan zuen: egarri nai. Soldaduek eman zioten arno mindutik. Jesusek edan zuen hartarik, eta bere burua beheititzen zuela, erran zuen; *ene aita, ematen dut ene arima zure eskularat:* hitz horiek erratearekin, artiki zuen azken hatsa. Denbora berean tenpluko beloa hautsi zen eta bi zathi egin gainetik behereraino; ikharatu zen lurra nihoiz ez bezala, arraillatu ziren harriak; yadanik hillak ziren hainitz sainduen gorphutzak biztu izan ziren, eta ilkhi izan ziren bere hobietarik. Soldaduak manatzen zituen zenturionea, eta han gerthatu ziren guziak eman zitzaizkon ikharari, eta ezin debekatu ziren erratetik gizon hura zela egiazki Jainkoaren semea. Zenbeit emazteki Jainkotiar egon ziren handik urruntxeago yakiteko noiz yautsiren zuten Jesusen gorphutz sakratua gurutzetik, eta non ehortziren zuten.

Egun ondikozko hura ortzilarea gerthatu zen, eta etziren utzten gorphutzak larunbat egunean gurutzetan. Yuduek othoitztu zuten Pilatus hauts-arazteaz gurutzefikatuen zangoak hil zitezentzat lasterrago. Hala egin zen bi ohoinen alderat, gelditzen zitzaioletakotzat oraino hatsa. Hilla aurkhitu zuten Salbatzaillea: guziarekin ideki zioten saihetsa lantza kolpe batez, eta ordu berean athera ziren handik ura eta odola. Arte hartan,

Yosef arimathiakoa, gizon aberats, yuduez ohoratua eta, bihotzez Jesu-Kristoren dizipulu zenak, othoitztu zuen Pilatus eman ziozon Jesusen ehortzteko laudamendua. Ardietsi zuen galdetzen zuena. Estali zuen gorphutz saindu hura mihise xahu batez, eta eman zuen arroka baten baren eragin zuen hobi berri batean. Eman-arazi zuen harri handi bat hobiaren gainean, eta bihurtu zen etxerat.

Apheezen printzeek eta farisauek egin zituzten bere egin ahal guziak ez utztekotzat ixillik eramaterat Jesusen gorphutz. Erran zioten Pilatusi: Jauna, orrhoitzen gare nola mundu enganatzaille hark, bizi zenean erran zuen biztuko zela hirur garren egunean: ematzu beraz, othoi, begirailleak haren hobiaren ingurutan dizipuluek eraman ez dezaten bere nausiaren gorphutz, eta erran ez diozoten populuari biztu dela hillen artetik. Horrela gertha baledi, azkeneko enganioa lehenbizikoa baino gaixtoagoa liteke. Pilatus etzen eman eginbide hartan; ihardetsi zioten: baitutzue zeuek soldaduak egizue beraz zaitzuen bezala. Eman zuten berehala zigillua hobiaren gainean, eta soldaduak haren ingurutan ez uztekotzat nihor harat hurbiltzerat.

Gurutzea da eskola saindu bat zeinetan har baidetzakegu lekzionerik salbagarrienak. Jesusen zauri preziatek irakhatsten darokute ez dugula ibilhi behar mundu huntako nahikareen, ez eta bizitze guri baten ondolan. Yasan dituen arbuio eta laido lastimagarriek irakhatsten darokute deuse ez direla behere huntako ohorea eta handitasunak, humiltasunean datzala giriztino baten egiazko ohorea.

Salbatzaillearen karitateak othoitz egitean bere burreuentzat, eta haren pazientzia miragarriak hanbat tormenten erdian irakhatsten darokute gure etsaiei barkhatzen, eta sumetimendu oso batekin hartzen heldu diren atsekabe guziak.

Nork erran zertarainokoa heltzen den Salbatzaillearen amudioa gure alderat! Artik detzagun begiak gurutzearen gainerat, eta ikhusiko dugu Jesus maitearen gorphutz garbia sarraskitan emana, haren buru sakratua elhorriz khoroatua, haren esku eta oin sainduak itzeztatuak. O amudio nihork ezin konprenituzkoa!

Aithortzen dut miserikordia bera zaren Jainko enetzat gurutzefikatu, probetxatu behar bidean zure grazia preziatez, hetaz berez abusu damnagarri bat egin izan dudala. Ene salbatzerat egiten zinduen denbora berean nehorri nindabilhan ene arimaren galtzen! exenplu gaixtoek, pasioneen bortitzasunak, hitz batez, deusek ere ezin garbi nintzake zure begietan. Aski dut ene kontzientzia bera ezagutzekotzat ene gaixkiak, eta kondenmatzekotzat ene burua. Ordean bihotz urrikiz zaurthuuri arraiki



behutzen diozun Salbatzaille amultsua, heldu naiz fidantzia handienarekin zure gurutzearen oinetarat: ahantz bekizkitzu ene bekhatu eta flakezia guziak orrhoitzekotzat baxharrik zer gosta izan natzaitzun, eta enetzat isuri izan duzula zure odol adoragarria.

LII. KAPITULUA

Jesus bizten da

Matt. 28.

Magdalenak eta haren emazteki lagunek lehiarik handiena zuten hel-tzeko Jesusen hobiaren gainerat. Ordean, larunbata zelakotzat, egon ziren harat gabe biharamuneraino. Bidean zohazela, elkharri galdetzen zioten: nork khenduko du hobiaren gaineko harri pisua? Bere lehia guziaren erdian, berantegi hedatu ziren Jesus ehortzia izan zen lekhurat. Atheraia zen hobitik hek harat orduko. Argia urratzearekin batean, yustiziaren iguzkia ilkhi izan zen herioaren ilhunbetarik bere bothere baxharraz, eta erran zuen bezala, hirur garren egunean. Ordu hartan ikharatu zen hobia- ren ingurutako lurra; zerutik yautsi zen aingeru batek khendu zuen Jesu- sen gorphutza estaltzen zuen harria, eta yarri zen harri haren gainean. Haren bisaiaik izarniatzen zuen argizagi batek bezala, eta haren soinekoak elhurra baino xuriago ziren. Han ziren soldaduak laztu eta ikharatu ziren; erdi hillak ziruriten. Bere izialduratik altxatu zirenean yoan ziren, ahal bezala, aphez-handiaren, eta legeko doktoren ganat, eta eman ziotzoten hobiko berriak.

Nolakoa etzen izan emazteki saildu heien espantimendua ikhustez etzela gehiago soldadurik hobiaren ingurutan, altxatua zela hango harria, eta Jesus etzela haren barnean!

Maria Magdalenaren bihotza zaurthua izan zen damurik minenaz: bihurtu zen Yerusalemerat, eta erran zioten apostoluei edekia zela hobia, eta etzuela han kausitu bere nausi maitearen gorphutza. Lekhuaren gainean gelditu ziren emaztekiak ere ezin konsola zitezkeien, eta etzakiten zer egin. Herstura hartan zirela, ikhusi zituzten bi aingeru gizonaren iduria- ren azpian. Hetarik batek erran izan zioten: emaztekiak, etzaitezela izi; badakit gurutzefikatua izan den Jesus bilhatzen duzuela: biztu da; ez da hemen; zatozte ikhusterat ehortzia zen lekhua. Lehia zaitezte erraterat haren dizipuluei, bereziki Piarresi, Salbatzaillea hek baino lehen izanen dela Galilean, eta han ikhusiko dutela astiroki berak agindu zioten bezala. Emazteki hek lothu zitzaizkon Yerusalemeko bideari ikhara eta bozkarioa bihotzean.

Arte hartan Magdalenak bathu zituen Yaun-doni Petri eta Yaun-doni Yauni: erran zioten, nigarretan, altxatu zutela hobitik haren nausi onaren gorphutza, eta etzakitela zer egin zuten hartaz. Ezin egon zen bihurtu gabe berriz ere hobirat: aurkhitu zituen bi aingeruak erran ziotenak:



emaztekoa, zergatik egiten duzu nigar? Magdalenak ihardetsi zuen: nigar egiten dut zeren eraman duten ene Jainkoa, eta zeren ez dakidan non ezarri duten. Hitz hauk erratearekin, egin zituen zenbeit hurrats gibelat, eta ikhusi zuen Jesus zeinak erran baitzion: zergatik egiten duzu nigar? Noren bilha zabiltza? Magdalenak etzuen Jesus ezagutu: hobia zen baratzeoko baratze-zainarentzat hartu zuen: sinhetste hartan erran zion: zuk altxatu baldin baduzu ene nausi onaren gorphutza, othoizten zaitut, erran diezadazu non eman duzun, eta eramanen dut nerekin. Orduan Jesusek deithu zuen bere izenaz erraten zioela: Maria. Hitz hau entzun bezain sarri, Mariak behatu zion mintzo zitzaionari, eta ezagutu zuen Jesus bera zela; erran zion: *o! ene nausi ona*: artiki zuen bere burua haren oinetarat, eta nahi izan zituen besarkatu. Jesusek gibelatu zuen hartarik, eta manatu zuen haren dizipuluei errateaz zer ikhusirik heldu zen.

Nork hemen erran zertarainokoa heltzen zen Magdalenaren orduko bozkarioa. Eraman zuen berehala berri handi hura dizipulu guzietarat. Bathu zituen bidean bere emazteki lagunak Yerusalemert bihurtzen zirela bihotz-min handirekin: erran zioten Jesus biztu zela, ikhusi zuela berak, eta hartaz mezutua zela berri handi haren dizipuluei eramaterat. Magdalena hunela mintzo zela, Salbatzaillea agertu zen emazteki damuztatu heien begietarat. Eman ziren berehala bozkario guzietan, eta adoratu zuten, ahuspez, bere nausi dibinoa. Salbatzailleak erran zioten hedatzeaz haren apostolutarat haren biztearen berria. Apostoluek ametsentzat hartu zituzten heien erran guziak.

Hobiaren ingurutan emanak izan ziren soldaduak mintzo ziren gerikerik gabe Jesu-Kristoren bizte mirakuilluzkoaz, eta horrek damu egin zioten sinagogako doktorei; bildu ere ziren elkhar ganat konpartitzeko, bere artean, nola behar ziren hartu soldaduen alderat. Eman izan zioten dirutze handi bat erran araztekoztat lokhartu zirela, eta dizipuluek altxatu zutela ordu hartan bere nausiaren gorphutza. Bakharrak gerthatu ziren soldaduen gezurra sinhetsi zutenak.

Salbatzaillea biztu zen egun berean haren dizipulutarik bia hedatu ziren Yerusalemetik Emaus zaritzon herri baterat: solasen zohazela, Jesus hurbildu zen heien ganat. Iduri zuen biderante bat. Galdegin zioten dizipuluei zertaz zuten solas, eta nondik heldu zen hekin tristezia. Hetaryk batek, Kleofas deithzen zenak, ihardetsi zion: bakharra ahal zara Yerusalemen zer iragaten den ez dakizuna. Jesusek galdegin zion: zer iragaten da bada? Kleofasek ihardetsi zion: nola? Ez dakizu bada aphezeen printzeek eta sinagogako doktorek kondemnatu dutela gurutzean hiltzerat Jesus Nazarethkoa hitzez bezala obrez ere hain handia zen profeta hura? Iguri-

kitzen ginduen libratuko zuela Israel guzia, berak ere eman zarokun hala eginen zuelako esperantza: bizkitartean hirur egun badu hilla dela, eta deusere ez da ageri, egia da bada, entzunak garela biztu dela; ordean miratu dugunean ehortzia zen hobia, ez dugu han aurkhitu: egia da oraino hobiaren ingurutan ziren bi aingeruek seguratu gaituztela biztu dela.

Salbatzailleak erran zioten di dizipulu hei bere ohiko arraitasunarekin: o! zoroak, eta sinhetste aphurra eman duzuenak profeteen erranetan. Ez zinakiten bada Jesu-Kristok hala pairaturik behar zuela bere lorian sarthu? Emausko herrirat zirenean, elkharrekin ostatatu ziren. Jesus eman zen mahainean bere bi dizipuluekin, hartu eta benedikatu zuen ogia, eta eman zioten. Ordu hartan ezagutu zuten bere nausi maitea; ordean galdu zuten berehala begietarik.

Dizipuluak miretsiak egon ziren ez ezagutzeaz orduraino Salbatzaille adoragarria. Altxatu diren lehiarekin mahainetik, eta ez zituzten nahi bezain laster yakintsun egin apostoluak, ikhusirik heldu ziren gauza espantagarriez.

Dizipuluen bihotz mina handia bide zen ikhusi zutenean gurutzearen gainean hiltzen bere nausi maitea; ordean heien bozkarioa oraino urrunago hedatu zen Salbatzaillea biztu zenean hillen artetik. Heien damuak eta tristeziak etzuten iraun hirur egun baizik; ordean heien bozkarioak iraun zuen bizi izan ziren bezanbat. Ala baitzuten zertaz kontsola ukho egin izateaz munduari Jesu-Kristori yarraikitzeekotzat! noiz finkatuko dugu gure izpiritutan egia bat arrazoinak eta zuhurtziak irakhatsten darokutena? Noiz sinhetsiko dugu Jainkoaren maitatzean eta zerbitzatean datzala gure zoriona, den errhokeriarik handiena dela mundua maitatzea, gure deskantsua behere huntan bilhatzea? Egun bat ethorriko da zinetan ezagutuko baidugu Jainkoa dela bakharra gure bihotzak merezi dituen, eta bilhatu behar duguna; ordean ala dorphe eta ikharagarri baida yakitea errebelatu garela ezin sarthuko garenean utzi izan dugun bide on eta salbagarrin!

Nihork ezin konprenituzkoa da dizipuluen bozkarioa ikhusi zutenean bere nausi adoragarria hillen artetik biztua; ez dugu hek baino arrazoin gutiago bozkario bera izatekoztat. Hil izan den bezala guzientzat, biztu izan da orobat guzientzat. Jesusen sofrikariek eta heriotzeak behar gaituzte erakharri hartzerat pazientzia saindu batekin heldu diren atseka-be guziak, eta lorioski biztu dela orrhoitzeak bortitztu behar ditu gure fidantzia eta esperantza. Gaiten seguratuak gure gorphutzak ere biztuko eta ilkhiko direla, egun batez lurraren barnetik, eta heriotze saindu bat egiten badugu, biziko direla eternitate guzian zeruko erresuma dohatsuan.



LIII. KAPITULUA

**Bilduak ziren dizipuluek ikhusten dute Salbatzaillea;
handik laster Thomasek ere ikhusten du**

S. Luc. 24.

Dizipuluak apostoluei mintzatzeko arte hartan, Jesus agertu zen hekin erdirat, erraten ziotela: bakea dela zuekin; ni naiz, ez izi. Ezin konpreni zezaketen Jesus nola sarthu ahal zen hek ziren lekhurat athe guziak hertsia zirelarik. Salbatzailleak ezagutzen zuen heien espantimendua; erran zioten nola dituzketzue gogoeta eta duda horiek? Ikhus ezatzue esku hauk, oin hauk; bai, ni naiz. Izpiritu hutsa dena haragirik eta hezurrik gabe da, eta ikhusten duzue nik baditudala. Dizipuluak hordituak bezala aurkhitzen ziren bozkarioz eta admirazionez: nekhez sinhetsten zuten berek ikhusten zutena. Jesusek erran zioten: baduzue hor deusere yatekorik? Eman izan zioten arrain batetarik, eta ezti guti bat. Erran zioten bigarren aldian: bakea dela zuekin, ene aitaz egorria naizen bezala egortzen zaituztet nik ere zuek; artiki zuen hats bat heien gainerat, eta erran zioten: errezibi zazue izpiritu saindua, nori eta barkhaturen baidiotzuzte bekhatuak, eta hei barkhaturen zaizte, eta nori ere ez baidiotzozte barkhaturen, eta hei ez zaizte barkhaturen.

Thomas etzen bertzeen baltsan gerthatu Jesus agertu zen aldi hartan, eta etzituen sinhetsten bere apostolu lagunaren erranak. Alferretan xehatzen ziotzoten gauza guziak, ezin sar-araz zezaketen bere egia haren buruan. Bazaraman bere sinhets gogortasuna erraterainokoa: baldineta-riak ez baditut ikhusten eskutako itzeen seinaleak, ez badut hetan ematen ene erria, eta sartzan ene eskua haren saihetsean, zer nahi erran dezazuen, ez dut deusere sinhetsiko.

Handik zortzi egunen buruan dizipuluak bildu ziren lekhu bererat, eta Thomas ere baltsan zen. Jesus sarthu zen orduan eta hertsia zirelarik atheak. Eman zen guzien erdian, egin zioten salutantzia erraten ziotelarik: bakea dela zuekin; mintzatu zitzaion Thomasi hitz hautaz: hurbil zaite, dizipulu sinhets-gogorra; emazu hemen zure erria, eta ikhus ezatzu ene eskuak; heda zazu zure eskua, eta sar zazu ene saihetsean. Emozuzure buruari biztu naizela, ez izan sinhets-gogor, bainan bai leihal. Thomas ahalkatu eta bozkariatu zen denbora berean. Haren bihotza sustatu zen khar saindu batez, eta animatu federik bizienaz. Eman zen, ahuspez, Salbatzaillearen oinetan erraten zioela: o! ene Jauna, eta ene Jainkoa. Orduan

Jesus mintzatu zitzaion Thomasi hunela: Thomas, ez ditutzu sinhetsi zurekin nintzenean erran izan ditudanak, ez eta, ni biztuz geroz, zure anaiek erran darozkitzutenak, zehorrek nahi izan duzu satisfatu, zure begiz, zure burua. Ez duzu nahi izan sinhetsi zerorrek ikhusi arterainokoa. Dohatsu ikhusi ez dutenak, eta sinhetsi dutenak.

Salbatzailleak egorri zituen apostoluak Galilearat, eta bera harat agertu zitzairen behin baino gehiagotan. Piarres ibilli zen arrantzan bere zenbeit dizipulu lagunekin. Artiki zituzten sareak urerat, eta deusere etzuten hartu gau hartan. Goiz alderat, Salbatzaillea agertu zen ur hegian. Dizipuluek etzuten ezagutu hura zela. Erran izan zioten: ene haurrak, baduzue hor deusere yatekorik? Ihardetsi zioten etzutela. Salbatzailleak erran izan zioten: artiki ezatzue sareak eskuineko alderat, eta edirenen duzue zer yan. Artiki zituzten sareak, eta hartarainokoa izan ziren arrainez betheak non nekhez bildu behar izan baitzituzten. Jesusen dizipulu maiteak (Joanesek) erran zion Piarresi: Salbatzaillea duk. Berehala Piarresek yauntzi zituen arrantzatzeko utzi zituen soinekoak, eta nahiz hurbildu lehen-bai-lehen Jesus ganat, egin zuen urerat yaui. Haren lagunek etzituzten eskutarik utzi sareak. Bildu zituztenean, aurkhitu zituzten ehun eta berrogi eta hama-hirur arrain handi: halarik ere sareak etziren hautsi.

Dizipulu arrantzaleak leihorreat zirenean, harritu ziren aurkhitzeaz ogi bat, eta arrain bat erretzen hari zena ikhatzeen gainean. Salbatzailleak berak biztu zuen su hura, eta aphaindu arrain hura, iduri zuen dizipulu heien ganik nahi zuela yateko zerbait, bizkitartean berak eman nahi izan zioten bazkatarat. Bazkaldu zirenean, Jesusek erran zion Piarresi: Simon Joanesen semea, hemen diren dizipuluek baino maiteago nauzu? Bai, Jauna, ihardetsi zuen, badakizu maite zaitudala: horren gainean erran zion Jesusek: *bazka zatzu ene bildotsak*. Handik berehala Jesusek galdegin zion oraino: Simon Joanesen semea, maite nauzu? Bai, Jauna, ihardetsi zuen Piarresek, ahal dakizu maite zaitudala. Orduan ere Jesusek erran zion: bazka zatzu ene bildotsak. Galdegin zion, hirugarren aldian, maite zue-nez bada finki. Piarres damustatua izan zen zeren Jesusek etzuen kondatzen ekhartzen zion amudio khartsuaren gainean; ihardetsi zuen minki bezala: zer da zure ezagutzen ez denik? Badakizu beraz maite zaitudala ene bihotz guziaz.

Salbatzailleak hirur galde hek, bata bertzearen ondoan egitean, nahi zuen Piarresek borra zezan hiruretan hartaz arnegatzean egin zuen gaixkia aithortuz, orobat hiruretan, maite zuela. Salbatzailleak erreberritu zuen lehen erran zuena. Eman zion Piarresi bere arthalde guziaren aitzindegia. Erran zion ordean gostako zitzaiola ohore haren izatea. Eman



beharko zuela bizia fidatzen zion arthaldearentzat; erran zion oraino gurutzearen gainean hillen zela.

Artik detzagun begiak Yaun-doni Petriren bizitzearen gainerat, zer fede bizi! Jainkoaren alderako zer amudio khartsu ez ditugu ederretsiren! Sarterat gure bihotzen barnetan, aurkhi othe ginetzake fede bizi hura! amudio khartsu hura! Sinhetsten bagindu finki mundurat eman gaituena gure nausi soberanoa eta gure yuie adoragarria dela, zerbitza othe ginezake egiten dugun bezanbat gogo-urritasun eta hotztasunekin! Maitatzerat gure Salbatzaille guziz maitagarria zor diogun amudioarekin, hain herabe othe gintezke bada sakramendutarat hurbiltzerat! Othe ginduke bada agertzen dugun bezanbat ez antsiatasun baliatzekotzat salbamenduari daronsaten grazia preziatuez!

Jesu-Kristok galdetzen dio Yaun-doni Petriri hirur alditarainokoan maite duenez. Nolako fidantzia eta kharrekin ez dio berehala ihardetsten: bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. Salbatzailleak egin balioza gutarik bat-bederari galde bera, nork luke bekhokia ihardetstekotzat: Jauna, zure ezagutzan dire gauza guziak, ikhusten duzu zer iragaten den ene bihotzean, badakizu beraz maite zaitudala? Oi! milletan arrazoin gehiago bide ginduke ihardetstekoto badakizu, Jauna, mundua, munduko atseginak eta ohoreak ditudala maite; ez dudala deusere maite neure burua baizik. Alferretan, Jauna, nahi nituzke gorde ene bekhatu eta flakezia humiliagarriak, ikhusten ditutzu bere hedadura guzian. Oxala zure graziaren gantzudurak itzul-araz baleza ene bihotza zure ganat! erran ahal baneza apostoluen buruzagiak bezala: Jauna, badakizu maite zaitudala!

LIV. KAPITULUA

Salbatzaillea igaten da zerurat, eta egortzen du Izpiritu-Saindua

Act. 1.

Biztu zenetik berrogoi garren egunean, Salbatzailleak bil-arazi zituen Yerusalemrat bere apostoluak eta bere dizipuluak: ordu hura izan zen agertu zitzaiena azken aldikotzat. Hetarik gehienek ezagutu eta adoratu zuten bere nausi dibinoa; gerthatu ziren zenbeit bakhar fede oso hura oraino etzutenak. Jesusek erran zioten guziei: emana zait bothere guzia zeruaren eta lurraren gainean. Egortzen zaituztet, bothere haren ariaz, ene aitaz egorria izan naizen bezala; zohazte beraz munduaren bazter guzietara, predika ezazue orotan ene ebanyelioa; irakhats zatzue ene ganik ikhasi ditutzuena egia sainduak, eta salbatzekotzat yakin behar direnak. Zuekin egonen naiz bethi azken mendetaraino.

Salbatzailleak erran zuen oraino: sinhetsiren duena eta bathaiaturen dena salbatuko da; ordean damnatuko da sinhetsiren ez duena. Oraino hobeki ene ezagutzerat erakhartzekotz paganoak eta idolatreak, emanen darotzuet mirakuilluen egiteko botherea; khenduren tutzue etsai-gaixtoak gorphutzetarik, mintzaturen zarete hitzkuntza guziez; ez duzue zeren izan sugeen ausikien, ez eta phozoina duten deusen ere beldurrik. Salbatzailleak agindu zioten bere apostoluei izpiritu saindua, eta gomendatu iragatiaz Yerusalem, zenbait denbora; erretiramenduan eta othoitzean. Manatu zioten ez handik aldaratzeaz zeruko indarraz bortitzuak izan arteraino. Solas hautarik lekhora, Jesusek erran zioten yoateaz harekin Olibetako mendirat. Harat zirenean, altxatu zituen eskuak zerurat, eta eman zaroen guziei bere benedikzione saindua. Dizipuluak eman ziren, ahuspez, Jesusen oinetan: adoratu izan zuten errespektu handirekin, eta ikhusi izan zuten igaten zerurat. Egon zitzaizkon beha begietarik galdu arteraino. Hura izan zen ordua Salbatzailleak zilhatu bezala zituena zeruak yartzekotzat bere aitaren eskuineko aldean eternitate guziko.

Jesus zerurat igaten ikhusi zuten apostoluak eta dizipuluak betheak izan ziren bozkarioz eta admirazionez: sustatuak zituzten bihotzak bere nausi dibinoaren alderako khar bizenaz, eta zerurat landatuak zituzten bere begiak. Bi aingeru agertu zitzaizten gizonaren iduriaren azpian erran ziotenak: gizon Galilearrak, zer hari zarete hor begiak zerurat altxaturik? Zuen artetik zerurat igan den Jesus hura bera ethorriko da harat igatean



zen molde berean. Aingeruak azken yudizioaz minto ziren, orduan ethorren delakotzat Salbatzaillea gure yuiatzerat.

Andre-dena Maria apostoluen eta dizipuluen baltsan gerthatu zen zerurat igan zenean haren seme maitea. Bihurto ziren guziak Yerusalemerat, eta egon ziren, Salbatzaillearen manuaren arabera, erretiramenduan eta othoitzean izpiritu saindua hekin gainerat yauts arteraino; erran nahi da, hamar bat egunez. Goizeko bederatzi orenen gainerat, harrabots handi batek iharrosi zuen hek ziren etxea, eta hedatu zen hiri guzirat. Harrabots, edo haize handi hark ezagut-arazten zuen Jainko Jaunaren presentzia, bertze orduz xixmistek eta ihurtzuriek Sinaiko mendian egiten zuten bezala. Harrabots harekin batean, su bat yautsi zen etxe hartan zirenetarik bakotxaren buruaren gainerat. Su hura etzen behere huntako gure sua bezalakoa; ordean biztu zuen dizipulu guzien bihotzetan khar salbagarri bat sustatzen zituena, eta eman zioten misteriorik ilhunenen eta egiarik altxatueneen ezagutzeko dohain miragarria. Ordu dohatsu hartarik beretik animoz eta kharrez betheak izan ziren: hitz batez, iduri zuen etzirela lehenekoak, baina gizon berri batzu zirela.

Mundu oste bat edireten zen ordu hartan Yerusalemeko hirian: bazen nazione guzietakorik. Apostoluak agertu ziren hek guzien aitzinerat nihoren ahalkerik eta beldurrik gabe. Predikatzen zuten Jesu-Kristoren errelijionea yakintasan bezanbat gantzudurarekin. Gauza miragarria! Bere erdaraz (siriakaz) mintzo ziren: halarik ere harat bilduak ziren mundu herri guziko populuek konprenitzen zituzten apostoluen hitzak, bakotxari bere herriko erdaraz mintzatzen balitzaizte bezain errexki. Nork konda eragin zituzten konbersione handiak! nork explika obratu zituzten mirakuillu espantigarriak!

Hamabi gizon erromesek, dirurik, harmarik, eskolarik ere etzutenek eman diozoten bada bere buruei behar zituztela suntsi-arazi munduan ziren errelijione faltso guziak, adoraztekotzat Jainko bakharra hirur presunetan! Atrebiditezen bada gudu ematerat atseginei, ohorei yaidura gaixto guziei onhets araztekotz penitentzia, humiltasuna sofrikariak! zer khar etzen behar lothzekotzat halako lan gaitz bati! Berriz zer laguntza etzuten behar izpiritu saindua ganik bere nahi sainduaren konplitzeko!

Noiz egundaino seinalatu othe da gehiago Jaunaren bothere guzizkoa izpiritu saindua egortzean baino? Zer argi? zer fermutasun etzuen izpiritu sainduak hedatu apostoluen izpiritutarat eta bihotzetarat! Piarres aitzinago hain iziper agertu zena, ez da batere herabe erraterat Yerusalemeko doktor guzien erdian hek, zuela berrogoi eta hama-hirur egun, gurutzetan hil-arazi zutena Jesus zela, Jainkoaren semea, eta heien nausi

soberanoa: haren lagun bertze apostoluek eta hura bezain beldurti agertu zirenek predikatzen dute animo berarekin Jesu-Kristoren yainkotasuna, eta hedatzen dute, arte laburrez, gure errelijione saindua alde guzietarat.

Eman gaiten gu ere izpiritu saindua gure baitarat yauts-arazteko eginbidetan. Egin diozogun ihes munduari, maita dezagun othoitza: huts detzagun gure bihotzak munduaren alderako amudio galkhorretik, eta laster betheko dire izpiritu sainduaren dohain salbagarriez. Izpiritu saindua bere baitan izateko zoriona duenak ezaguteren dio bere buruari lehen baino khar gehiago urruntzeko bekhatuzko bidetarik, lehia gehiago bert-hutearen alderat. Baldinetariak gure fedea egundaino bezain ephel bada-go, leheneko errextasun bera baldin badugu behatz topatzeko, ez balin badugu khar gehiago gure salbamenduarentzat, o! ikhara gaiten; ordutik badugu arrazoin guzia beldurtzeko zeruko dohain preziatu hura ez dela gure arimetan.

HEMEN AKHABATZEN DA TESTAMEN BERRIKO HISTORIOA

